Zu hemen zaude.
goiena

2022-10-07 EGUBAKOITZA / 964. ZENBAKIA / 22. URTEA
**DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA** GOIENA.EUS TOKIKOM




+ Literaturaren eskutik, bidaia bailaran barrena

Maria Teresa Telleria idazleari elkarrizketa



# EMUN: 25 URTE ERALDAKETAREKIKO KONPROMISOAN LANEAN

Lan esparrua euskaratzeko duela 25 urte Arrasaten sortu zen kooperatibak Arrasateko Iturripe kiroldegian egin du "esperientziak partekatzeko" topaketa eta ekitaldi berezia / 2

**Atzo eguerdian Arrasateko Iturripe kiroldegian Emun kooperatibak egindako 25. urteurreneko ospakizun ekitaldiaren une bat.** JAGOBA DOMINGO



**GOIENA TELEBISTAREN GAINEKO GEHIGARRIA** / 23

## SINADURAK

 RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA / **6**

 XABIER GESALAGA / **35**

 ARANTZA MIGUEL / **21**

 MARIA AGIRRE / **48**

2 MÓ 229€

BETAURREKO PROGRESIBO ERREFLEXUEN AURKAKO LENTEEKIN

www.multiopticas.com



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

multiópticas
kalitatea - konfiantza - diseinua



Emun kooperatibak atzo Arrasaten egin zuen ekitaldiaren une bat; hizlari, Amaia Balda koordinatzailea. JAGOBA DOMINGO

# Zalantzak partekatuta, eraldatzen jarraitzera

25. urteurrena ospatu du Emun kooperatibak, inguruan eraldaketarekiko konpromisoz diharduten enpresa eta erakundeen alboan. Arrasateko Iturripe kiroldegian egin dute esperientziak partekatzeko topaketarekin eta ekitaldi bereziarekin osatutako jaia

**Hasier Larrea** ARRASATE

Zalantzari leiho bat irekiaz, *Eraldaketan* jardunaldia egin zuten atzo, goizetik eguerdira bitartean, Arrasateko Iturripe kiroldegian. Lan esparrua euskalduntzeko helburuarekin sortutako Emun kooperatibaren 25. urteurrena ospatu zuten modu horretan, eta hitzordura, emunkideez gain, administrazio eta enpresa arloko ordezkari ugari bertaratu ziren; tartean, bailarako alkateak eta Aldundiko eta Mondragon korporazioko goi-karguak.

Topaketari hasiera emateko, Nico Cuencak eta Naiara Goiak hartu zuten hitza, eta ekainean enpresetako aniztasunaren eta elkarlanaren gobernantzari buruz egindako online saioen zutabe txiki batzuk aipatu. Gero, bidaia batean murgildu ziren Amaia Asuaren, Satur Ormazabalen, Julen Mendozaren eta Arantza Santestebanen esperientziak arretaz entzunda. "Beraien bitartez, ondorio batzuk atera ditugu; esaterako, euskalduntze prozesuan zalantzak sortzen direnean norbait alboan izatea oso lagungarria dela; egoera batzuetan arazoa norbera izan daitekeela galdetzean, protagonista bihur gaitezkeela; pertsona batzuek guri buruz esan nahi dutena entzuten ez jakiteak; eta planifikazio estrategiak diseinatzera ohituta gaudela, egoeraren potentzialtasuna irakurtzen jakin gabe", azaldu zuen Amaia Baldak, Emuneko koordinatzaile orokorrak. Saio hartan sortu ziren galderak Ainhoa Lasa emunkideak gidatu zituen, eta, jarraian, sorpresa ederra hartu zuten gonbidatuek, Anari kantautorea igo baitzen oholtzara; Nacho Vegasen *Vinu, cantares y amor* euskarazko bertsioa eskaini zuen.

### Ekitaldia, eskertza gisa

Eguerdian egin zuten ekitaldi berezia. Lan esparrua euskalduntzeko ibilbidearen gaineko bideoak proiektatu zituzten, dantzari baten mugimenduekin harilkatuz, eta, azkenik, otordua egin zuten.

## Ze eraldaketa esperientzia kontatu duzu?



**AMAIA ASUA ORUE**
HAZI FUNDAZIOA

"Lanean eta bizitzan euskaraz komunikatzekoa. Hazi fundazioko euskara planari esker, saltoa eman dut hizkuntza ohituretan. Hala, zikloa itxi dut: nire amonak bai, baina amak ez zekien euskaraz, eta nik nire alaba eta bilobari erakutsi ahal izan diet".



**JULEN MENDOZA** GIZARTE BERRIKUNTZAN AHOLKULARI

"Entzute sakona oinarri duena. Administrazioko postu askotan lan egin ostean, ikasi dut ez dagoela egiarik, ikuspegiak baizik. Gai konplexuei entzutearen bidez erantzunda, eraldaketa pertsonala gauza daiteke, eta hortik kolektiboa".

## 25. urtemuga ospatuko du Euskaltzaleen Topaguneak

Gaur, arratsaldeko seietan hasita, Donostiako Aquariumean egingo dute ospakizun-jaialdia

**H.L.** DEBAGOIENA

"Merezi eta behar dugulako, elkarren beroa eta babesa sentitu behar dugulako, aspaldiko ezagunak agurtzeko eta ezagutzen ez ditugunekin harreman berriak estutzeko", horregatik animatu ditu ospakizunera bertaratzera Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariak urteotan euskararen alde lan egin duten guztiak. Horiei eskerrak eman dizkie: "Zuek gabe, ez ginen egongo gauden lekuan eta Topagunea ez zen izango gaur egun dena".

Herriz herri antolatuta dauden euskaltzaleen bilgunea izanik, komunitate trinkoa osatzeko bidean jarraitu nahi du erakundeak: "Bide luzea eta oparoa egin dugu guztiok; ilusioz eta konbentzimenduz gainditu ditugu hamaika oztopo eta zailtasun. Ez da beti erraza izan, baina hemen gaude eta badugu zer ospatua!", azaldu du Amonarrizek, adibide gisa jarriz azken urteotako trabak: "Pandemia gogor batetik gatoz, eta krisi-hotsak nonahi entzuten dira. Baina urte hauek ezer erakutsi badigute, elkarren beharra dugula izan da". Horregatik, gaurko jaialdiak indarra hartzeko ere balio izango die.






Unai Parot euskal presoak espetxean 32 urte daramatzala salatzeko apirileko manifestazioa Arrasaten. GOIENA

# Donostian amaituko dute 'Izan bidea' dinamika

Sarek aurten egingo duen "mobilizazio eta jaialdi handiena" antolatu du biharko, hilak 8. Euskal presoak etxetik "gero eta gertuago" daudela baina oraindik ere salbuespena guztiz amaitzeko bidea "egiteke" dagoela adieraziko dute

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

*Etxera bidea gertu!* lelopean, egun osoko egitaraua prestatu du, Donostian, biharko, euskal preso, iheslari eta deportatuen giza eskubideen alde lan egiten duen Sare erakundeak. 11:00etan batuko dira, Bulebarrean, *Izan bidea* dinamikako azken kilometroa egiteko: "Etxerako, elkarbizitzarako eta bakerako bidean, Euskal Herriak duen biztanle kopurua kilometroetan egitea izan da dinamikaren helburua: 3.127.326 kilometro, hain zuzen; banaka edo taldeka, korrika, oinez zein bizikletan egiteko aukera egon da, sakelakoan *Izan bidea* aplikazioa deskargatuz", azaldu dute bailarako Sareko kideek.

12:00etan, "manifestazio koloretsua" hasiko dute Pio XII.a kalean, eta Ilunberantz zuzenduko dira, bertan izango direlako, hurrenez hurren, ekitaldia eta jaialdia. Izan ere, arratsalderako, txosnagunea, bazkaltzeko zerbitzua, haurrentzako gunea, bertso-saioa eta kontzertu eskaintza zabalaz gozatu ahalko dute bertaratutakoek –sarrerak asteazkenean agortu ziren–.

### Bost autobus bailaratik

Debagoiendar ugarik egingo dute bat Sareren ekitaldiarekin. Bihar, 10:00etan, irtengo dira autobusak, Arrasate, Bergara eta Oñatitik, eta bueltatzeko bi aukera egongo dira, lehena 20:00etan eta bigarrena 02:30ean. Aretxabaletatik, gainera, Ilunbeko jaialdira zuzenean joateko autobusa antolatu dute.

Sareko kideak "pozik" daude *Izan bidea* dinamikak bailaran jaso duen babesarekin: "Hainbat ekimen egin ditugu, hala nola bertso saioa, mendi tontorren igoera eta *Degurixatik etxerako bidean* ardien jaitsiera".

Urriaren 8ko ekimen eta jaialdiarekin itxiko dute *Izan bidea* dinamika: "Euskal presoak etxetik gero eta gertuago egotea aurrerapauso garrantzitsua dela adieraziko dugu, eta eskerrak eman, bide batez, bide horretan aktibo izan diren pertsona guztiei; bestetik, oraindik ere salbuespena guztiz amaitzeko bidea egiteke dugula gogoratuko dugu". Horrenbestez, urtarrileko Bilboko manifestazioa izango da Sarek antolatuko duen hurrengo hitzordu garrantzitsua.

Lanaren Etorkizuna hobetzen, Orain.

Pertsonen alde eginez.

Lanaren kontzeptua aldatzen ari da. Hori ikusita, Gipuzkoako Foru Aldundia gure lurraldeko enpleguaren etorkizuna lantzen ari da duela lau urtetik, **Etorkizuna Eraikiz** egitasmoaren bidez.

Sartu **etorkizunaeraikiz.eus** webgunean eta ikusi gipuzkoarrok zer egiten ari garen gure etorkizunaren alde.

Gipuzkoako Foru Aldundia
ETORKIZUNA ORAIN





Capital Energy enpresak, adibidez, Karakate parke eolikoa sortu nahi du, eta eragina izango du Elosuan. CAPITAL ENERGY

# Mendietan eolikorik ez egitea aldarrikatuko dute

Gipuzkoako parke eolikoen proiektuen aurkako zenbait eragilek agerraldia egingo dute hilaren 12an, Elosuan. Haien arabera, mendien industrializazioa ez da bidea, eta bertan behera utzi behar dira planak. Elkar ezagutzeko ere baliatuko dute eguna

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** DEBAGOIENA

Parke eolikoen proiektuek ez dute etenik. Eginak dituzte bailarako herri batzuetan eragina izango duten Itsaraz, Irimo eta Karakate proiektuak gauzatzeko lehen urratsak, eta baita Gipuzkoako beste eremu batzuetan sortu nahi dituzten parke eolikoetan ere. Bada, horiek izan dezaketen eraginaz kezkatuta, plan horien kontrako zenbait eragile elkartu dira, eta agerraldia egingo dute hilaren 12an Elosuan.

Karakate Bizirik da talde horietako bat, eta, Regina Maiztegi taldekideak jakinarazi duenez, mendietan eolikorik ez egitea da aldarrikatuko duten puntuetako bat, eta, aldi berean, baita bertan behera uztea proiektu horiek guztiak ere.

Urretxu-Zumarraga Bizirik, Andatzu-Ezkeltzu Bizirik, Sañu Bizirik eta Oletan Ere Ez dira elkartu diren gainontzeko lau taldeak, eta, gaur-gaurkoz, Gipuzkoa mailako plataformarik osatzen ez badute ere, Maiztegik nabarmendu du jarraitu beharreko oinarrizko bidean ados daudela talde guztiak.

### Elkar eragiteko bidean

Topaketa hori baliatu nahi dute denen artean biltzeko, elkar ezagutzeko eta elkarrekin lan egiteko. "Argi duguna da mendiak babestea dela oinarria, eta hortik hasi beharko luketela planifikazioek. Berdin zaigu enpresa pribatua edo publikoa den, hemengoa edo kanpokoa". Haren hitzetan, eztabaida ez dago hor, baizik eta ea nola babestu daitezkeen mendiak eta bertako ondarea. "Gure mendien industrializazioa ez da bidea".

**ERAGILEEK USTE DUTE MENDIAK BABESTEA IZAN BEHARKO LUKETELA GOGOAN PLANIFIKAZIOEK**

Alabaina, agerraldiaren aurretik, mendi martxak egingo dituzte, norbere inguruetatik. Are gehiago, urrunagotik datozenentzat, Maiztegik jakinarazi du autoetan eta autobusean joateko eta itzultzeko aukera emango dutela.

Martxa horiek 12:30ean iristea aurreikusten da, eta hamaiketakoa egingo dute. 13:00etan izango da prentsaurrekoa, eta sorpresa bat ere egongo da. Hain justu, aurreratu duenez, haize errota batek izan dezakeen eragina irudikatzen saiatuko dira. Eta, amaitzeko, bazkaltzeko aukera ere egongo da.

### Auzotarrak ere kezkatuta

Elosuko auzo-alkatea da Iñigo Zubeldia, eta bat egin du agerraldiarekin. Uste du halako proiektuek "sekulako kaltea" eragin dezaketela; are handiagoa landatik bizi den jendearengan. "Nire alegatua beti izan da lehenengo sektorea defendatu behar dela; hori egin ezean, galduta gaude".

## Miren Elgarresta izendatu dute Emakundeko zuzendaria

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun zuzendaria izan da orain arte, eta Antzuolako Udaleko zinegotzia da

**A.R.K.** DEBAGOIENA

Izaskun Landaida izan da azken hamar urteetan Emakundeko zuzendaria, baina, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak martitzenean iragarri zuenez, Miren Elgarrestak hartuko du haren lekukoa.



Miren Elgarresta. GOIENA

Zumarragarra da sortzez Elgarresta, baina lotura estua du bailararekin, urteak baitaramatza Oñatin bizitzen. Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun zuzendaria izan da orain arte, eta Antzuolako Udaleko EAJko zinegotzi ere bada 2019az geroztik. Hain justu, Gizarte eta Ongizate batzordeko kidea da egun. Gainera, Oñatiko alkategai ere izan zen 2015eko udal hauteskundeetan, eta, EAJk aurreko hauteskundeetan baino boto gehiago eskuratu arren, bigarren postuan gelditu zen, EH Bilduren atzetik, botoen %41,01 eskuratuta.

Ikasketei dagokienez, ordea, albaitaria da, eta baserri eta lehen sektoreko enpresetan lan eginikoa urte luzez. Ingurumen alorra izan du sarritan lan eremu, eta Arantzazuko parketxean proiektuen teknikari ere izan zen, besteak beste.

### Erronka berriak

Dena den, orain, beste zeregin bat izango du esku artean Elgarrestak, Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak nabarmendu duenez, Jaurlaritzatik "beharrezkoa" ikusi dutelako aldaketa bat. "Bultzatu nahi ditugun erronka garrantzitsu batzuk ditugu, eta uste genuen Izaskunena ez bezalako profil bat behar genuela. Ez hobea, ez txarragoa, gainerako horiek martxan jartzeko beste profil bat baizik".

Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak ere zorte ona opa dio Elgarrestari erronka berri honetan, orain artean Diputazioan eginiko lana eskertzearekin bat: "Berdintasunaren aldeko politika publikoetan aitzindari den lurralde batean, egitasmo berritzaileak abiarazten asmatu duzu".

**ARTOLAZABALEN ARABERA, DITUZTEN ERRONKAK MARTXAN JARTZEKO PROFILA DA ELGARRESTARENA**

## Itxita dago Arlabango mendatea hilaren 12ra arte, lanengatik

Gipuzkoako Foru Aldundiak Arlabango mendatearen lerradura egonkortzeko obrekin jarraitzen du, eta errepidearen zati hori itxita egongo da zirkulaziorako hilaren 12ko 20:00 ingurura arte. Hala ere, une oro dago bermatuta larrialdietako ibilgailuentzako pasabidea. Eta bertakoentzako ere baimenduta dago erabilera.

## Langabeziak behera egin du abuztutik irailera bailaran

Abuztuan baino 90 langabe gutxiago egon dira irailean Debagoienean. Hala ere, herri guztietan joera ez da bera izan: Arrasaten eta Elgetan gora egin du langabeziak. Lanik gabe zeuden biztanleak %8,18 ziren abuztuan eta %7,89 izan dira irailean. Horrek, beraz, esan nahi du Debagoienean behera egin duela langabeziak.

# Hilaren 14tik 16ra egingo da Puntaik Punta jaialdia

Debagoieneko Mankomunitateak antolatzen du egitasmoa, eta seigarren edizioa da aurtengoa. Hiru gune nagusi egongo dira, eta askotariko ekintzak antolatu dituzte espazio horietan zein bailarako inguruetan; batzuetan, izena eman behar da

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ARRASATE

Arrasaten egingo da aurten Puntaik Punta bidezidorren jaialdia, hilaren 14tik 16ra bitartean. Debagoieneko Mankomunitatea da sustatzailea, eta Maite Anton lehendakariak xehetasunen berri eman du.

Azaldu duenez, eskualdean "errotuta" dagoen jaialdia da, eta seigarren edizioa da aurtengoa. Haren arabera, bailarako "ingurumen ondarea ezagutarazteko eta hari balioa emateko" helburuarekin abiatu zen, 2016an, eta, ordutik, horretan dihardu. "Natura maite duen edonor izango da ongietorria. Kontzertuak, ipuin kontaketak, ibilbideak… egingo dira, publiko zabalarentzat".



Puntaik Punta jaialdiaren aurkezpena egin zuten eguaztenean. IMANOL BELOKI

Iker Goiria Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismoko zuzendariak ere halako egitasmoek lurraldean duten garrantzia azpimarratu du, eta Diputazioaren helburu estrategikoekin bat egiten duela. "Klasiko bihurtu da, eta, gainera, aintzat hartzen duguna. Batez ere, bi arrazoirengatik: batetik, naturari eta turismoari balioa emateko aukera ematen du, eta, bestetik, lurraldearen barruan mugikortasuna sustatzen du".

### Egitarau zabala

Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak ere jaialdiaren garrantzia nabarmendu du: "Balio natural ikaragarria dugu, gure mendi ibilbideak eta bidezidorrak zaindu, babestu, bultzatu egin behar dira. Hori etengabeko lana da, eta sustatu egin behar da. Jaialdi honekin hori bilatzen da". Gainera, jakinarazi du autokarabanentzako gune bat ere jarriko dutela Arruena parkean, eta, beraz, gaua bertan igarotzeko aukera ere badagoela. Hala, arrasatearrak ez ezik, debagoiendarrak ere gonbidatu ditu bertaratzera.

Izan ere, egongo da zer egina egun horietan. Hiru gune nagusi izango dira: Zaldibar frontoian, umeentzako abentura jolasak egingo dira; Biteri plazan, berriz, Debagoieneko artisauen azokak hartuko du lekua, eta baita xendazaletasunarenak ere. Are gehiago, karpa handi bat ere kokatuko dute ikuskizunak egiteko; azkenik, Seber Altuben, hileko hirugarren zapatuan egiten den bertako produktuen azoka izango da. Beraz, kanpotik datozenek bertakoa dastatzeko aukera izango dute.

Dena den, Leire Parra Mankomunitateko Turismo teknikariak abisatu du ekintza batzuetan izena eman behar dela, *www.puntaikpunta.turismodebagoiena.com* webgunean.

**"JAIALDI HONEK BERTAKO BALIO NATURALA ZAINTZEA DU HELBURU"**

MARIA UBARRETXENA

Neinor HOMES

SAN ANDRES HOMES • ARRASATE

Terraza, jolas eta afari egunak
OSO GERTU DAUDE

Etxebizitza estilo berri bat
iritsi da San Andresera

Terrazak | Haurrentzako jolastokia
Garaje eta trastelekua | Gimnasioa

NEINOR STORE: Maalako Errabala, 33



900 11 00 22 • neinorhomes.com



ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA

# Langilearekiko desleialtasuna

Eskandaluzko gertakari bat izan du lagun batek.

Tailerrean metalezko pieza batzuk zulatzen ari zela, makinak eskua harrapatu eta hatz bat zauritu zuen. Nagusiari parte ematean, hark urgentzia zerbitzuan etxean zauritu zela azaltzea iradoki zion. Ezezkoa erantzutean, horren ordez kaxa batzuk mugitzen ari zela zauritu zela esatea proposatu zion. Hau ere ez zuen onartu eta urgentzietan egia esan zuen.

Istripuaren zergatiak aztertzean, makina aurretik matxuratuta zegoela jakin zuen lagun honek; zuloa egindakoan broka gelditu eta baztertu egin beharko zukeen makinak, baina broka ez zen gelditzen. Nagusiak aurretik ba omen zekien.

Gertakari honek bi gogoeta dakarzkit burura: batetik, lan baldintzen maila eskasa, segurtasun baldintzak bermatu gabe eta langilea arriskuan jarriz; eta, bestetik, istripuaren ondorengo leialtasunik eza, gertakariaren ardura saihesteko ahaleginez eskuak garbitu eta ondorioak ekidin nahian.

**ENPRESEI DAGOKIE OSASUNTSU LAN EGITEKO BALDINTZAK BERMATZEA**

Honen ondorioz, gehiengo sindikalak egindako *2021eko Hego Euskal Herriko lan-istripuei buruzko txostena* begiratu dut. Nahiz eta COVIDaren ondorioz aktibitatea murriztu, gora egin zuten lan istripuek 2020tik 2021era. Datu ofizialen arabera, %10,2ko igoera EAEn eta %16,7koa Nafarroan. Bestalde, datu ofizialen arabera, 38 hildako izan ziren 2020an eta 48 hildako 2021ean, baina sindikatuek egiaztatu dute 70 izan zirela 2020an eta 68 iazko urtean.

Harrigarria da jakitea 2021ean EAEn 205 istripu izan zirela eguneko eta Nafarroan 30; hauetako erdietan langileen baja eraginez. Halere, bigarren datu hau ez da guztiz egia, aipatutako gertakarian moduan, enpresek eta mutualitateek hauetako kasu asko ohiko gaixotasun moduan kalifikatzen baitituzte, lanaren ondoriozko istripuak ez balira moduan.

Enpresei dagokie osasuntsu lan egiteko baldintzak bermatzea eta istripu kasuan euren ardurak onartu eta neurriak hartzea, langileen lana eta garapena denen onurarako burutuko bada.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA




HANDIK ETA HEMENDIK

## Arrantzale beltzak

ANDER IZAGIRRE

'TTAP-'EN ARGITARATUA

Euskal Herriko lehen arrantzalea –zehatzago esanda: arrantza industriaren historian izenez ezagutzen dugun lehen langilea– esklabo liberatu bat zen; beltza, seguru aski. Duela bi mila urte, Caius Iulius Nigerrek *(Beltza*-k) marmolezko plaka batean idatzi zuen hilobi bat agindu zuela berarentzat, Caius Iulius Adiucus eta Iulia Hilararentzat. Ez da kasualitatea hirurak Iulius edo Iulia deitzea. Plakak dio libertoak zirela, Caius Iulius Leo patroiaren esklaboak izandakoak, eta jabe ohiarengandik hartuko zuten izena.

Plaka 1984an aurkitu zuten, Lapurdiko Getarian harrizko egitura batzuen hondoan indusketak egiten ari zirela. Harrizko hiru kubo ia osorik zeuden, beste lau nahiko hondatuta. Herritarrek ondo ezagutzen zituzten egitura hauek, baleen koipea urtzeko labe zaharrak zirela uste zuten, baina arkeologoek amuak, sareak hedatzeko berunak eta zortzi arrain espezieren arrastoak aurkitu zituzten. Ondorioa: erromatarren garaiko *cetaria* bat zen, alegia, arrainak gazitu eta arrain saltsa ekoizteko fabrika. *Cetus* hitzak *arrain handia* esan nahi du latinez –grezieraz *ketos* itsas munstroa zen; balea, adibidez–. Hortik zetazeoak, hortik arrain saltsa prestatzeko ketariak, hortik Lapurdi eta Gipuzkoako Getariak: arrainen eta baleen herriak. Arkeologoen ustez, Leo patroia Getariako fabrika honen jabea izan zitekeen eta hiru libertoek harentzat lan egingo zuten.

Bi mila urte geroago, 1991n, Moussa Thior senegaldarra Ondarroara etorri eta arrantza-ontzietan hasi zen. "Afrikarrik gabe, euskal flotak ezingo luke lanik egin", esan zidan.

Gizakion historia etengabeko migrazioa delako, ez dagoelako herrialderik nahastu gabe aurrera egiten duenik.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabier Urzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

## Energia berriztagarria bai; mendiak txikitu ez

**ARIANNE UNAMUNO LOIDI**
GIPUZKOAKO MENDIAK ASKE TALDEKO KIDEA [AZKOITIA (OLETAN ERE EZ), AZPEITIA (SAÑU BIZIRIK), BERGARA (KARAKATE BIZIRIK), ELGOIBAR (KARAKATE BIZIRIK), SORALUZE (KARAKATE BIZIRIK), URRETXU-ZUMARRAGA (URRETXU-ZUMARRAGA BIZI!), USURBIL (ANDATZA-EZKELTZU BIZIRIK), ZESTOA (SAÑU BIZIRIK), ZIZURKIL (ANDATZA-EZKELTZU BIZIRIK)]
DEBAGOIENA

Gipuzkoara atzerritik etorritako enpresa handiak zentral eolikoak egiteko baimenak tramitatzen ari dira. Han eta hemen aurkeztutako proiektuen erritmo berean sortzen ari dira taldeak, bertako mendietako ondare naturala, arkeologikoa, geologikoa, historikoa, paisajistikoa eta espirituala babesteko, zein inguruetako baserrietako eta herrietako biztanleak, haien bizitokia, haien osasuna eta jardun ekonomikoa –bereziki nekazaritza jarduerari lotutakoa– defendatzeko. Eta elkarlanean hasi gara.

Mehatxua ez da nolanahikoa: 200 metro luze eta 158 metro zabal liratekeen makroeolikoak aurkeztu dituzte –Elgeakoak halako bi baino altuagoak–, 5 metro zabal baino gehiago izango liratekeen errepide berriak mendi gainetaraino eta hauetan zehar, hormigoizko zimentazio erraldoiak eta abar, eta abar. Dorre eolikoak material mugatuez egiten dituzte. Material horiek lortu, garraiatu eta manipulatzeak kutsatu eta energia fosil asko gastatzen du. Bestalde, dorre eolikoen hegalek –70 metro luze edo luzeago direnak– gehienez 25 urtez funtzionatzen dute. Hondatzen direnean, oraindik orain, hondakin moduan lurperatzen dituzte gehien-gehienak. Berriztagarriak?

Erauntsi mediatikoek zabaltzen duten mezua da ez dagoela makroproiektuok berehala egin beste erremediorik. Ez da, bada, egia: energia lortzeko modu asko daude dagoeneko martxan, urrutira joan gabe, Euskal Herrian bertan, eta sortzen ari dira modu hobeak ere. Baliabide energetikoen ustiapenerako gobernantza eredu sozialak eta gertukoak baliagarrienak dira, instalazio txikiagoak energia kontsumituko den lekuetatik gertuago jarrita, jada artifizializatuta dauden eremuak lehenetsiz –teilatuak, industrialdeak…–, efizientzia energetiko hobea lortuz eta kalte txikiagoa eraginez. Europa erdialdeko hainbat herrialdetan bide horri ekin diote, eta horrekin batera debekatu egin dute mendietan eolikoak jartzea.

Esandako guztiagatik, Gipuzkoako mendiak babestearen alde gauden eta aurkeztu diren proiektu eolikoak geraraziteko lanean gabiltzan taldeok urriaren 12an Elosuan bukaera izango duten mendi-martxei batzeko dei egiten diegu herritarrei.

## Ibaia bizirik, hizkuntza bizirik

**EÑAUT MUXIKA**
AED-KO LEHENDAKARIA
ARRASATE

Hizkuntza oro bere lurrari atxikita sortzen eta garatzen da. Lur horrek ematen dizkio izana, izena eta sena hizkuntzari. Hizkuntza baten osasuna bere ekosistema sozialaren eta naturalaren egoerak baldintzatzen du guztiz. Ekosistema aldatzen den neurrian aldatzen dira bertako hizkuntzak. Baita hil ere. Deba ibaiak eman dio nortasuna gure eskualdeari, behinolako burdinoletatik egungo fabriketaraino. Deba ibaiaren bidetik moldekatu eta ezaugarritu da gure euskara ere, Leintz Gatzagatik Kantauri itsasoraino, bihurgunez bihurgune. Euskara maite badugu zorretan gaude gaurdaino gorde duen arroarekin, zorretan Deba ibaiarekin. Ibaia hilko balitz, akabo eskualdea, akabo hizkuntza.

Bizirik behar dugu ibaia, bizirik bere emarira batzen den erreka txikiena ere, Debagoiena eta bere jatorrizko hizkuntza, gure euskara, biziko badira. Urriaren 15ean, Deba ibaiaren eta erreken garbiketa egingo da auzolanean eta AEDko Zuzendaritza Batzordeak ekimenean parte hartzera gonbidatzen eta animatzen zaituzte Arrasateko euskaltzaleok.

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali
***gutunak@goiena.eus*** helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

## Eskerrik asko!

**PILI IRIARTE**
ARRASATEKO NAGUSIEN KONTSEILUKO LEHENDAKARIA
ARRASATE

Arrasateko Nagusien Kontseiluak, gutun honen bidez, eskerrak eman nahi dizkie Nagusien Astearen ospakizunean parte hartu duten guztiei.

Arrasateko herri osoari, ekitaldi guztietara etortzeagatik eta jasotako babesagatik. Komunikabideei, antolatutako ekitaldi guztiak zabaltzeko egindako lanagatik.

Ibai-arte eta Ozenki elkarteei, urriaren 1eko (larunbata) Adinekoen Nazioarteko Eguneko jai-ekitaldi guztietan egindako ekarpenagatik.

Abaroako abesbatzari, Arrasate Musikali, Bastida akademiari eta abarri.

Eta, azkenik, Arrasateko Udalari, haren laguntzarik gabe irailaren 26tik urriaren 1era bitartean egin diren kultur eta jai ekitaldi guztiak antolatzea ezinezkoa izango bailitzateke.

Eskerrik asko guztioi.

Esan beharra dago 2022ko Nagusien Astearen gaineko oso balorazio positiboa egiten dugula.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBIÑE UBEDA**





Auditorium nagusiak 164 eserleku ditu. KOLDO ZUBIA



Goian aire libreko espazio bat sortu dute. K.Z.




Eraikinaren esentziari eta historiari balioa eman gura izan diote. K.Z.



Auditorium nagusiko agertokia moldagarria da. HASIER LARREA




Sarreran, eraikinaren izena. K.Z.



Musika etxeko beste geletako bat, eserlekuekin. K.Z.



Balleta praktikatzeko egokitu duten aretoa. K.Z.

# Juan Arzamendi Musika Etxeko obra bukatuta, hornitzea falta da soilik

Atzerapen handiarekin eta "uste baino gehiago kostata" bada ere, Juan Arzamendi Musika Etxeko obrak amaitu dituzte dagoeneko; ekipamendurako lehiaketa publikoa abian da eta aurreikusten dute Gabonen bueltarako guztiz ekipatuta egotea eraikina

**Eneko Azurmendi** ARRASATE
Sei urteko lanen ostean, Aprendices eraikin zaharra musikarekin lotutako ekintzetarako erabili ahal izango dute, azkenean. "Kostatu zaigu, eta uste baino luzeagoa izan da prozesua. Hala ere, esfortzu handiarekin, bukatzea lortu dugu eta egia da emaitzak merezi duela. Oso pozik gaude ", adierazi du Maria Ubarretxena alkateak.

Era berean, "erronka zaila" izan dela nabarmendu du Jakoba Kortak, Construcciones Moyua enpresako eraikuntza zuzendariak. "Gauza asko zeuden egiteko eta lan asko eman digu. Pandemiaz gain, Ukrainako gerrak ere eragin handia izan du gure sektorean. Hala ere, lan eginda, lortu dugu bukatzea, eta oso pozik gaude emaitzarekin".

Aprendices eraikinarekin alderatuz, sarrera berria hegoaldeko fatxadan kokatu dute, Zerrajera kalerantz, "Kulturoarekin bateragarritasuna eta irisgarritasuna hobetzea bilatzeko asmoz". Era berean, *Escuela de Aprendices* errotulua sarrera berrian kokatu dute.

Eraikinak Aprendicesen izaera mantendu nahi izan du. "Eraikinari balioa eman gura izan diogu, eta haren izaera berreskuratu. Halaber, eraikina hustu eta berreraiki egin dugu, solairu bat gehiago eta soto berri bat eginez", azaldu du Javier de la Fuentek, Krean enpresako arkitekto eta obraren zuzendariak.

## AUDITORIUM NAGUSIAK 164 ESERLEKU DITU, BAINA MOLDATU EGIN DAITEKE

### 2.740,50 metro karratu
Modu horretan, sotoa, beheko solairua eta hiru solairu ditu Juan Arzamendi Musika Etxeak: 2.740,50 metro karratu, guztira –solairu bakoitzeko 700 metro karratu erabilgarri–.

Sotoan instalazioetako gelak, garbitegia eta biltegiak daude eta beheko solairuan, berriz, harrera eta idazkaritza, 164 eserleku dituen auditorium nagusia, orkestraren entsegu gela eta perkusio gela daude, baita aldagela bat ere, auditorium nagusiari lotuta. Auditoriumari dagokionez, emanaldietarako aretoa bat da eta eraldatu egin daiteke, eserlekuen zati bat hartuta. "Horrekin lortzen duguna da orkestra eta abesbatza batera aritu ahal izatea", dio De la Fuentek.

Lehen solairuan, bestalde, instrumentu gelak eta hizkuntza gelak jarri dituzte, eta baita bakarka entseatzeko bi gela ere. Guztira, 19 gela dira.

Bigarren solairuan Goikobaluren egoitza dago. Batetik, entsegu gela handia, bakarka entseatzeko gela txikiak eta bulegoa. Bestetik, Big Band musika taldearentzako entsegu gela, instrumentu-bandarentzako bi gela eta dantza-entsegu gela eta aldagelak.

Hirugarren solairua espazio administratiboagoa da. Izan ere, Arrasate Musikalen zuzendaritza bulegoa, irakasle gela, artxiboa eta liburutegi-fonoteka daude hor. Horrekin batera, terraza berri bat ere sortu dute. "Espazio irekia da eta estalkia dauka, entseguez gain, formatu txikiko emanaldiak antolatu ahal izateko", azpimarratu du De la Fuentek.

## GOIAN AIRE LIBREKO ESPAZIO BAT SORTU DUTE, FORMATU TXIKIKO EMANALDIAK EGIN AHAL IZATEKO

### Lekualdaketa, Gabonetan
Behin obra amaituta, hornitzea bakarrik falta da orain, aurreko astean Goikobalu abesbatzak eta Arrasate Musikalek eraikina bisitatu eta euren beharrak zehaztu ostean. Horretarako lehiaketa publikoa abian da dagoeneko eta datozen asteetan ebatziko dute. Modu horretan, Udal Gobernuak aurreikusten du bi eragileak 2023a hasterako Juan Arzamendi Musika Etxean egongo direla. "Arrasate Musikaleko eta Goikobalu Abesbatzako kideek nahi izanez fero, Gabonetan lekualdatzeko moduan egongo dira", dio alkateak.

# Doako parkour ikastaroa egingo dute etzi, domeka

Dagoeneko erabilgarri dago Obenerrekako parkour parkea, 8 urtetik gorako haur, gazte eta helduentzat. Hala ere, domekan egingo dute inaugurazio ofiziala, ikastaro batekin. Doakoa den arren, izena eman behar da parte hartzeko, 'Arrasate.eus'-en

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Lotzen ADD Parkour Elkarteko kideek emango dute ikastaroa. Ander Garay Kirol zinegotziak azaldu duenez, kirol diziplina honi dagokionez, Gipuzkoa mailan handiena den elkartea da Lotzen, eta, era berean, parkearen diseinuan ere esku hartu du. Hori dela eta, egokia iruditu zitzaien haiekin batera antolatzea inaugurazioa. Tailerra 10:00etatik 14:00etara egingo dute, ordu eta laurdeneko hiru txandatan. Dena den, aurrez izena ematea komeni da, BAZ zerbitzuan, Musakola kiroldegian edo udal webgunean, eta gaur, egubakoitza, da horretarako azken eguna.



**Obenerrekako parkour parkea.** AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ KORTABARRIA

**Beste eragile batzuk ere bai**

Lotzen elkarteko kideez gain, beste parkour eragile batzuek ere parte hartuko dute domekako saioan: Parkour Bilbao, Arabatarren Parkour Elkartea, Indarrez Parkour eta ADD eskola.

Garayk azaldu du EAE mailan dagoen parkerik onenetakoa dela Arrasaten egin berri dutena. "Beraz, komentatu ziguten interesgarria izan zitekeela beste elkarte batzuetako kideak etortzea, elkar ezagutzea, eta urtean zehar ere bestelako ekintzak antolatzea".

**Haurren Kontseiluaren eskaria**

Haurren Kontseilutik 2018an iritsitako eskaera baten ondorioz erabaki zuen Gobernuak parkea sortzea. Lehen Hezkuntzako laugarren eta bosgarren mailetako haurrek osatzen dute kontseilu hori. "Arrasaten badago afizioa, eta gune duina egitea erabaki genuen, praktikatu zezaten. 8 urtetik gorakoentzako falta zen horrelako gune bat sortzea".

**'Pumptrack' parkea Markuleten**

Kanpoko kirol espazioei dagokienez, beste proiektu batzuk ere baditu esku artean Udal Gobernuak, eta horietako bat da *pumptrack* parkea. Herritarren eskarietatik sortutako proiektua da, aurrekontu parte-hartzaileetan bozkatuena izan zen proposamenetako bat baita. Kontratazioa martxan dagoela adierazi du Kirol zinegotziak. "Markuleteko berdegune batean egingo dugu parkea, 3.000 metro karratutik gora izango dituena. Euskal Herri mailako onenen artean kokatuko da eta aurreikusten dugu martxo ingururako ireki ahal izatea".

## Elkartasun Eguneko saria nagusia, Brenda Fictoriarentzat

Inork ez du egiaztatu saritutako zenbakia duenik, ezta lehen ordezkoa duenik ere. Hori dela eta, bigarren ordezkoa, 571 zenbakiaren jabea, izan da saria eraman duena: Brenda Fictoria. 300 euroko saria da, erosketa-bonuetan eta Ibai-arteko edozein dendatan erosketak egiteko. Harremanek 3.065,80 batu zituen tonbolan, Ankur proiekturako.

## Nafarroa Oinez-era joateko autobusa egongo da Arrasatetik

Urriaren 16an egingo dute Nafarroa Oinez, Tafallan. Autobusa Aretxabaletatik irtengo da, Azbetik, 09:00etan; 09:15ean iritsiko da Zalduspera, eta Bergaratik pasatuko da. Itzuleran, 19:00etan abiatuko da Tafallatik. Txartelak Loramendi, Jardun eta AED elkarteetan eskura daitezke urriaren 13ra arte, 15 eurotan –bazkideek, 12 euro–.

## Iratxe campingera irteera egingo du Abaroak hilaren 19an

Arroniz herriko El Morapia bodegara bisita egingo dute eta ondoren denbora librea izango dute Lizarran. Gero, Iratxe campingean bazkalduko dute. Izen-ematea urriaren 10ean, astelehena, izango da, Abaroan bertan, 10:30ean. Txartelak, berriz, urriaren 17an banatuko dituzte, 11:00etan. Prezioa 37 eurokoa da pertsona bakoitzeko.

## Euskaraldian izena emateko mahaiak, urriaren 11tik aurrera

Gaur, Maritxu Kajoi eguna baliatuz, 11:00etatik 12:30era, *Ahobizi* eta *Belarriprest* Arbolapetan izango dira, Euskaraldian izena emateko QRak banatzen. Gero, urriaren 11n, Arimazubi plazan jarriko dute izen-emate mahaia, 18:00etatik 20:00etara. Hilaren 13an, Arbolapetan, ordu berean; eta 15ean, Seber Altuben, 11:30etatik 14:00etara.

## 1952koen kintada egingo dute urriaren 22an, zapatua, Oñatin

Zalduspetik irtengo dira, urriaren 22an, 10:10ean, Oñatira. Interesatuek urriaren 17a baino lehen 60 euro ordaindu beharko dituzte kontu korronte honetan: ES 49 3035 0001 56 0011177351. Kontzeptuan hau jarri behar da: *52ko kintada + norberaren izen eta abizenak*. Informazio gehiagorako, deitu telefono honetara: 635 72 36 83.

## Avesantes: "Gure eskaerei erantzutea eskatzen dugu"

Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleko bizilagunen elkarteak salatu du Udalean duela ia urtebete eskatu zutela auzoan zegoen iturri bakarra berriro jartzeko eta erantzunik gabe jarraitzen dutela. "Prentsan agertu behar dugu kasu egiteko? Gobernuko norbaitek gure elkartearekiko duen gorrotoagatik da? Edo zergatik?", diote, haserre.



# Zergak eta tasak izoztea onartu du udalbatzak

2023ko ordenantza fiskalak onartuta geratu dira urriko ohiko osoko bilkuran, eta Udal Gobernuaren proposamenak egin du aurrera, oposizioaren aurkako botoekin; hala, zergak eta tasak daudenetan geratuko dira, "hainbat aldaketa teknikorekin" batera

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Onartutako diktamenak "hainbat aldaketa tekniko" ditu, Maria Ubarretxena alkateak azaldu zuenez. Hala ere, ez da aldaketa nabarmenik egongo zerga eta tasetan (Ikus *Goiena.eus*). Martitzeneko osoko bilkuran, Gobernuak argudiatu zuen "garai zailak" direla, prezioen igoera dela eta. "Ez da unea herritarrei esfortzu gehigarria eskatzeko".

EH Bilduk eta Podemos Arrasatek, ordea, aurka bozkatu zuten, zergak eta tasak izozteak progresibitatearen aurka egiten duela argudiatuta. Era berean, biek salatu zuten negoziaketarako aukerarik ez dutela izan.



Martitzenean egin zuten urriko ohiko osoko bilkura. E.A.

**Lorezaintza pleguak, onartuta**

Bestalde, enpresak eta langileek akordioa lortu ostean, onartu egin zituzten lorezaintza zerbitzuko pleguak, aho batez. Hala, lau urterako kontratua izango da eta ez du luzapenik izango. Victoriano Fuentes zinegotzi sozialistak aurreratu zuenez, urtarrilerako edukiko dute esleituta kontratu berria, Prezerorena amaitzear baitago.

Akordioa lortu arren, lorezainek "ezikusiarena" egin izana leporatu zioten Gobernuari, eta Fuentesek "harriduraz" hartu zuen hori: "Gure esku zegoen guztia egin dugu".

**Bulegorik ez, oraingoz**

Ezker Anitzak aholkularitza energetikoaren bulego bat sortzeko beharrari buruzko mozioa aurkeztu zuen, baina ez zuen aurrera egin, Gobernuaren hamabi botoak aurkakoak izan baitziren. "Bide horretan hainbat proiektutan lanean dihardugu dagoeneko: SHREC, Ekiola, Debagoiena 2030 eta abar", azaldu zuen Anuska Ezkurra bozeramaileak.

EH Bilduk begi onez ikusi zuen proposamena eta aldeko botoa eman zuen. Ezker Anitzak, halaber, deitoratu egin zuen mozioa onartu ez izana.

**LOREZAINTZA ZERBITZUKO PLEGUAK ONARTU DITUZTE, AHO BATEZ, DATOZEN LAU URTEETARAKO**

**Uztaileko bilkurak, soka luzea**

Galderen eta erantzunen tartean, Podemos Arrasateko Eva Abuinek uztaileko osoko bilkuraren amaieran gertatutakoa ekarri zuen bueltan. "Adierazpen instituzional bat egiten saiatu gara, baina ez gara adostasun batera heldu akusazio faltsu horiek gaitzesteko. Beraz, ez daukagu bermerik berriro gertatuko ez denik. Gaia ez badugu tratatzen, aurrekari bat izango da".

EH Bilduko bozeramaile Maider Morrasek, bestalde, nabarmendu zuen EH Bildu ez dela babestuta sentitzen. "Bahitzaileak ginela esan zigun auzo-alkate batek, alkatearen ordezkari batek, eta hori ez zuen moztu alkateak". Era berean, agintaldi hasieratik "maila politiko baxua" dagoela adierazi zuen EH Bilduren bozeramaileak, eta "errespetu falta izugarriak" izaten direla. "EAJren eta PSE-EEren partetik jaso izan ditugu irainak, eta hori ez dugu onartuko".

Ubarretxenak erantzun zuen gaia Bizikidetza Mahaian tratatu dutela dagoeneko eta ez dela egokia gaia osoko bilkurara eraman eta "zirkua" antolatzea: "Osoko bilkura publikoa da, komunikabideak daude, eta zirku bilakatzen da. Baina gu ez gatoz bat eredu horrekin, gaiak beste seriotasun batekin landu behar dira".

**Udala, Euskaraldiarekin bat**

Azkenik, Euskaraldiaren inguruko adierazpen instituzionala ere eraman zuten osoko bilkurara. "Udalak, ekimenaren sustatzaile gisa, Udal barruan ez ezik, udalerrian ere herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldia ekimenean parte har dezaten, eta izena emateko bideak erraztuko ditu. Udalak bat egiten du ekimena elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin", dio, besteak beste, adierazpenak.

## 'Dantzaren onurak zahartzaroan' hitzaldia eguenean

Portaloi elkarteak antolatuta, Maialen Araolazak hitzaldia egingo du urriaren 13an, Kulturaten, 18:30ean. "Bizi-itxaropenak gora eta gora egin ahala, zahartzaroko urte horiek guztiak osasunez bizitzea gure gizartearen eta agintarien ardura nagusietakoa bihurtu da. Osasuna jarduera fisikoari loturik, ibiltzea da jarduerarik ohikoena, baina hainbat aditu, gero eta ozenago, dantzaren onurak seinalatzen ari zaizkigu pertsonen osasun fisiko eta mentalean", azaldu dute antolatzaileek. Aditu horietako bat da Maialen Araolaza. "Euskal dantza tradizionalaren praktikak zahartzaroan dituen onurak ikertu zituen. Bilbao Musikan dantza tradizionala irakasten zuten Patxi Labordaren hainbat ikasleren jarraipena egin zuen, eta dantza egiteak haien funtzioetan zer-nolako ondorioak dituen neurtu".

## Zeramikako hastapen ikastaroak, Loixe taldearen eskutik

Urriaren 17tik abenduaren 1era, Kulturolako egoitza berrian egingo dituzte saioak. Hutsetik hasita zeramikaren prozesuak ezagutzeko ikastaroa izango da. "Piezak sortzeko eta akabera desberdinak emateko teknikak erabilita, partaide bakoitzak egingo du bere proiektu propioa". Izena emateko, deitu hona: 636 24 42 49 edo 645 79 61 27.

## Bulego eta Lemak taldeak, bihar, Monterron parkean

Aldundiak antolatutako Gipuzkoan Gazte Tour ekimenaren baitan, eta Arrasateko Udalaren babesarekin, Bulego eta Lemak taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua, Monterronen, 18:30ean, "nerabeei eta gazteei kultur programazio erakargarria eskaintzeko asmoz". Doakoa da, eta, eguraldi txarra eginez gero, Amaian izango da.

## OHARRAK

### Herribusaren hirugarren linea

Probaldia amaituta, zerbitzu bakarra eskainiko du aurrerantzean: 07:35ekoa. "Ikasleek erabili dute gehien, Zalduspetik unibertsitatera joateko. Beraz, zerbitzu hori mantenduko dugu", adierazi du Gobernuak.

### 'Under Grass' erakusketa eta kontzertua

Erakusketa urriaren 21era arte egongo da zabalik. Era berean, urriaren 12an, 19:00etan, Iker Ruiz de Apodaka *Judy*-k emanaldia egingo du Kulturateko areto nagusian.

### AED, urriaren 15eko erreka garbiketarekin bat

Parte hartzeko dei egin diete Arrasateko euskaltzaleei.



# Hyundai i30 N Line

## Nabarmendu zaitez

N Line

30 Hyundairen Urteurrena

I30 N Line
30. Urteurrena
**130** eurotik aurrera hilean

- 130 euroko 47 kuota
- Sarrera: 6.526,50 euro
- Azken kuota: 11.341,02 euro
- UTB: %9,89
- TIN: %8,25




Oharkabean pasatzea gustatzen ez zaien horietakoa bazara, zorteko zaude. Hyundai I30 N Line 30. Urteurrena Edizio Berezia heldu da. Ibilgailu horrekin, Hyundairen N autoetan inspiratutako kiroltasunaz gozatu ahal izango duzu, prezio ezin hobean. Serie berezi honek barne hartzen ditu N Line kanpoko diseinua kirol-aurrealdearekin eta kirol-atzealdearekin, 17"-ko hagun esklusiboak, N Line barnealdea oihalezko eserlekuekin eta jostura gorriekin, kirol-bolantea eta lehiaketaren munduan inspiratutako xehetasun gehiago. Nabarmendu zaitez Hyundai i30 N Line 30. Urteurrena ibilgailuarekin.

**ARRASATE-MUGARRI** San Andres auzoa 6 (Mugarri eraikina). 943 79 70 06 www.oarsocar.com

HYUNDAI

5 URTE Km-en mugarik gabeko Bermea

i30 N Lide 30. Urteurrena gama. $CO_2$ isuriak (g/km): 135-138. Kontsumo mistoa (l/100km): 6-6,1. Lortutako kontsumo- eta emisio-balioak, WLTP homologazio-zikloaren arabera.

*i30 5ATE TGDI 1.0 120ZP N Line 30A ibilgailuarentzako finantzaketa-adibidea. PSP: 25.495,00 euro. Finantzatutako prezioa: 19.895,00 euro. Barne hartzen ditu BEZa, garraioa, matrikulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantentze-lanen eskaintza eta Hyundairen Renove Plana, Hyundai ibilgailu bat erosi aurreko 6 hilabeteetan gutxienez eroslearen titulartasunpean erabilitako ibilgailu bat entregatzeagatik aplikatzekoa. Sarrera: 6.526,50 euro. Formalizazio-komisioa, eskura ordainduta (%3,75): 501,32 euro. Finantzatutako zenbatekoa: 13.368,50 euro. 130,00 euroko 47 kuota eta 11.341,02 euroko azken kuota. Interesak, guztira: 4.082,52 euro. Kredituaren kostua, guztira: 4.583,84 euro. Zenbateko egokitua, guztira: 17.952,34 euro. Epekako prezio osoa: 24.478,84 euro. TIN: %8,25. UTB: %9,89. Frantziako amortizazio-sistema. Hyundai Finance-rekin finantzatua Cetelem Bankuaren bidez 2022/10/31ra arte. Iragarki honetan agertzen den modeloa: i30 N Line 30. Urteurrena. Hyundai Motor España SLU enpresak bere azken bezeroei eskaintzen dien 5 urteko kilometraje-mugarik gabeko merkataritza-bermea Hyundai sare ofizialak hasiera batean saldutako Hyundai ibilgailuei soilik aplika dakieke, zerbitzuko pasaportearen baldintzen arabera. Informazio gehiago, Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es webgunean.

# Maritxu itzuli da, hori bai miraria!

Txikiteroen ama birjinari luze egin zaizkio azken hiru urte hauek, baita festazaleei ere. Hala ere, eta Maritxu Kajoi Komisiñuak adierazi duen moduan, "lagun artean ondo pasatzeko gogoa ez da desagertu". Gaur da elegante janzteko egun seinalatua

**Hasier Larrea** ARRASATE

45. Maritxu Kajoi izan beharko luke aurtengoak, baina 43.a izango da, koronabirusak eragindako bi alditako etenaldia tarteko. Egun batzuk igaro dira Maritxu Kajoi Komisiñoko kideek urriko lehen ostiralean ospatu ohi den jaia ohiko osagai guztiekin antolatuko zutela aurreratu zutenetik: "Heldu da urteko egun dotoreenaz gozatzeko ordua, armairuak zabaldu, hautsa kendu eta atera beharrekoak ateratzeko ordua!" Hori horrela, eskapularioak ezinbesteko protagonistei, txikiteroei, egingo die erreferentzia, *Txikiteroak tabernetara* esaldiarekin.

**24 orduko parranda**

Hala, prest dute gaur goizetik bihar goizera arte iraungo duen festa handiko egitaraua. 08:00etako, etxafuegoek ohartaraziko dute, oraindik despistaturik balego, txikiteroen zaindaria bueltan datorrela. 12:30ean irekiko du Txosna Batzordeak Monteazpin karpa, eta orduko kuadrillak hasiak egongo dira ama birjinari lore-sortak eskaintzen, dedikazio eta guzti. Bazkalostean, 17:30ean, Pontx pailazoak haurrentzako ikuskizuna eskainiko du Seber Altube plazan –euria egingo balu, Biteriko aterpean–; 19:00etan, erdiguneko kaleetan zehar entzungo dira Oria txaranga beteranoaren doinu alaiak; 21:00etan, miraria gauzatuko da Maritxuren bizitokian, hots, Herriko Plazako iturriaren inguruan; 23:00etan, dantzaldia eskainiko du toki berean Luhartz erromeria taldeak; 00:00etan, DJ Karpet's-ek jarritako kantuekin dantzatuko dute txosnagunean; eta hurrengo egunean, 08:00etan, txaranga irtengo da Monteazpitik.

Hori, egitarau serioari dagokionez. Izan ere, jakina da Komisiñuak umorea erabiltzen duela maritxutako ekintzen berri emateko, eta oraingoan ere bota dituzte zenbait perla; besteak beste, TAO sistema ulertzeko ikastaroa, Oñatiko lorategietara txangoa, argindar autokontsumo tailerra, Doke dema leninista, *Tinder Outlet*-a eta halako txantxak gehitu dituzte ekitaldien zerrendan. Programazioa egiteko, ezinbesteko laguntza jaso dute Arrasateko komertzio askoren partetik; guztira, 54 jatetxe, taberna, loradenda eta eragilek babestu dute Maritxu Kajoi, eta guztiei esker ona erakutsi diete antolatzaileek. Baita programan ageri den bertsoen egile Ane Zuazubiskarri ere; herriko jaia izateaz gain, "herrikoia" ere izan dadila aipatu du testuan bertsolariak.

**Inbutua, San Andresera**

Maritxu Kajoiren baitako lehen ekitaldia, Nobenaixue, joan den ostiralean ospatu zuten Maritxuren kajoiaren azpian, ohitura mantenduta. Bertaratu zirenek, beraz, ardoa eta gazta dastatu zituzten; 2019an, inbutu preziatua Musakolako Jai Batzordeari eman zioten, eta aurtengo inbutua San Andresko Jai Batzordeari eman dio Komisiñuak: "Inbidiaz egon direlako eta Aretxabaletako mugan bizi direlako". Behin txistea eginda, eragile horri aitortza egitearen benetako motiboak azaldu zituzten Komisiñoko kideek: "San Andresko auzotarrek jai eleganteak antolatzen dituzte; umeek, helduek eta adinekoek lekua duten festak. Ez da lan eta meritu makala. Dena auzolanean, boluntario eta bihotzetik; beraz, jaso ezazue, merezimendu osoz, aurtengo Maritxu Kajoi Komisiñuaren inbutua".

Oiana Sanchez San Andresko Jai Batzordeko kideak hartu zuen hitza jarraian, eta adierazi zuen "sorpresa handia" jaso zutela inbutua emango zietela jakitean. Dena den, batzordekideak taldean egiten duten lana nabarmendu zuen, adibidez, horrek duen garrantzia azpimarratuta, eta baita bertan jardunean ari diren herritarrena ere. Are gehiago, azpimarratu zuen San Andreskoak "gero eta jai indartsuagoak" ari direla bilakatzen, urtez urte "hobera" doazela, baita, era berean, jende berria esku zabalik jasoko dutela ere: "Beraz, animatu zaitezte, gure ateak parez pare zabalik daude eta!".



Pandemia aurreko Maritxu Kajoi egunean, dotore jantzitako festazaleak miraria ikusteko zain. GOIENA






Kuadrilla bat, 2019ko *photocall*-ean. GOIENA

**Goienaren jarraipena**
Bailarako festa nagusi guztiekin egiten duen bezala, Goiena Komunikazio Taldeak bertatik bertara kontatuko ditu Maritxu Kajoi egunaren nondik norako guztiak. Zuzeneko saioa emitituko du Goiena telebistan eta sarean, 14:00etan hasita, Herriko Plazan kokatuko duen platotik. Bertatik pasako dira hainbat protagonista, hiru urteren ostean zer sentitzen duten kontatzeko. Gainera, jai-giroa nola dagoen erakutsiko duten pieza biziek ere tokia izango dute saioan, Aitor Agiriano zirikatzailea kalez kale ibiliko baita dotore jantzitako jendea xaxatzen. Eta asteon zein egunean bertan Arrasateko ile-apaindegiek, jatetxeek, dendek... ze erritmoan lan egin duten eta lan egiten ari diren ere ikusi ahalko du ikusleak erreportajeen bitartez.

Hori ez ezik, *photocall*-a jarriko du Goienak Herriko Plazan, jaiaz gozatzera irteten diren kuadrillei argazkiak atera eta zeinen elegante eta pozik dauden erakusteko.

**Betiko Maritxu Kajoi**
Batek baino gehiagok komeriak izango zituelako, ziurrenik, azken edizioko trajea edo soinekoa aurkitzeko garaian, hiru urte ez baitira alferrik pasa. Armairuko txokorik ezkutukoenean, hautsez beteta, egongo ziren maritxutako jantziak etxe askotan, eta, hortaz, txukun jartzeko ohi baino lan handiagoa hartuko zuten. Beste batzuek zuzenean herriko dendetara joko zuten, aurreko aldietako jantziak ezin aurkitu.

**GOIENA TELEBISTAN ETA SAREAN ZUZENEKO SAIOA IKUSI AHALKO DA, 14:00ETAN HASITA**

Esanak esan, jai berezi honen arima biziberrituta itzuli da; neska-mutilak kalean eskuz egindako paperezko loreak saltzen, Komisiñokuak eskapularioekin berdin, jatetxe guztiak afarirako, eta bereziki bazkarirako, lepo beteta, lagun-artea eta parranda. Ohiko ezaugarriek bat egingo dute kalean, baina, esan gabe doa, gozatzeko intentzioz arrimatzen direnek erantzukizunez jokatu beharko dutela. Maritxu Kajoik jadanik aurreratu du ez duela inongo erasorik onartuko, *Ez, ezetz da!* esamolde ezin argiagoarekin.




Berdintasun Saileko eta Emakume Txokoko ordezkariak. H.L.

## Eraso matxistak ekiditeko tresnak

San Juan jaietan hasitako bideari jarraituz, Berdintasun Sailaren, Arrasateko Mugimendu Feministaren, Txosna Batzordearen eta Maritxu Kajoi Komisiñuaren arteko elkarlanari esker, Maritxu Kajoi egunean izan daitezkeen indarkeria matxistei aurre egiteko baliabideak eskura izango dituzte emakumeek.

Hala, Arbolapetan, 18:00etatik 00:00etara, indarkeria sexistarik gabeko gunea egongo da irekita. Bertan, gaiarekin lotutako bizipen, iritzi eta interesak jasoko dituzte autodefentsa feministan adituak diren emakumeek, eta, horretaz gain, elkartasun eta babes espazioa ere eskainiko dute. Bestalde, gerta daitekeen edozein eraso sexistaren aurrean, 688 80 91 37 telefono zenbakiaren bidez informazioa, aholkularitza eta aurrez aurreko arreta eta laguntza eskainiko dute, 18:00etatik 08:00etara.









# "Iruditegi berriak sortu beharra ikusten dugu"

**ANE AGIRRE ETA MIREN BARRENETXEA** AURTENGO KARTELAREN EGILEAK

Gizon-emakume dikotomiatik harago kokatzen diren pertsonei eman nahi izan diete protagonismoa festa iragartzeko irudian: "Aurreko kartelen aldean, desberdina da"

**Hasier Larrea** ARRASATE

Diseinatzaileak eta lagunak biak, enkarguz jaso dute aurtengo Maritxu Kajoiko kartela egiteko lana. Olatz Artolak idatzitako testuarekin borobildu dute hausnarketarako mezua daraman proposamena.

**Hasieratik erabaki zenuten gai hau azaleratzea?**

Komisiñokuek esan ziguten nahi genuena egiteko, eta guk bi aukera aurkeztu genizkien: batak Maritxu Kajoiren orain arteko kartelen estiloari jarraitzen zion eta bestea desberdinagoa zen. Guk azken horren alde egin nahi genuen eta jaien antolatzaileek ere berdina adierazi ziguten.



Aurtengo Maritxu Kajoiko kartelaren egileak, azken emaitza erakusten. H.L.

Eskertzekoa da, beraiek izan zirelako posizionatzen lehenengoak.

**Argazkia da erabili duzuen teknika.**

Maritxutako kartel gehienak ilustraziotik, infografiatik... eginak izan dira, baina guk errealitatea islatu nahi genuen, eta, horregatik, argazkiaren aldeko apustua egin dugu. Gaur egun, bisualki oso estimulatuta bizi gara, irudi bat 80ko, 90eko edo 2000ko hamarkadan kokatzeko gai gara, gutxi gorabehera. Beraz, gaur egungo estetiketara gerturatzea erabaki dugu, zerbait freskoa eta garaikidea proposatzeko. Irudi-banku libre batetik hartu dugu eredua, jakinda Arrasaten ateratako argazki bat ere izan zitekeela.

**Hala ere, ez da irudi neutro bat.**

Kartelak mezu politiko bat dauka: gorputz askeen aldarria. Beti da momentu ona gai hori lehen lerrora ekartzeko. Jendeak ikustea oso garrantzitsua da, eta zein erakusleiho hobea Maritxu Kajoi baino. Iruditegi bat sortzeko beharra ikusten dugu, eta pentsatu genuen protagonismoa ikusezin diren horiei emateko momentu ona zela hau.

**Ze harrera jaso du?**

Orokorrean, modu positiboan baloratzen dugu gure lanak jaso duen harrera. Badira harritu direnak ere, eta hau gaiaren gizarteratzerik ezaren isla da. Gustatuko litzaiguke aurrera begira halako kartelak deigarriak ez izatea, baizik eta gure iruditegian dauden ohiko pertsona moduan ulertzea. Bestetik, sorpresa jaso dugu, uste genuelako adin bat daukan jendeak ez zuela ulertuko agian gazteagoek uler dezaketen moduan. Baina nagusien aldetik ere erreakzio indartsuak iritsi zaizkigu, eta poztekoa da.

**Irudiari jarritako hitzek lagundu dute mezua ulerkorrago egiten?**

Esango genuke baietz. Behin kartela bukatuta, gure lagun Olatz Artolak idatzitako testuarekin osatu genuen. *Heteropatriarkatua, cis, dikotomia, normatiboa*... halako kontzeptuak azaltzen dira, eta egongo da jendea agian ez dituenak ulertuko, ez duelako gaian sakondu. Baina, askotan gertatzen den bezala, gauzak ulertzeko norberaren inplikazio minimo bat beharrezkoa da.





Buart loradendako Eva Romero, Maritxuri eskaintzeko kuadrilla batek eskatutako lore-sorta eskuan. H.L.

# Dena dotore irteteko, gremioak ezinbesteko

Ostalariek, ile-apaintzaileek, arropa-saltzaile eta tindatzaileek, lore-saltzaileek... lana gogotik egiten dute herritarrek Maritxu Kajoi behar bezala ospa dezaten. Herriko merkataritzari bultzada handia ematen diote gaurko egunaren bueltako eskaerek

**Hasier Larrea** ARRASATE

Arrasateko jatetxeak udan hasten dira jasotzen urriko lehen ostiralerako mahaia gordetzeko deiak: "Oporretatik bueltan, abuztu bukaeran, establezimendua zabaltzearekin bat igartzen dugu mugimendua", adierazi dute, esaterako, Txoko II-ko ostalariek. Ostalaritzari dagokionez, egun honek badu berezitasun bat, negozio askok menu itxia eskaintzen dutela, hainbeste jakiren prestakuntza erraztze aldera.

Erdiguneko zenbait arropa-dendatako erakusleihoek ere itxura desberdina aurkeztu dute azken asteotan, soineko eta traje beltzez josita azaldu baitira. Dena den, gutxika-gutxika joan dira desagertzen. "Nik abuztuan jarri nituen soinekoak eta poltsak salgai, eta guztiak saldu ditut; bezero askok ezkontzetarako ere erabiliko dituzte", azaldu du Violetta dendako saltzaileak.

Aurrez erositako trajeak garbitzen eta plantxatzen harrapatu ditu Goienak Deba-Prest tindategiko langileak. Zalantzarik gabe baieztatu dute Maritxu Kajoi egunak ematen diela urte osoan lan gehien: "Egunotan bereziki gizonezkoen arropak txukun jartzeko eskariak izaten ditugu, baina ospakizun egunaren ostean ere lanez gainezka ibiltzen gara. Gaur euria egiten badu, ez dugu pentsatu ere egin nahi ze piurarekin ekarriko dizkiguten arropak".

Ile-apaindegi eta estetika zentroetan, Alluren, adibidez, bestalde, aipatu dute "duela 10 urte" ohitura handiagoa zegoela ilea, aurpegia eta azkazalak apaintzeko profesional batengana jotzeko: Gaur egun, jende askok etxean egiten ditu kizkurrak, dirua aurrezteko modua ere bada eta".

**Eraman loreak Maritxuri**

Aldatu ez den joera ama birjinari loreak eskaintzearena da. 2019an, hogei koadrilatik gorak eskatu zuten sorta bana Buart loradendan, eta aurten, pandemiaren arrastoa atzean utzita, kopuru horren bueltan ibiltzea espero dute bertako langileek: "Erreserba bidez eskatutako loreak prest ditugu, baita aurrez abisatu gabe etortzen direnengan pentsatutako sortak ere".



# Hiri hondakinen tasa igo egingo dute 2023rako

Tasetan duten gastua eta zerbitzua ematearren kobratzen dutena parekatuta egotetik oso urrun dagoela azaldu du Lierni Altuna alkateak. %8ko igoera onartu zuten aho batez iraileko ohiko osoko bilkuran; gainontzeko tasak bere horretan utziko dituzte

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Irailaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran, 2023ko ekitaldirako ordenantza fiskalen gaia landu zuten. Ordenantza fiskaletan aldaketak egitea onartu zuten bilkuran, aho batez. "Proposamena da hiri hondakinen tasa bakarrik igotzea, eta gainontzeko tasak daudenetan mantentzea. Hiri hondakinen tasa %8 igotzea proposatzen dugu. Arrazoia da tasetan izan beharko genukeen gastuak eta zerbitzu hori ematearren kobratzen dugunak parekatuta egon beharko luketela, eta, kasu honetan, urrun gaude. Iaz igo genuen %7 pentsatuz Jundizek %3 igoko zuela; baina Jundizek %6 igo zuen. Oso atzetik gaude", azaldu zuen Lierni Altuna alkateak osoko bilkuran.

Alkateak gaineratu zuen oraindik ez dakitela aurten zenbat igoko duen Jundizek. "Guri kontu hauek eramaten digun Hondakinen Partzuergoak esan digu igoera progresiboak egiten dabiltzala, eta %6 igotzeko asmoa dutela. Guk kobratzen dugu urteko etxebizitza bategatik 63,75 euro, eta partzuergoko udalerrietan 90 euroren bueltan daude. Uste dugu tasa hau progresiboki igotzen joan behar dugula", gaineratu zuen Altunak. "Partzuergoko bazkideen etxeetan –Oleta, Zigoitia, Zuia...– 90 euroren bueltan daude eta gu geratuko ginateke aldaketa honekin 68,85ekin. Hondakinena arazo handia da eta gero eta gehiago zigortzen da", zioen.

**Uraren ordenantza, aztertzeke**

Hiri hondakinen tasa bakarrik aldatuko dute; hala ere, uraren ordenantzari buelta bat eman behar zaiola aipatu zuten; besteak beste, kontsumo altuak zigortzea aukera bat izan daitekeela aurreikusten dute, baina urarena hurrengo ekitaldirako utzi duten gaia da.



Herritar bat zaborra botatzen. GOIENA

## Kiroldegiko obraren esleipena

Maider Unda kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko obrakontratuaren esleipena onartu zuten eguneko ohiko osoko bilkuran. Nabarmendu behar da maiatzean atera zutela obraren kontratazio publikoa, baina Aldundiak esan zion Udalari klausula batzuk falta zirela; hala, berriro atera zuen Udalak kontratazio publikoa. Aplibur enpresa aurkeztu da lehiaketara, eta, eskakizun guztiak betetzen dituenez, kontratua enpresa horri esleitzea erabaki du udalbatzak. 470.000 eurogatik egin du eskaintza Apliburrek. Aho batez onartu zuten esleipena osoko bilkuran. Kiroldegiko teilatua berritu egingo dute, eta kanpoko frontoia estali egingo dute; bestalde, gerora egin beharko den lana izango da teilatuan eguzki plakak jartzea –ez dago kontratazio honetan sartuta–.

**Giza baliabideak**

Landutako beste bai bat giza baliabideak arrazionalizatzeko plana bertan behera uztea izan zen. "Ekainean onartu zen giza baliabideak arrazionalizatzeko plana, baina, orain, epaile batek esan du plan hori ez dela legala eta bertan behera utzi behar dela", azaldu zuen alkateak. Auzitegi Gorenak jurisprudentzia ezarri du, beraz. Udalbatzak aho batez onartu zuen ekainaren 30ean onartutako giza baliabideak arrazionalizatzeko plana bertan behera uztea.

## Etxeko altzariak

Etxeko altzarien zabor bilketan, aurrerantzean, auzoetan bizi direnek 661 83 52 51 telefonora deitu beharko dute abisua emateko. Ibarran bizi direnek ez dute deitu beharrik izango. Kamioia hileko azken barikuan pasako da.

## Agirre eta Abarrategi txapelketatik kanpo geratu dira

573,5 puntu lortuta, seigarren postuan geratu zen Manex Agirrek domekan jokatutako Bertsolari Txapelketa Nagusiko saioan. Haritz Mujikak lortu zituen puntu gehien, eta, ondorioz, finalaurrekoetarako sailkapena, 695,5 punturekin. Haren ondotik geratu ziren Miren Artetxe, 670 punturekin; Iban Urdangarin, 660,5ekin; Xabat Galletebeitia, 655,5ekin; eta Amaia Iturriotz, 648rekin.

Lehenengo faseko saioetan egindako puntuen arabera sailkatuko dira bertsolariak finalaurrekoetarako; hori kontuan hartuta, dagoeneko txapelketatik kanpo geratu dira Manex Agirre eta Peru Abarrategi.

## Sagardo zaporedun onenaren saria lortu du Iturrietak Gijonen

XII. Nazioarteko Sagardoaren Sariketa jokatu dute irailaren 28tik urriaren 2ra arte Gijonen. 21 herrialdetako sagardogileak batu dira sariketan, eta, guztira, 230 sagardo mota aurkeztu dituzte; tartean izan da Aramaioko Iturrieta sagardotegia.

Iturrieta sagardotegiak sagardo zaporedun onenaren sari nagusia jaso du, Sagezti sagardoarekin. "Sagardoa eztiarekin nahastu dugu. Proiektu esperimental baten barruan egindako produktua da, Iparragirre sagardotegiarekin, Ola sagardotegiarekin, Leartiker zentroarekin eta Juan Zurriaran enologoarekin", dio Juanjo Peciñak. Iturrietan ekoitzi dute sagardoa.

## Egin daiteke eskaera Erretiratuen Egunean postua jartzeko

Urriaren 29an egingo dute Erretiratuen Eguneko azoka. Ohikoa den moduan, herriko abeltzainen, nekazarien eta artisauen postuak jarriko dituzte. Bada, postuak jarri nahi dituztenek aurrez eman beharko dute izena. Urriaren 14ra arteko epea izango dute horretarako. Interesatuek udaletxean eman dezakete izena.

Horrez gain, Erretiratuen Eguna aprobetxatu gura dute erretiratuek egindako margolanekin erakusketa egiteko. Asmoa da urri amaieran egitea, eta parte hartzeko interesa duenak izena eman beharko du urriaren 21erako udaletxean –945 445 016–. Erretiratuak ez direnek udaletxean galde dezatela.

## Urriaren 12an egingo dute kaleko margo lehiaketa

Kaleko margo lehiaketaren 31. aldia egingo dute urriaren 12an. Interesa duen edonork parte har dezake lehiaketan. Estiloari eta teknikari dagokionez, librea izango da, eta edozein material erabiltzeko aukera egongo da –margolariek eraman beharko dute beharrezko guztia–. Euskarriari zigilua Aramaioko udaletxean jarriko diote, egunean bertan, 09:00etatik 11:00etara. Lanak aire zabalean egingo dira eta herriko irudietan oinarritu beharko dute. 16 urtetik gorakoen kategorian lehenengoak 700 euroko saria irabaziko du; bigarrenak, 500 eurokoa; hirugarrenak, 400 eurokoa; eta lehen aramaioarrak, 150 euroko saria.

## OHARRAK

### Euskaraldia

Euskaraldia aurkeztu eta ekintzak adosteko bilera irekia egingo dute urriaren 10ean, astelehena, 18:30ean, udaletxean. Herritarren parte-hartzea eskatu dute.

### Udaletxeko ordutegia

Ekainera arte neguko ordutegia; eguazten arratsaldetan ere zabalik egongo da udaletxea: 16:30etik 18:30era.

### Ibilketa Nordikoa

Itur-Zuri emakume elkarteak antolatuta Ibilketa Nordiko tailerra egingo dute urriaren 15ean eta 22an, doan. Interesa duenak dei dezala 685 72 12 23/ 652 70 69 82 zenbakietara.

# Realaren eta Mallorcaren arteko partidarako sarrerak
# **futbol zelaiko tokirik onenean**




**Hartu parte zozketan!**

**GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA**

Reala-Mallorca partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Urriaren 19an, eguaztena, 20:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: urriak 16



- Eserlekuak Premium gunean
- Catering zerbitzua
- Aldageletako tunelean jokalariak ikusteko aukera



- Ikus-entzunezko erabilerak
- Atentzio eta zerbitzu pertsonalizatua
- 353 metro karratuko gunea

**Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!**

**1.** Aplikazioa deskargatu.

**2.** Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

**Gertu.** Zorte on!

**goiena kide**

***Okm:*** *batzen gaituen distantzia*

www.goiena.eus/kideak




Maider Lezeta, Olaia Garro eta Aroa Nuñez, eskolako lagun batekin. OLAIA GARRO

# Egonaldi solidarioa egin dute lau gaztek Kenyan

Irati eta Maider Lezeta ahizpak, Aroa Nuñez eta Olaia Garro aretxabaletarrak hilabetez izan dira Diani Beach herrian; eskolaren osagarri izango diren bi gela eraikitzen lagundu diete, eta handik itzuli berri dira, bihotza "bete-beteta"

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Erizainak dira Irati eta Maider Lezeta ahizpak eta Olaia Garro eta Haur Hezkuntzako irakaslea da Aroa Nuñez, baina bestelako lanak egin dituzte, hilabetez, Kenyako Ukunda eskualdean, Diani Beach herrian, hain zuzen ere. Eguaztenean iritsi ziren handik bueltan, eta bihotza "bete-beteta" ekarri dute.

### Eraikitze-lanak

Cooperating Volunteers enpresaren bitartez izan dira Afrikan. Hainbat proiektu ditu horrek mundu osoan eta bizitokia eta jatekoa bermatzen diete boluntarioei lanaren truke. "Eskolara bideratu gintuzten, han laguntzeko. Hasieran, eskolak eman genituen, baina beste behar batzuk zituztela konturatu ginen, eta, azkenean, eraikitze-lanetan ibili gara", azaldu dute gazteek. Hala, eskola eraberritzen jardun dute azken hilabetean: "Sei gela zituen horrek. Horietako hiru egoera onean zeuden, baina beste hirurak oso egoera kaskarrean; izan ere, hormak eta teilatua txapazkoak ziren". Zuzendariak azaldu zien esku artean bazuela bi gela berri egiteko proiektua: "Horretarako, baina, dirua behar zuten, eta diru-bilketa abiarazi genuen. Jasotakoarekin bi gela berri egitea lortu dugu". Horretarako, materiala erosi dute, langileekin hartu-emanetan izan dira eta eraikitzen ere jardun dute.

**ESKOLAREN BUELTAN JARDUN DUTE LANEAN; BATEZ ERE, HORI ERABERRITZEN LAGUNDU DIETE**

Eskolaren osagarri izango diren bi gelak bukatzear itzuli dira; leihoak eta ateak geratu dira jarri gabe. "Han hiru lagun daude oraindik. Eta dirua lortuz gero, aurrera egingo dute horiekin". Horrez gain, aulki eta mahai berriak ere behar dituzte eskola hornitzeko. Inork lagundu nahi izanez gero, pozik hartuko dituzte ekarpenak –bizumak: 690 04 71 74–.

### Pobrezia handia

"Pobrezia handia" dago Ukundu eskualdean: "Gu egon garen eskolan behar handiak dituzte eta bertako ikasleak oso pobreak dira. Etxe oso txikietan bizi dira, gehienek ez dute argindarrik...". Ikasleek, 2 eta 12 urte arteko neska-mutikoek, hirugarren hiruhilekoari ekin diote oraintsu, eta hainbat ez direla eskolara itzuli konturatu dira: "Ordaindu ezina dela arrazoia esan ziguten".

Osasun arloan ere badituztela beharrak adierazi dute, baina ez dute izan erizain lanetan jarduteko aukerarik: "Lan egiteko modua oso ezberdina da, eta material behar handia dago. Horregatik, pentsatu genuen arlo horretan laguntza gutxi eman geniezaiekeela, eta gure indarrak eskolan jarri genituen".

### Aberasgarria eta betea

Esperientzia "benetan aberasgarria" izan da lau gazteendako: "Beste era batera bizi dira. Gauza material askorik ez dute, baina poztasuna bai. Oso jatorrak dira eta gurekin ere oso ondo jokatu dute". Horregatik, bizitakoarekin gustura itzuli dira: "Beste pentsaera batekin gatoz, eta oso pozik. Bihotza bete-bete eginda dakargu".

## Senegalerako laguntza

Aretxabaletako Yaakar elkarteak, bestetik, Debagoieneko Ospitaleak eta Aretxabaletako Lanbide Eskolak emandako materiala bidali gura du Senegalera; errehabilitaziorako oheak, mahaiak eta aulkiak, besteak beste. Bigarrenez bidaliko dute materiala, eta bidalketa-gastuetarako laguntza eskatu dute: bizuma 05509 eta transferentzia: ES60 3035 0002 16 0020077455. ALEko ikasleek, gainera, hainbat ekintza egingo dituzte dirua batzeko.

# Zerga eta tasetan progresibitatea ezartzea eskatu du EH Bilduk

2023ko ordenantza fiskalak lantzen jardun du eta Udal Gobernuarekin negoziatuko ditu orain

**M.A.** ARETXABALETA

Datorren urteko ordenantza fiskalak izan dituzte mahai gainean EH Bilduko kideek azken asteotan, eta horren berri eman gura izan dute. Egungo egoerari erreparatu diote lehenengo. "Inflazioaren itzelezko igoerak nabarmen kaltetu ditu herritarren ongizate maila, eta pobretze prozesu batean sartu da gure gizartea", adierazi du Naiara Olabarria zinegotziak, eta gaineratu egoera horrek ez duela berdin eragin herritar guztiengan.

Hori kontuan hartuta, "bi norabidetan" egin dituzte proposamenak: batetik, zergak eta tasak eguneratzea aipatu dute; eta bestetik, aldarrikatu dute progresibitatea ezartzea ahalik eta zerga eta tasa gehienetan, hau da, bizikidetza-unitateko diru-sarrerak kontuan hartutako hobariak aplikatzea.

### Hobariak eta dirulaguntzak

"Hobari unibertsalak eta orokorrak" ezartzea proposatu dute eta progresibitatea aplikatuko lukete honako hauetan: eraikuntza, instalakuntza eta obren zergetan; kiroldegiaren tasa guztietan –horrez gain, 23 urtetik beherako kuotetan %25eko jaitsiera eskatu dute–; eta irakaskuntza berezien tasetan –ludoteka, udalekuak, ikastaroak...–.

Era berean, dirulaguntza lerro bat zabaltzea aipatu dute. "Legez horrelako hobariak aplikatu ezin daitezkeen zergentzat; adibidez, Ondasun Higiezinen Zergarendako", argitu du Ion Albizu bozeramaileak.

### Igoerak, "negoziatzeko"

Zergen eta tasen igoerari dagokionez, Udal Gobernuarekin adostasuna lortuko dutelakoan dago Albizu: "Zenbatekoa izan beharko lukeen Gobernuarekin edukiko dugun negoziazio markoetarako uzten dugu".

GORA ETA BEHERA



## Herritik Bolinagara bitartean 250 garagardo-ontzi

Herritik Bolinagarainoko bide zatian 250 garagardo-ontzi baino gehiago batu zituen joan den domekan herritar batek: "600 metroko tartean, sarri-sarri, bizilagunen batek garagardo-ontziak botatzen ditu. Bilketa egiten dudan hirugarren aldia da bi urtean, eta oraingoan, publikoki salatu gura dut".



EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?
berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.

# Herriko pilotariek ekin diote denboraldiari

Aretxabaleta kirol elkartearen ardurapeko pilota eskolan 40 eta 50 gaztetxo inguru dabiltza lanean irail hasieratik; adinaren eta mailaren arabera banatuta, astelehenetik eguenera bitartean elkartzen dira Iturrigorri pilotalekuan entrenatzeko

**Koldo Zubia Salas** ARETXABALETA

Dagoeneko hasi dute Aretxabaletako eskupilota eskolan denboraldi berria, eta gaztetxoak "gogotsu" dabiltza entrenatzen eta pilota partiduak jokatzen. Astelehenetik eguenera bitartean izaten dituzte entrenamenduak, Iturrigorri pilotalekuan. Mailaren eta adinaren arabera banatzen dituzte pilotariak, gaztetxo bakoitza astean bi aldiz entrenatu dadin; saioak 16:30etik 19:30era izaten dira, ordu eta erdiko bi taldetan banatuta.

### Neska bakarra taldean

Aurreko urteko ume kopuru antzekoarekin jarraitzen dute aurten ere: 40-50 inguru. Hala ere, kadete mailatik aurrera jokalariei eustea kosta egiten dela adierazi dute arduradunek, behin adin horretara iritsita gazteek utzi egiten duelako pilota eskola. Gaur egun neska bakarra dago taldean; horregatik, gehiago anima daitezen nahiko lukete. Azaldu dute gazteak gogotsu entrenatzen dutela egunero, eta taldean giro polita dutela.

Elkarren artean partidak jokatzen dituzte entrenamendu saioetan, baina, poliki-poliki bestelako ariketak egiten ere hasi dira. Aurten, gainera, berrikuntzak egiteko asmoa dute. Bestetik, umeek urte osoan dute pilota partiduak jokatzeko aukera, eta herri mailako txapelketak ere antolatzen dituzte, Andramaixetan egiten den esaterako.

### Txapelketak jokatzen hasita

Aritz Zugasti entrenatzaile eta pilotariak dagoeneko hasi du denboraldia eta binakako eta lau eta erdiko txapelketa bana ari da jokatzen aldi berean. Gaur bertan izango du binakako txapelketako beste partida bat, Mendaron, 18:30ean.



**Pilota eskolako hainbat jokalari Iturrigorri pilotalekuan.** KOLDO ZUBIA SALAS

## "Pilota gure kirola da, bertakoa dena ere defendatu behar dugu"

**ARITZ ZUGASTI** PILOTARIA



K.Z.S.

Aritz Zugasti taldeko pilotaria da, baita entrenatzailea ere.

**Uste duzu eskupilota osasuntsu dagoela?**

Ez dago guztiz osasuntsu. Ni taldean sartu nintzenetik pilotan aritzen diren umeen kopurua mantentzea lortu dugu, baina, orain urte batzuk jende gehiago ibiltzen zen pilotan herri guztietan.

**Zer egingo zenuke egoera hobetzeko?**

Ez dakit; futbolean, adibidez, errazagoa da talde giroan jendeari eustea. Pilotan, berriz, bi pertsona behar dira, eta, batzuetan, bakarrik zaude; egoera horrek zaildu egiten du.

**Zer mezu bidaliko zenieke gazteei pilotalekura etor daitezen?**

Nik sentitzen dudana ez dute denek sentituko, baina gazteei gure kirola dela adierazi nahiko nieke; oso geurea dela, ez mundu osokoa. Eta bertakoa ere defendatu behar dugu.

**Gustura zaude orain arte egindako lanarekin?**

Bai, benetan gustura nago. Azken lau urteetan hobekuntza nabaritu dut nire pilota mailan.

**Nola ikusten duzu denboraldi berria?**

Egia esateko ez da oso ondo hasi, baina gogotsu nago zerbait lortzeko. Ikasteko urtea izango da.

## Umeendako antzezlanak irekiko du urriko programazioa Arkupen

Hipsonia taldearen kontzertua, Telmo Iruretaren bakarrizketa eta Martxe Aranaren erakusketa izango dira

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Antzerkiari tokia egin dio Kultura Sailak urrian Arkupen, eta, hala, Zurrunka Teatroa taldearen *Gure kanoa* lanarekin zabalduko da hileko egitaraua. Txotxongiloen bitartez Senegalen arrantzale familia batean jaiotako Abba haurraren istorioa eskainiko diete neska-mutikoei domekan, hilaren 9an, 17:00etan.

Antzezlanekin jarraituz, ATX Teatroa, Itzuli eta Punto Gunea konpainiek *Oihana. Sorginen bidea* ikuskizuna ekarriko dute hilaren 23an, 19:00etan. Eta urriaren 30ean, ostera, Telmo Irureta aktore zumaiarrak *Minus ukittua* bakarrizketa egingo du, 19:00etan.

Ipuin kontaketa ere izango dute 3 eta 5 urte arteko umeek. Hain zuzen ere, Ines Bengoak kontatuko dizkie, hilaren 19an, 18:00etan, udal liburutegian –izena emateko epea astelehenean zabalduko da–.

### Musika eta hitzaldiak

Hipnosia talde bizkaitarrak, ostera, ukitu progresibo eta elektronikoak dituen rock alternatiboko emanaldia egingo du hilaren 14an, egubakoitza, 20:00etan.

Horiez gain, hitzaldi bi ere izango dira: lehena, *Onddoak biodibertsitatearen giltzarri gisa* izenburupean, Unai Fernandez Agirre adituak gidatuta, urriaren 25ean, 19:00etan; eta bigarrena, Amelia Barquin filologo eta Mondragon Unibertsitateko irakasleak egingo du, kulturaren eta hizkuntza aniztasunaren gainekoa, hilaren 26an, 17:30ean.

Erakusketa aretoan, bestetik, pintura-lanak izango ditu ikusgai Martxe Arana aretxabaletarrak hilaren 17tik 25era bitartean.

## Basotxoko lokalen inguruko bilera gaur, zuzendaritzak deituta

Goiena komunitatea
Zuzendaritza batzordea / Basotxo
ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteko Zuzendaritza Batzordeak informazio-bilerarako dei egin gura die bazkideei; gaur izango da, urriak 7, ostirala, 18:00etan, Arkupe kultura etxean. Horren helburua da lokalei dagokienez –bilerak egiteko bulegoa, bazkideentzako arreta, jarduerak egiteko gunea eta taberna– gaur egun bizi dugun egoera zein den argitzea. Zuzendaritzak uste du bazkideek zuzenean informatuta egon behar dutela, egoeraren berri izan dezaten.

Deialdiak, beraz, puntu bakarra izango du gai-zerrendan: lokalen egoerari buruzko informazioa. Jakina, bilerara joateko gonbita egiten diegu bazkide guztiei, bertatik bertara informatuta egon daitezen.

## Odola emateko gonbidapena egin diete herritarrei

Udazken sasoiko odol ateratzeak egingo dituzte datozen hiru astelehenetan, urriaren 10ean, 17an eta 24an. Autobusa etorriko da horretarako, arratsalde partean, 16:45etik 20:00ak bitartean, eta Durana kalean izango da emaileen zain. Euskadiko Odol Emaileen elkartetik zein Osakidetzatik odola ematearen garrantzia gogorarazi gura dute.

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Intxaurtxuetako plazako eskaileretan egiten ari diren lanak, asteon. IMANOL BELOKI

# Arrapala jartzen ari dira, irisgarriagoa izateko

Intxaurtxuetako plazatik Intxaurtxueta kaleko 20. atarterainoko eskaileretan irisgarritasuna hobetzeko lanak hasi zituzten astelehenean. Arrapala jarriko dute bertan, eta lanek hiruzpalau aste irautea aurreikusi dute. 99.000 euroko aurrekontua dute

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA

Mugikortasun arazoak dituzten pertsonei laguntzeko asmoz, Intxaurtxuetako plazan lanak hasi zituzten astelehenean. Bertan, plazatik Intxaurtxueta kaleko 20. atartera bitartean dauden eskaileretan, arrapala jartzen ari dira, sigi-sagan, irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin.

Iaz, apirileko osoko bilkuran, 300.000 euroko kreditu aldaketa bat onartu zuen udalbatzak proiektu berrietarako. Horien artean zegoen, besteak beste, Intxaurtxuetako plazatik gorako kalera bitartean dagoen eskaileretan arrapala jartzea. Modu horretan, eremu hori irisgarriagoa egiteko asmoz. Hori horrela, lanak asteon hasi dituzte Donostiako Altuna y Uria enpresakoek, eta hiruzpalau astean amaituta izatea aurreikusten da.

### Atzeratzen joan dira lanak

Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako Udaleko Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuak, adierazi duenez, kostatu egin zaie lehiaketa martxan jartzea eta kontratazioa egitea. "Arrapala berria egiten ari dira Intxaurtxuetako beheko plazatik goiko kalera bitartean, eta lan hauen helburu nagusia irisgarritasuna erraztea da. Esan beharra dago eskaera hau aspaldikoa dela, nahiz eta agintaldi honetan egin diguten eskaera bertako hainbat bizilagunek. Kontua da martxan jartzea planteatu genuela pandemiaren aurretik, eta eten egin behar izan genuela. Gero, berriro atera genuen lehiaketa, baina Ukrainako gerra dela-eta materialen prezioa garestitu egin zenez, bertan behera utzi genuen lehiaketa. Ondoren, berriz atera genuen, eta kontratua sinatzea lortu genuen. Hiru enpresa aurkeztu ziren, eta prezio eta eskaintza onena Altuna y Uria enpresak egin zuen. Lizitazio prezioa eta adjudikazioa antzekoak izan dira; hau da, 99.000 euro inguru".

**IRISGARRITASUNA HOBETZEKO LANAK HIRUZPALAU ASTEAN AMAITUTA IZATEA AURREIKUSTEN DUTE**

### Irisgarritasun legea betez

Itxaronaldiaren ostean, proiektuari atxikitutako baldintzak bete beharko dituztela gaineratu zuen Ezkurdiak, eta egin beharreko lanak direla azpimarratu: "Proiektuaren baldintza bat irisgarritasun legeak betetzea zen, eta, beraz, %4 eta %6ko inklinazioa izango du arrapalak".

### Arrapala, sigi-sagan

Pasabide horretan eskailerak gune osoa betetzen zuen, eta orain, eskailerak alboetan joango dira, eta erdian, berriz, arrapala jarriko dute. "Adibide bat jartzearren, Manuel Muñoz kiroldegi alboan eginda dugun pasoaren modu berean egingo da. Sistema bera da".



OLAZAR ERRETIRATUEN ELKARTEA

## 65 urtetik gorakoei omenaldia

Domekan, 65 urtetik gorakoek mezara joan, salda hartu eta 14:00etan bazkaria egin zuten kiroldegian. Bazkalostean, bertara joandako emakume eta gizonezko nagusienak omendu zituzten: Carmen Uribesalgo, 93 urteko emakumea, eta Domingo Guirao, 93 urteko gizonezkoa. Ondoren, opariak banatu zituzten Olazar Erretiratuen Elkarteko kideek.

## Urriaren 14an irekiko da Euskaraldiaren izen-ematea

Urriaren 14an, egubakoitza, 19:00etan, Fernando Eskoriatza plazan egingo da Euskaraldiaren hirugarren edizioaren aurkezpena, eta, bide batez, izen-ematea irekiko da. Hori horrela, Euskaraldia Batzordeko kideek hitzordura gonbidatu nahi dituzte herritar guztiak, aurtengo edizioaren gainekoen berri emango duten ekitaldira.

Euskararen erabileran urratsak egiteko bidean, Euskaraldiaren hirugarren edizioa azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo da, eta Eskoriatzan berezitasunak izango dira. "Euskaraldiaren lehenengo edizioan hamaikakoa osatu genuen *ahobizi*-ekin eta *belarriprest*-ekin, eta, ariketa honen espiritua pixka bat gehiago egitea denez, hamaika gehi bat, *hamabikoa* osatuko dugu aurtengo edizioan", adierazi dute Eskoriatzako Euskaraldia Batzordeko kideek.

GORA ETA BEHERA

## Torrebason, sasiak espaloia oztopatzen

Herritar bat kexatu da GOIENA aldizkarira honako erretratu hau bidalita, eta hauxe dio: "Eskoriatza eta Aretxabaleta artean, Torrebaso industrialdean, Almen ikastolara bidean dagoen pasabidea urteetan zehar sasiz estalia dago, eta ezin da bertatik pasatu".



**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**
*berriak@goiena.eus*
edo 688 69 00 07.

# "Inurri-lan handia egiten da, ikusteko zaila dena"

**LEIRE SAN VICENTE** ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEKO BOZERAMAILEA

2019-2023ko agintaldiaren erdian sartu zen Eskoriatzako udalbatzaren parte izatera Leire San Vicente, Eskoriatzako Elizateen Elkartearen (EEE) bozeramaile

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA

Apotzaga elizateko Leire San Vicente Eskoriatzako Elizateen Elkartearen (EEE) bozeramaileak landa ingurunearen alde egiten duen alderdia ordezkatzen du. Zenbait proiektutan aritu da agintaldi honetan, eta erronka ugari izan ditu, gainera.

**Zure lehenengo aldia izan da zinegotzi. Zer moduzko esperientzia izan da?**

Esperientzia aberasgarria da, duda barik. Ardura eta erantzukizun handikoa ere bai. Energia handia jarri nuen Eskoriatzako Elizateen Elkarteak aurretiaz zekarren dinamika ulertzen eta baita udal baten funtzionamendua barrutik zein zen barneratzen. Esan beharra daukat oraindik ere horretan nabilela. Eta zerbait ikasi badut, zera da: bakarrik egiteko funtzio bat ez dela zinegotziarena. Ezinbestean talde baten babesa behar da. Hori ez badago, talde-lanik ez badago, zentzua galtzen du guztiak. Kolokan jartzen da taldearen beraren misioa eta bisioa eta baita eragite ahalmena ere.

**Alderdia ordezkatzeko erantzukizuna egun batetik bestera hartu zenuen. Zer dela eta?**

Agintaldi erdian sartu nintzen zinegotzi, aurreko bozeramailea, Iñaki Kerexeta, zendu egin baitzen. Halako egoeretan, prozedura izan ohi da zerrendakideengana jo eta kargua bertako norbaitek hartzea. Baina ez zen posible izan. Momentu hartan funtzio hori hartzeko urratsa ez zuen inork egin. Egoera horretan, bada beste aukera bat: zerrendetatik kanpo beste norbanako bat bilatu eta hura aurkeztea. Eta halaxe heldu nintzen neu. Oroitzen dut nola nire aitak, EEEren sorreran egondakoak, egoeraren berri eman eta animatu egin ninduen eginkizun hori hartzera. Iruditzen zitzaidan bereziki inportantea zela landa eremuetako errealitatea Udalera eramango zuen norbait egotea, elizateak eremu bizigarri bilakatzen jarraitzeko lanak egingo zituena. Funtsean, ez nuen nahi 40 urtean zehar sortutako katea eten.



Leire San Vicente, Eskoriatzako Elizateen Elkarteko bozeramailea, Apotzagan. I.B.

## "BASERRIAK GERTUAGO BADAUDE, AZPIEGITURA JAKIN BATZUK EGITEA ERRAZAGOA DA"

**Zein eginkizun izan dituzu zinegotzi karguan? Zein gaitan eragin duzu, batez ere?**

Aurretik egon ziren proiektuak zeintzuk izan ziren jakin gura nuen, baina zaila egiten zitzaidan, trasbase bat izateko betarik ez bainuen izan. Argi neukan bakarra zera zen: auzo-alkateak ezagutu behar nituela eta beraiek izango zirela nire erreferentzia eta bidelagun. Asko ikasi dut beraiengandik, eta zaindu ere zaindu naute. Egia esan, auzo-alkate talde polita dago. Eskertua nago. Era berean, Udalaren dinamika ezagutzea ere premiazko eginkizuna zen. Hori izan da lehen urte erdi pasatxoan egin dudan lanik handiena, duda barik. Beharrezkoa ondorengo funtzioak burutzeko: zazpi elizateetako eta Lete auzuneko bide konponketak bideratzea, argiteriari loturiko kontuei jarraipena egitea, sastraka kentzeak, ur sareari loturiko gaiak… Inurri-lan handia egiten da, gero ikusteko zaila dena.

**Taxi partekatuko zerbitzu pilotuan buru-belarri aritu zara. Ze moduzko esperientzia izan da?**

Agintaldi honen hasieran martxan jarri zen proiektu bat izan zen. Norbanakoon mugikortasun ohiturak behatuz eta ibilgailu pribatuaren erabilera osagarritzeko, erantzun kolektibo, bideragarri eta jasangarriak baloratzea zuen helburu. Era berean, landa eremuetan garraio publikoaren aukerak urriak dira edo ez dira existitzen. Ibilgailu pribatuarekin mugitzeko bestelako alternatibarik ez egoteak ere gizarte multzo bat bazterrean uzten du. Proba pilotuaren ostean, zerbitzu honek, osotara, urtean 13.000 euroko kostea izango zuela aurreikusi genuen eta horietako 10.000 euro diru publikoarekin finantzatzea zen gure proposamena. Udalaren 2021-2022ko aurrekontuetara begira proiektua aurkeztu genuen, baina ez zen posible izan aurrera ateratzea. Dena den, egindako lana hor dago, aurrera begira heldu nahi bazaio.

**Ezinbestekoa da elizateak ordezkatzen dituen alderdia egotea udalbatzan? Zergatik?**

Landa eremuak bizigarriago bilakatzeko Udalean lanean diharduen talde independenterik ez dut ezagutu oraindino. Egon izan naiz Gipuzkoako udaletan lanean diharduten talde independenteen bilera batean, eta beraiek harrituta geratzen dira esaten dietenean landa eremuetan bizi garenon interesak babesteko lanean dihardugula 1983tik. Eskoriatzan dugun hau bakarra da. Zaindu beharrekoa da. Agian, batzuek pentsatuko dute gaur egun landa eremuetako logika jada ez dela lehengoa. Gaur egun baserritik bizi direnak gutxi direla eta, beraz, kultura hori galtzen dabilela. Haatik, pentsa dezakete gaur egun zentzu gutxi daukala *baserritarron* talde independentea Udalean egoteak. Nik nahiago dut pentsatu landa eremuetan aberastasun ikaragarria dagoela eta auzoetako jendearen oinarrizko behar batzuk babestu eta eguneratu behar direla.

**Zein elizatek du behar gehien?**

Auzo bakoitzak izaera propioa du, eta baita behar espezifikoak ere. Egia da badaudela ezaugarri batzuk auzoa bizigarriago egiteko lagungarriagoak direla edo, kontrara, konplexuago bihurtzen dutela bizigarriagoa egitea. Esaterako, auzunea osatzen duten baserriak gertuago badaude, azpiegitura jakin batzuk egitea errazago eta ekonomikoki bideragarriago bilakatzen da. Hala ere, ez da guztiz determinantea hori. Bolibarren eta Gellaon zuntz optikoa noiz jarriko duten zain gaude duela urte batzuk. Mazmelan, Zarimutzen eta Marinen ez dago ur sare publikorik eta, poliki-poliki, hori lortzera bidean joan beharko dugu. Beste elizateetan, ustekabean, bestelako behar batzuk azaltzen dira, premiazkoak, eta ase beharrekoak.

**Hauteskundeak dira maiatzean; bozeramaile jarraitzeko asmorik baduzu? Hasi zarete zerrenda osatzen?**

Ez gara horri buruz hitz egiten jarri. Aurki heldu beharko diogu erronka horri ere!

---



NIRE USTEZ

**ARANTZA MIGUEL**

## Ekotopaketak jardunaldiak

Ekotopaketetan izan naiz Barakaldon. Ez da beharrezkoa master bat izatea ingurumenari dagokionez arazo larriak daudela jakiteko, eta, beraz, ekotopaketa hauetan izena eman nuen, gai hau hobeto ezagutzeko. Batu ziren hizlariek planetan eta pertsonen bizitzan sortzen diren inpaktuekiko ezagutza eta inplikazio pertsonal handia dute, eta erantzukizun sozialaren ariketa izan genuen bertan: pertsona asko, ikasteko gogoz, ikuspuntu desberdinak entzuteko, eztabaidatzeko, proposatzeko eta konpromisoa hartzeko kontzientziarekin. Saioetan entzun genuenez, analisi ekologistak betetzen ari dira: krisi ekosoziala ezarrita dago, eta bere ondorioak ikusten ez dituenak arazo larri bat du. Planteatzen ari diren trantsizioek injustizia eta desoreka iraunarazten dute zentzu guztietan. Positiboena da ondorioak arintzeko jardun daitekeela, eta trantsizioei beste modu batera ekin dakieke. Horregatik mobilizatzen diren pertsonak baino ez dira behar. Jardunaldietan konpromisoa agertu zuten bertaratuek; hau da, erakunde bat sortzea, ekarpenak elkarbanatzeko eta gizarte-eragile aktibo izateko. Entzun, antolatu, mugitu, eta gozatu mundua aldatzen saiatzeko bidean!

---

## LEINTZ GATZAGA Gatzaren Eguna urriaren 23an ospatuko dute

Gatz Egunaren seigarren edizioa ospatuko da urriaren 23an Gatzagan. Egitaraua aurkeztu zuten eguaztenean Arrasaten, Debagoieneko Mankomunitateko egoitzan egindako aurkezpen agerraldian, eta, besteak beste, ibilbide gidatuez, azoka ekologikoaz, tailerrez eta jolas herrikoiez gozatu ahalko dute bertaratzen diren herritarrek.



Joan den eguenean Kike Amonarrizen aurkezpena, Olaranen. IMANOL BELOKI

# Herri batzorde indartsua Euskaraldiarekin bat

Kike Amonarrizek, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariak, aurkeztu du Euskaraldiaren hirugarren edizioa Antzuolan. "Herri batzorde indartsuak" osatzearen garrantziaz jakitun, atzo egin zituen lehen urratsak Antzuolako herri batzordeak

**Maider Arregi** ANTZUOLA
Euskaraldiaren hirugarren edizioaren izen-ematearen irekiera ekitaldi ofiziala Bilbon eginda, Debagoienean ere hasi dira herritarren hizkuntza ohituretan eta praktika linguistikoetan euskarak gero eta leku zabalagoa izateko aurkezpen ekitaldiekin.

Antzuolan, esaterako, joan den astean egin zuten aurkezpena, modu dinamikoan, eta herritarrak batzordean parte hartzera animatzeko saioa Kike Amonarrizek, Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariak, gidatu zuen, Olaranen. Hala, Euskaraldiaren ariketa soziala hasi zenetik gaur arte eman diren pausoak zeintzuk izan diren adierazi eta izena emateko xehetasunak azaldu zituen, besteak beste: "Aurreko edizioetan izena eman dutenek, webgunean sartu eta parte hartzea berretsi beharko dute soilik".

**Herri batzorde indartsua**

Saioan Euskaraldiaren gaineko galderak, ekarpenak, lekukotzak eta erronkak izan zituzten hizpide, lehendabizi.

Euskaraldiaren hirugarren edizioak dituen helburuak ere adierazi zituen ondoren Amonarrizek, eta Antzuola herriak dituen euskararen erabilera datuak ere elkarbanatu zituen bertaratutakoekin. "Antzuolan aretoa jendez bete da, eta hori da lehenengo helburua: herri batzorde indartsuak lortzea; eta hemen ikusi da ilusioa badagoela horretarako. Edizio honetan, masibotasunarekin jarraitu nahi dugu, ahalik eta jende gehienarengana iritsi nahi dugu. Ariketa sakondu nahi dugu, eta izandako lorpenak eta erronkak plazaratzea lortu. Kaleak hartzea ere nahi ditugu aurten: txapa asko ikustea, banderatxoak ikustea, muralak eta kartelak ikustea… Euskaraldiak blaitzea gure ingurune guztia euskararen erabileran urrats sendoak egiteko, eta erabilera areagotu egingo duen olatu handia sortzeko".

**AZAROAREN 8TIK ABENDUAREN 2RA BITARTEAN EGINGO DA HIRUGARRENEZ EUSKARALDIA**

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo da, hirugarrenez, ariketa soziala, eta, Antzuolako herritarrak batzordean parte hartzera animatzeko helburuarekin lehenengo urratsa eginda, herri batzordea eratzeko bilera egin zuten atzo, eguena, liburutegian.

"Aurreko astean, motorrak berotzen hasteko saioa izan genuen Kike Amonarrizen eskutik, eta orain, berriz, beste urrats bat egin dugu. Izan ere, aurreko ediziotik Antzuolan taldea eratuta dago, eta pertsona horiekin kontatu daiteke. Hala ere, helburua da jende berria animatzea aurten, eta, batez ere, gazteengan eragitea", adierazi du Ane Leturiak, Antzuolako Euskaraldiko Batzordeko arduradunak.

## Egun osoko festa Arrolaren 50. urteurrena ospatzeko, bihar

Urriaren 8an ospatuko dute Arrolaren egun handia; biharko eguna berotzeko, baina, solasaldia egin dute

**M.A.** ANTZUOLA
Arrolaren 50. urteurreneko ekintzen baitan, martitzenean, mendiko lehen sorospenaz eta segurtasunaz jardun zuten Ane Motoso Bergarako mendi gidariaren eskutik. Herriko mendizaleek, baina, dena gertu dute biharko. 08:30ean, mendi irteera egingo dute Arrolara. Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute Lizargaraten. 13:00etan, bertso-poteoa egingo dute herrian, eta 14:30ean herri bazkaria patioan. "150 lagun batuko gara bazkaltzeko; gero, jolasak eta ekitaldi txiki bat egingo ditugu, eta arratsaldea bertsolariek girotuko dute. 21:30ean, aldiz, Musu-truk taldearekin erromeria izango da Kalebarrenen", kontatu du Oier Peñagarikano Arrolako kideak.

**Belaunaldi guztiak elkarrekin**

Oraingo eta lehengo Arrola-kideek elkarrekin ospatuko dute Arrola Eguna, bihar, urriak 8, zapatua. "Arrolak historikoki jende ezberdina batzeko gaitasuna izan du; eta, hain zuzen ere, biharko egunean hori ikusaraztea espero dugu. Hala, mendian dabiltzan gazteekin batera, denok batzea eta Arrolaren 50. urteurrena elkarrekin ospatzea, alegia.

**Ospakizunak urte amaiera arte**

Urtarrilean abiatu zuen 50. urteurreneko ospakizuna Arrolak. "Urte oso polita izaten ari da; herritarrek parte hartu dute antolatutako ekintzetan, eta, kamisetak agortu diren artean, erostera ere animatu dira. Balorazio positiboa egiten dugu, noski. 2023ko urtarrilera arte urteurrenarekin lotuta etorriko dira negu sasoirako lotzen gabiltzan ekintza gehiago ere", aurreratu du Peñagarikanok.



Martitzeneko mendiko segurtasunaren gaineko ikastaroa. ARROLA

## OHARRAK

### Hitzaldia: "Hil arte bizi"

Nere Erkiagak heriotzaren aurrean herritarren ahalduntzeaz jardungo du. Azaroan egingo diren lau tailer-saioen azalpen hitzaldia izango da. Olaranen 18:00etan, urriaren 19an.

### Sareko mobilizazioa

Autobusa Sagastiko geltokitik irtengo da 10:30ean, bihar, Donostiako ekitaldira joateko. Itzulera 20:00etan eta 02:30ean Illunbetik.

### Erreka garbiketa eguna

Urriaren 15ean erreka garbiketa eguna deitu dute bailarako herrietako erreketan.

# GOIENA TELEBISTA
## SASOI BERRIA

# Berrituta, osatuta eta ikus-entzunezko erronka berriekin dator

Goiena telebistak berritu egin du programazioa, hainbat saio estreinatu ditu, zuzenekoen aldeko apustu irmoa egin, eta Arrasateko egoitzako telebista platoan berritze lanak egin ditu, besteak beste, ekoiztutako lanak HD kalitatean emititzeko

Udazkenean sartuta, korronte berriak dakartza Goiena telebistak. Izan ere, denboraldi honetarako erronka berriak ezarri ditu Goienak, eta horretarako lehenengo urratsa telebistako instalazioetan berrikuntzak egitea izan da. Izan ere, legez, 2023ko urtarrilean toki telebista guztiek HDn emititzen egon beharko dute. Hori horrela, telebistako tripetan zenbait lan egin dira abuztuan, ekoizpen guztia HD kalitatean emititzeko asmoz.

**Emisioa HD kalitatean**

Instalazio tekniko guztia desmuntatu da, kable berriak jarri, eta errealizazioko kontrol-gela eta emisio-gela guztia berritu da. "Telebistako kate guztia –grabazioa, post-produkzioa, errealizazioa eta emisioa– HDn lanean jartzeko lanak izan dira. Duda barik, aldaketa honek kalitate handiagoan lan egiteko aukera emango digu eta ikus-entzuleek igarri egingo dute. Post-produkziotik abiatu genuen HDrako jauzia, eta orain, errealizazioan eta emisioan egin ditugu berrikuntza nabarmenenak. Aurrekontuari dagokionez, 100.000 euro inguruko inbertsioa izan da", adierazi du Oihane Agirrek, Goiena telebistako zuzendariak.

Egindako aldaketek lan-fluxuan ere eragingo dute; izan ere, azkarrago lan egitea ahalbidetuko du sistema berriak. "Tokiko hedabide bateko telebista batentzat inbertsio handia da, kontuan izanda sektorea zein egoeratan dagoen. Ilusioz hartu dugu proiektua, eta inbertsioa enpresari egokitutakoa izan da; zerbitzua mantentzeko ezinbestekoa", adierazi du, bestalde, Ignacio Celmak, Inercia Tecnologia Audiovisual enpresako gerenteak.



Goiena telebistako kontrol-gelan, teknikariak platoko saioa ekoizten.

Telebista egiteko modua asko aldatu da, eta pandemiak ere telebista egiteko modu berriak ekarri ditu: bideo-deiak, *streaming*-a… "Seinale hauek guztiak egoki kudeatu ahal izango ditugu egindako berrikuntzekin. Teknologia asko garatu da eta lehen telebista kate nagusiek bakarrik egin zitzaketen zuzenekoak orain gure eskura ere badaude", adierazi du Agirrek.

**Laster, azken urratsa**

HDn emititzeko kate osoa amaitzeko, zabalkundean egokitzapenak egitea falta da: "Batetik, LTDko antena –Murun dago zentro printzipala– egokitu egin beharko dugu. Laster egingo dugu hau. Bestetik, kable bidez ere Euskaltelera Goiena telebistaren seinalea bidaltzen duen ekipoa aldatzeko zain gaude. Aldaketa hauek egindakoan jakinaraziko diegu ikus-entzuleei. Tarte batean, analogikoan eta HDn emitituko dugu; ikus-entzuleek telebista berriz sintonizatu dezaten", adierazi du Agirrek.

## Zelan ikusi Goiena telebista

INFORMAZIO GEHIAGORAKO: **943 25 05 05**

**Antena bidez**
Lurreko telebista digitalaren seinalea jasota, antena bidez ikusi ahal izango da Goiena telebista etxeetan. Kasu honetan, 25. kanalean topatuko duzu.

**Euskalteleko kable bidez**
Euskaltelek duen telebistaren eskaintzaren barruan dago Goiena telebista ere. Debagoienean, hamaikagarren kanalean topatuko duzu.

**Nahieran 'Goiena.eus' atarian**
*Goiena.eus* atarian ikusi ahal izango dituzu telebistako ikus-entzunezko edukiak; zuzenekoa zein norberak aukeratutako saioa nahieran.

**'Goiena' aplikazioa**
Goiena telebistako edukiak nahieran ikusteko aukera erraza eta erosoa klik bakarrean. Zure eskuko telefonoan edo tabletan deskargatu aplikazioa.

# 'Hemen Debagoiena' saioan atal berriak laster

Besteak beste, lehen sektoreari balioa emateko tartea, Danbaka Musika Lehiaketaren jarraipena eta jarduera fisikoa, kirola eta osasuna lotuko dituen erreportaje sorta izango ditu denboraldi berrian eguneroko magazinak

Orain arteko formatuari jarraipena emango diote *Hemen Debagoiena* saioan, baina edukietan nobedade esanguratsuak izango dira. Astelehenetik egubakoitzera emitituko da, 18:00etan, 20:00etan eta 22:00etan.

Goiatz Aranak zuzenduta eta Larraitz Zeberiok aurkeztuta, saioak atal berriak izango ditu laster. Mantendu egingo dira elkarrizketak, albisteak, egunerokotasunarekin lotutako erreportajeak eta herrietako berriemaileek aldiro egiten dituzten platoko interbentzioak. Nobedade nagusiak egunean eguneko atal finkoetan izango dira.



Larraitz Zeberio aurkezlea.

**Eduki berriak**

Txomin Madinak lehen sektorearekin lotutako espazioa izango du astelehenetan. Eskualdeko ekoizleengana joango da unean-unean zer-nolako lanetan ari diren ezagutzeko, eta baita hain garrantzitsua den jarduera horretan zer-nolako zailtasunak eta aldarrikapenak dituzten jakiteko ere.

Urriaren 14an hastekoa den Danbaka Musika Lehiaketak ere leku berezia izango du *Hemen Debagoiena* saioan. Bi astean behin egingo dira zuzeneko emanaldiak, eta aurreko eguenean eta ondorengo martitzenean emanaldi bakoitzaren iragarpena eta balorazioa egingo dira, modu horretan lehiaketaren jarraipena eginez.

Jarduera fisikoa, kirola eta osasuna lotuko dituen txokoa ere izango da *Hemen Debagoiena* saioan eguaztenetan. Iñigo Barrenak zuzenduta, hainbat adituren aholkuak jasoko dira bertan. Athlon kooperatibako lagunekin elkarlanean ekoiztutako edukia izango da, eta Malen Ruiz de Azuak egingo ditu aurkezle lanak.

*Debagoiendarrak mundutik* izeneko atala ere bueltan izango da, baina formatu berriarekin; izan ere, eskualdekoak diren baina kanpoan bizi diren hainbat lagun elkartuko ditu Eneko Azurmendik espazio horretan. Binaka hartuko dute parte, eta gai berdin baten bueltan arituko dira lekuan lekuko berezitasunak aurkeztuz.

## Erreka Egunarekin bat egin du Goiena Komunikazio Taldeak ere

Ikus-entzunezko berezia landu du Julen Iriondok, eta telebistan eta herririk herri emango da

*Debagoieneko errekak bizirik auzolanean* ekimenak urriaren 15ean izango du egun handia. Erreka bizien garrantzia erakusteko garbiketa lanetara deituta daude Debagoieneko bederatzi herrietako biztanleak. Goienak bere aletxoa jarriko du, eta ikus-entzunezko berezi bat ekoizteko lanetan da.

Julen Iriondok zuzenduta, Deba ibaiaren eta bere adarren inguruko hamaika alor jorratuko ditu, eta adituak zein arituak diren hainbat lagunen ahotsak jasoko ditu. Besteak beste, Deba ibaiaren sorlekua den Hiruerreketari buruz arituko da Aitor Larrañaga, arrantzaz Unai Etxeberria bergararra, floraz eta faunaz Naiara Corcuera arrasatearra, ibai sistemaren eraldaketez Martin Arriolabengoa geologoa eta Deba ibaiaren erabilerez Jose Antonio Azpiazu historialaria.

Ikus-entzunezkoa urriaren 13an eskainiko du Goiena telebistak, eta, urriaren 15eko ekintzak jaso ostean, osatu egingo da eta eskualdeko hainbat aretotan emango da.



Unai Etxeberria bergararra Deba ibaian arrantzan.

## Entretenimendua eta informazioa landuko duten saioak protagonista denboraldi berrian

Eguneroko *Hemen Debagoiena* saioan, gai berriak landuko diren tarteak estreinatuko dituzte, baina *Hara, bi!* eta *Danbaka* saioak ere estreinatuko dira




### Hemen Debagoiena

- Egunero
- 16:00, 20:00 eta 22:00

Goiatz Aranak zuzendutako eta Larraitz Zeberiok aurkeztutako eguneroko magazina. Errealizazio lanetan Jone Inuntziagak eta Andoni Goitik dihardute. Eguneroko saioa izanik, kazetari eta teknikari lantalde zabala dago *Hemen Debagoiena* saioaren ekoizpenean. Toki informazioari egiten diote lekua, bereziki, saio honetan, hainbat formatutan aurkeztuta: elkarrizketa, erreportajea, albisteak...




### Albisteak

- Egunero
- 14:00, 15:00, 16:00 eta 17:00

Egunero, Debagoieneko albiste nagusiak eskaintzen dituen informatiboa. Arratsaldeko ordu bietan da *Albisteak* saioaren lehen emisio ordua, eta ondoren, orduro ikus daiteke, *Hemen Debagoiena* magazina hasi arte. Saio hau astelehenetik eta egubakoitzera ikus daiteke eta asteburuetan, berriz, asteko albiste nagusien errepasoa eskaintzen du Goiena telebistak, *Asteko errepasoa* saioan.




### Harmailatik

- Astelehena
- 21:30 eta 23:30

Astelehenetan, kirolaren txanda izaten da Goiena telebistan. Xabier Urzelai kirol kazetariak aurkeztuta eta Markel Arrayagok errealizatuta, asteburuko kirol hitzorduen errepaso zabala egiten da *Harmailatik* saioan. Kirolari debagoiendarrei eginiko elkarrizketarekin osatzen da saioa. Tarteka, kirol ekitaldi berezien gaineko saio monografikoak ere eskaintzen dira; Ikazkin Trail, adibidez.



### Harira

- Martitzena (hamabostean behin)
- 21:30 eta 23:30

Goiatz Arana kazetariak aurkeztuko duen elkarrizketa saioa da. Denboraldi berri honetan, Gipuzkoa mailako ordezkari politikoak gonbidatuko ditu *Harira* saiora. Legealdiaren azken txanpan gauden honetan, bereziki, egindakoaren errepasoa egitea eskatuko die ordezkari politikoei. Urriaren 11n abiatuko du ibilbidea *Harira* saioak eta hamabostean behin eskainiko da.

# Danbakari jarraipen berezia egingo zaio

Urriaren14an hasiko da Danbaka. Goienak kontzertua grabatu eta osorik eskainiko du. Gainera, emanaldiaren aurreko nondik norakoak zein taldeen aurkezpen bideoak ere eskainiko ditu; baita ostean ere, kontzertu bakoitzean jasotako giroa eta kronika

Indartsu eta itxura berrituta dator Danbaka musika lehiaketa. Aspaldian itxita dagoen museoa irudikatzen duen Seminarixoan barrena murgilduko dira ikus-entzuleak eta musikariak urriaren 14tik aurrera. Euskal musikagile klasikoen koadroak izango dira presente aretoan, besteak beste, tradizioari traizio egin gabe, hogei lehiakideei harrera egiteko gertu.



Danbaka musika leihaketaren lehen emanaldiko kartela.

**Elkarlana eta baliabideak**

Punta-puntako baliabide teknikoak izango dira zuzenekoa jasotzeko. Hala, Seminarixoko langileekin elkarlanean jardungo du Goienak eta zuzenekoko soinuaz eta argiteriaz arduratuko dira. Gainera, Pletina Filmsek ekoiztuta, talde bakoitzaren aurkezpen bideoa eskainiko da pantailan.

**Kontzertuei jarraipena**

Kontzertuak osorik eskainiko dira Goiena telebistan, eta, emanaldi bakoitzaren aurretik, eguenetan, parte hartuko duten lau taldeen aurkezpen bideoak eskainiko dira. Kontzertuek eman dutenaren berri ere zabal jasoko da *Hemen Debagoiena* saioan, martitzenetan.

Danbakako lehen kontzertuan askotariko estiloak izango dira nagusi: Lemak bergararren pop-rocka, Ki'imak antzuolarren folka, The Clayton aramaioarren rock-and-rolla eta Jasan aretxabaletarren heavy doinuak.


Antzuolako Herri Eskolan grabatutako saioaren une bat.

## 'Hara, bi!': buru txiki horietan dagoena jakiteko garaia da

Saio berrian, Antzuola, Arrasate eta Bergarako ikastetxeetako LHko ikasleak izango dira protagonista

Hara! Bi hauek zer dute esateko? "Jupiterren eta Marteren artean dagoena meteoritoen gerrikoa da". Eta beste bi hauek? "Gero eta kotxe gehiago dago eta atmosfera apurtzen dabiltza, eta gero eta bero gehiago egiten du eta guretzako txarra da".

Umeekin hitz egiteko ordua da, bai, umeekin, eta denboraldi honetan horixe egingo dugu, txikitxoenek zer dioten Goiena telebistako *Hara, bi!* saio berrian jaso.

Buru txiki horietan dagoena eta inguratzen duten gizartea nola ikusten duten jakin nahi izan du Goienak. Besteak beste, herria, ekologia, arauak, agintariak, mundua... nola ikusten duten galdetu diegu. Makina bat gauza dute kontatzeko eta gu entzuteko prest gaude!

**Hiru saio**

Ekainean grabatutako hiru saio –Antzuolan, Arrasaten eta Bergaran– eskainiko dira, martitzenetan, 21:30ean. Lehena urriaren 11n izango da, eta Antzuolako LHko ikasleak izango dira protagonista. Asko dute esateko eta guk haien naturaltasunetik ikasteko!



### Hara, bi!

- Martitzena
- 21:30 eta 23:30

Debagoieneko haurrak izango dira saio berri honetako protagonistak, Antzuola, Arrasate eta Bergarako ikastetxeetako LHko ikasleak. Txikienek duten ikuspuntua jaso nahi izan dute entretenimendu saio honetan. Hainbat gairen inguruan jardun dute: klima, Debagoiena, politika, ingurumena... Urriaren 11n estreinatuko da saioa eta lehenengo honetan antzuolarrak izango dira protagonista.



### Danbaka

- Egubakoitza
- 21:00 eta 23:00

Danbakaren bosgarren edizioa Goiena telebistak eskainiko du. Bergarako Seminarixoan taldeek emango dituzten kontzertuak osorik jasoko dira. Zuzenekoetara joaterik ez duzuenok edo kontzertua zuzenean jarraitu eta berriro ikusi nahi duzuenok egubakoitzero izango duzue aukera. Grabazioan lantalde zabalak jardungo du eta bitarteko ugari jarriko ditu Goiena telebistak.



### Elkarrizkettap

- Eguaztena
- 21:30 eta 23:30

Berrituta dator *Elkarrizkettap* saioa denboraldi berri honetan. Orain arteko elkarrizketa formatua osatuago etorriko da; musikarien kasuan, zuzeneko emanaldi txiki bat egongo da, eta baita galdera motz eta zuzenez osatutako *Deabruaren galderak* tartea ere. Gainera, hilean behin, erreportaje formatuan landuko da gai bat sakon. Adibidez, lehenengoan, kirol batez jardungo dute: errebotea.



### Biktimen ahotsak

- Azaroaren 7tik 10era (lau erreportaje)
- 21:30 eta 23:30

ETAk, GALek eta Espainiako poliziak 1980ko hamarkadan erail zituzten debagoiendarren seme-alaben eta ETAren mehatxupean bizkartzainarekin luzaroan bizi izan zen beste baten testigantzak batu ditu Goienak. Lau ikus-entzunezko eta lau biktimaren ahotsak. Azaroaren 7tik 10era arte –Memoria Historikoaren Nazioarteko Eguna–, egunero, telebistan.



### Bereziak

- Urriak 7, Maritxu Kajoi
- 14:00etan

Debagoieneko herrietan badira hitzordu bereziak, eta Goiena telebistak bertatik bertara jarraituko ditu, zuzeneko saioak eginda. Gaur bertan, Maritxu Kajoi eguna ospatuko dute Arrasaten, eta, data berezia izanda, herriko plazatik zuzeneko kontakizuna egingo dute. Ondoren etorriko dira agendak markatuko dituen beste batzuk, eta horietan ere zuzeneko emankizunak egingo ditu Goienak.

# Ahotsik bako minak, denen begi-belarrietara

Goiena telebistak dokumental sorta bat estreinatuko du udazken honetan: 'Biktimen ahotsak'. Lau biktimaren ahotsak jasoko ditu saio banatan; egitasmo oso baten parte dira kazetari-lan hauek; papereko euskarrietan ere argitaratuko dira



Goienako kazetari eta teknikari batzuk, lan-saio baten, Berbari Lekua-ko aholkularitza enpresako Aitziber Blancorekin.

Azken 50 urteotan, bereziki, 1980tik hona, arrazoi politikoengatik eragindako indarkerien biktimei ahotsa emango die Goienak. Hain justu ere, Debagoieneko lau biktimari. Azaroaren 10a Memoria Historikoaren Nazioarteko Eguna dela-eta lau ikus-entzunezko eskainiko ditu Goiena telebistan azaroko bigarren astean. Ikus-entzunezkoez gain, GOIENA eta *Puntua* aldizkarietan eta *Goiena.eus*-en ere eduki bereziak argitaratuko dira.

**Era askotakoak**

Lau biktimarekin sortu ditu Goienak ikus-entzunezkoak. Honako hauek dira: ETAk 1980ko otsailaren 8an Oñatin tiroz erail zuen Angel Astuy Oñatiko udaltzainaren seme Francisco Astuy oñatiarra; Guardia Zibilak 1982ko urriaren 16an, Gamarran, Gasteizen, kontrol baten tiroz hil zituen Victoriano Agiriano eta haren emazte Maria Angeles Barandiaran bergararren seme Iñaki Agiriano; 1984ko martxoaren 23an GALek Miarritzen atentatu baten erail zuen Xabier Perez de Arenaza –Iparraldean errefuxiatua– arrasatearraren alaba Alaitz; eta Matilde Martin, PSE-EEko zinegotzi ohi arrasatearra: 1999 eta 2007 artean zinegotzi izan zen Arrasateko Udalean, ETAren mehatxu-gutuna jaso zuten hark eta kideek –tartean, Isaias Carrascok– 2000. urtean, eta bizkartzainarekin bizi izan zen luzaroan. Bakoitzarekin ordu erdiko saioak ekoiztu ditu, eta horiek emango dira azaroan.

**Esanak, gordinik**

Lau ikus-entzunezkoak estetikoki eta irudien baliabideen aldetik nahiko soilak dira. Biktimak eta haien esanak dira protagonistak. Besterik ez dute. Hala nahi izan da egin. "Biktimei eurei eman nahi izan zaie protagonismoa, haiei entzutea nahi izan da, haren minak azaleratzea", dio Eneko Azkaratek, Goiena Komunikazio Taldeko edukien zuzendariak. "Ez dago musikarik, errekurtso-irudi gutxi daude, pertsona bakarra ari da hizketan...", dio Oihane Agirre Goiena telebistako zuzendariak.

**'BIKTIMEN AHOTSAK' SAIOKO LAU ATALAK AZAROKO LEHEN ASTEAN EMANGO DITU GOIENA TELEBISTAK**

Pertsona eta gertaera kokatzeko, informazioa, testuingurua eta adierazpenak laguntzeko, sasoiko egunkarietako errekorteak erabili dira.

**Egitasmo oso bat**

*Biktimen ahotsak* ez da saio huts bat. Egitasmo oso bat da. Hainbat euskarritarako sortutako edukiez harago, Goienako kazetari eta teknikari lantaldean txertatu den egitasmoa da. Gaiaren gaineko mintegi eta ikastaroak antolatu dira, lehenbizi, dokumentazio,lan handia egin da.

Orain argitara emango den edukia horren guztiaren zati bat da, egindako lan-prozesuaren fruitua. "Berbari Lekua izeneko gizarte eraldatze prozesuak lantzen dituen aholkularitza enpresa izan dugu bidelagun. Horren gidaritzapean ikastaroak jaso dituzte Goienako profesionalek; kontzeptuak aztertu, biktima motak identifikatu; gaiaren gainean eztabaidatu; gaiaren gaineko legeria ere aztertu da... Eta prozesu horren guztiaren ostean etorri dira biktimei hurbilketa, eta ondoren sortu dira edukiak", dio Eneko Azkaratek.

**MEMORIA ETA BIKTIMEN GAIAN ADITUAK DIRENEN AHOLKULARITZA JASO DU GOIENAK**

**Lan zaila**

Orain, lau atal sortu dira. Lau biktimari eman zaie ahotsa, nahiz eta beste askoren atea jo duen Goienak. "Arrazoi bat edo bestea tarteko, harremanak izan ditugun hainbat biktimaren senideek ez dute nahi izan testigantzak kamera aurrean eman". Duela lau hamarkadako gertaerak ez dituzte berriro gogora ekarri nahi izan, guztiz sendatu bako zauriak berriro urratu. Dena den, Goienak ez dio ukorik egiten berriro ahalegintzeari. "Neurri batean, badugu zor moduko bat. Isilpean, intimitatean, kasu askotan babesik barik, pasa dituzte minak. Askok ez nahi izan arren, haiengana hurbiltzen jarraituko dugu, haiek jasandakoa denengana hel dadin", dio Azkaratek.

Aurrera begira, Goienako lantaldeak ahaleginak egingo ditu beste biktima batzuk ere ekartzen. "Bide bat urratu dugu. Zaila izan da, baina hasi dugu. Zeinek daki, oraingoan ezetz esan diguten batzuk, akaso animatuko dira aurrerago", dio Goienako edukien zuzendariak.

Lau atalak azaroko bigarren astean emango dira, 7an hasi eta eguenera arte. Egunean bat. 21:30ean eta 23:30ean.

## ETAren, Espainiako poliziaren eta GALen biktimak



**Francisco Astuy**
Angel Astuy –aita– 1980ko otsailaren 8an erail zuen ETAk Oñatin egindako atentatu batean. Herriko udaltzaina zen.



**Iñaki Agiriano**
Victoriano Agiriano eta Maria Angeles Barandiaran senar-emazteak –gurasoak– kontrol batean erail zituzten 1982an.



**Alaitz Perez de Arenaza**
Xabier Perez de Arenaza aita 1984an erail zuen GALek Miarritzen. Errefuxiatuta bizi zen Iparraldean.



**Matilde Martin**
PSE-EEko zinegotzi 1999tik 2007ra. ETAren mehatxua jaso zuen 2000n, eta bizkartzainarekin bizi izan zen luzaroan.

# 86. urteurrenean, bi aurkikuntza handi

Intxortako frontean 'La Belga' izenez ezagutzen den posizioarekin lotutako idatzizko agiri ofiziala topatu dute Salamancan dagoen Espainiako gerrako Artxibo Orokorrean. Gerrako beste 12.000 euskal errefuxiaturen datuak ere aurkitu dituzte

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Domekan abiatuko dira Intxortako frontearekin lotutako 86. urteurreneko ekitaldiak, eta, bezperetan, aurkikuntza garrantzitsu biren berri eman dute Intxorta 1937 kultur elkarteko kideek. *La Belga* izenez izendatutako fronteko posizioa ezaguna da; Pablo Beldarrainek idatzitako liburuetan jasota dago belgikar internazionalistak izan zirela frontean, eta urteotan jasotako lekukotzek ere baieztatu egin dute hori. Aldiz, ez da inoiz idatzizko agiri ofizialik aurkitu, eta argitzeke dago nortzuek osatu zuten talde hura.

Intxorta 1937 kultur elkarteko kideek urteak daramate pista berriren bat topatu nahian, eta apirilean Salamancako Artxibo Orokorrera egindako bidaian aurkikuntza handia egin zuten. "Gipuzkoako hornidura-komisario Salvador Secok sinatutako txartel bat da, non zazpi botila koñak esleitzen diren belgikar metrailadoreen sekziorako", azaltzen du Intxorta 1937 kultur elkarteko kide Juan Ramon Garaik. "Aurkikuntza oso garrantzitsua da guretzat; izan ere, esku artean dugun idatzizko lehen agiri ofiziala da", azpimarratu du. Ikerketak aurrera jarraituko du; izan ere, belgikar horiek zenbat ziren, nondik heldu ziren, eta, batez ere, nortzuk ziren argitzea falta da. "Garrantzitsua izan da, baita ere, beste 12.000 euskaldunen datuak aurkitzea. Aztertu eta datu basean sartuko ditugu".


Bisita antzeztua, aurreko urte batean. IMANOL SORIANO

**BESTE AURKIKUNTZA GERRAREN ONDORIOZ LEKUALDATUTAKO 12.000 EUSKALDUNEN DATU BERRIAK DIRA**

**Memoria jardunaldiak**

Domekako bisita gidatu antzeztuarekin izango dute hasiera jardunaldiek. Salbador ermitan hasiko da, 10:00etan, eta bidean hainbat pertsonaiarekin egingo dute topo bisitariek. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea: 943 76 80 22, 943 79 64 63 edo *infoturismo@ debagoiena.eus.* Bi hitzaldi ere izango dira hurrengo egunetan: eguenean, hilak 13, Emakume Abertzale Batzari buruzkoa eta hilaren 20an, Araba sareari buruzkoa. Kasu bietan, 19:00etan, udaletxean.


Elgetan energia komunitatea sortzeko lehen informazio batzarra, eguaztenean. L.Z.L.

## Energia komunitatea sortzeko lehen batzarra, jendetsua

60 bat lagun elkartu dira udal ordezkarien eta Goienerreko kideen proposamen entzutera

**L.Z.L.** ELGETA

Elgetarrek mahai gainean dute energia komunitate bat sortzeko proposamena. Eguaztenean egindako lehen informazio batzarrean 60 bat herritar elkartu ziren, eta adi entzun zituzten udal ordezkariek zein Goiener kooperatibako Oier Etxeberriak emandako azalpenak. Batzarrean ziren, baita ere, D2030eko energia esku-hartzearen koordinatzaile Aritz Ameztegi eta proiektuak aurrera eginez gero hurrengo informazio batzarrak dinamizatuko dituen Emun aholkularitzako Ihabar Arriaran.

Energia sorkuntzan, kontsumoan zein autokontsumoan ahalduntzeko egitasmo moduan aurkeztu zuten energia komunitatea. "Lehen proiektu moduan Udalak proposatu du frontoiko teilatuan libre geldituko den espazioan autokontsumo partekatua oinarri izango duen plaka fotovoltaikoen instalazio bat egitea. Elgetarrek erabakiko dute proiektu horrek aurrera egingo duen edo ez, baina ulertu behar da komunitatea ez dela horretara mugatuko", azaldu du Goienerreko Oier Etxeberriak. "Sortzen bada, komunitateak bultzatuko ditu interesekoak iruditzen zaizkion hainbat proiektu –efizientzia, birgaitzeak, biomasa, ura, haizea, kargatzeko puntuak, auto partekatuak, fakturen duintzea...–. Kontua da gaian ahalduntzea eta urratsak egitea".

Ingurumen zinegotzi Ibai Larrañagak azaldu zuen etorriko direla batzar gehiago. "Energia komunitatea sortzeko prozesuak denbora bat emango du, eta herritarren inplikazioa ezinbestekoa izango da". Hurrengo batzarra hilaren 19an izango da. Bien bitartean, *info@ebkelgeta.eus* helbidea jarri dute eskuragarri.

## Agiriak Euskal Herriratu gabe daude oraindik

Salamancako Artxibo Orokorrean 160 ordu eman ostean egin dute aurkikuntza. Lan nekeza da; izan ere, ez dute agiriei argazkirik ateratzen uzten. Eskatu eta bidali arte itxaron behar da, edo bertan kopiatu behar dira. "Pena hainbeste urte pasata lapurtutako dokumentu guztiak Euskal Herrian ez egotea", azaldu du Juan Ramon Garaik.


Intxorta 1937 kultur elkarteko kideak, apirilean, artxibo atarian. J.R. GARAI

### Bigarrengo erreka auzolanean garbitzeko deia

Deba ibaia eta bere adarrak auzolanean garbitzeko deialdia egin dute hilaren 15erako. Eskualde mailako ekimena da, eta, Elgetari dagokionez, Udalak jakinarazi du Bigarrengo erreka dela garbituko den eremua. Taldea 09:30ean elkartuko da, herriko plazan. Izen-ematea zabalik da, udal webgunean, hilaren 11ra arte.

## OHARRAK

### Azaroaren 25a

Emakumeek bizi izandako indarkeria egoerak jaso nahi ditu Elgetako Emakume Taldeak. Kultura etxeko mailegu itzulketarako buzoira bota behar dira idatziak.

### Auzolana Egoarbitzan

Egoarbitzako herri basoa auzolanean garbitzeko deia hilaren 12rako. Taldea 08:30ean elkartuko da, plazan.



Energia Berriztagarrien Komunitatearen (EBK) bueltan lanean ari den talde eragileak agerraldia egin zuen martitzenean. EHUNDU

# Energia berriztagarriekin hornitu nahi dute geroa

Trantsizio energetikoaren erronkari "modu publiko-komunitarioan" heltzea helburu duen Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko prozesuan daude hainbat eragile, eta dei egin diete herritarrei proiektura batzeko hilero egiten duten bileratara agertuta

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Energia Berriztagarrien Komunitatea (EBK) eratzeko prozesuan lanean ari dira Bergarako hainbat norbanako, enpresa eta eragile. Herritarren kezken eskaerari erantzunez, 2021ean egin ziren lehen urratsak, Ehundu eraldaketa sozialerako proiektuaren testuinguruan. "Energiaren gaiak herritarron artean garrantzi berezia hartu du azken hilabeteetan, eta horri erantzuteko asmoz sortuko da EBK. Onura sozial, ekonomiko eta ingurumenekoak lortzea dugu helburu. Trantsizio sozioekologikora bidean pausoak emateko beharrezkoa da horrelako ekimenak abiatzea, eta, horretarako, ezinbestekoa da eragileen arteko elkarlana eta lankidetza".

**Energia Mahaia badago**

Udala bestela ere ari da energia berriztagarriaren inguruan lanean, eta Energia Mahaia ere badu, bereziki arlo horretan etorkizunera begirako erronkei nola aurre egin prestatzeko. "Trantsizio energetikoa, baina, herriari eta herritarrei eragiten dien gaia izanik, modu publiko-komunitarioan lantzearen alde egin genuen. Hala hasi ziren lanean Emun, Goiener, D2030, Udala eta Ehundu. Eragile bakoitzaren funtzioak definituta, urteko dinamika adostu zen. Talde eragilea ere osatu da, dinamikaren erroa izan dena. Lantalde horretara herritar, eragile, udal langile eta enpresa batzuetako kideak batu dira. Hilero elkartzen gara eta herritarrak bertaratzeko dei egin nahi dugu", adierazi dute Udaletik. Formakuntza eta beste herrietako esperientziak jasotzeaz gain, EBK sortzeko urratsak egin ditu taldeak, askotariko gaiei heltzeko lantaldetan banatuta. Orain arte egindakoaren berri ematea da oraingo helburua, eta hurrengo urratsa izango da herritarrei, herriko enpresei, taldeei eta ikastetxeei EBK sortzeko prozesuan sartzera animatzea. Horretarako aurkezpena egingo dute urriaren 25ean UNEDen (18:30). Argibide gehiagorako: *ehundu.eus*.

**URRIAREN 25EAN AURKEZTUKO DUTE ORAIN ARTE EGIN DUTENA; UNED-EN IZANGO DA, 18:30EAN**

**Ahalduntzea eta sustapena**

Trantsizio energetikoaren testuinguruan, herritarren ahalduntzea eta ekintza bideratzeko gaitasuna izango du komunitateak, burujabetza energetikorako bidean. Helburuen artean izango dituzte eraginkortasun neurriei esker energia aurreztea, energiaren inguruko formakuntza, informazioa eta aholkularitza zerbitzuak bideratzea, eta baita energia berriztagarriaren bueltako proiektuak sustatzea ere. Proiektu posibleak lantzen ari dira dagoeneko; aurrerago emango dute horien berri.

GORA ETA BEHERA

## Ipintza futbol zelaiko harmailak, zikinkeriaz lepo

Ez da lehen aldia Ipintzako harmailak negargarri geratzen direla partidu baten ostean. Azken asteburuko ondoko irudi hau salatu du Udalak sare sozialetan: "Astelehenetan bertara joaten direnei opariak uzten dizkiete batzuek. Ez da beharrezkoa, zuekin eraman ditzakezue. Zain dezagun Bergara".



EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?
*berriak@goiena.eus*
edo 688 69 00 07.

## Tasetan %4ko igoera, "kalitatezko udal zerbitzuei" eusteko

2023rako udal ordenantzak lantzerakoan "kalitatezko udal zerbitzuak" eskaintzea izan du helburu Udal Gobernuak. Oro har, udal zergak eta tasak %4 igotzea proposatu dute. Azken igoera %3,3koa izan zen, KPI %6,5ekoa zenean; egun, KPI %9an dago. Hau dio Ogasun zinegotzi Aitor Arantzabalek: "Mundu mailako egoeraren aurrean erantzukizunez jokatzea dagokigu. Bergararrei zerbitzu publiko onak emateko konpromisoa dugu, baina gure diru-poltsa mugatua da, eta diru publikoaren kudeaketan ari garenon betebeharra da hori tentuz zaintzea; ezin dira hartu Udala etorkizunean hipotekatuko luketen erabakiak. Norberaren etxean bezala, udal zerbitzuak ematen dituzten eraikinetan ere fakturak izugarri hazi dira". EH Bilduk bidali die proposamena EAJri eta PSE-EEri; asmoa da urriko osoko bilkuran onartzea.

## Dolmenen ibilbideko urteko azken bisita gidatua domekan

Dolmenen ibilbidea egiteko urteko euskarazko azken bisita gidatua izango dute domekan, urriak 9. Karakateko aparkalekutik (10:00) abiatuko dute txangoa, eta Soraluze, Elgoibar eta Bergara lotzen dituen Elosua-Soraluzeko estazio megalitikoa zeharkatuko dute. Bederatzi kilometroko lau ordu inguruko ibilbidean zazpi monumentu megalitiko bisitatuko dituzte. Mendian ibiltzeko arropa eraman behar da, eta ura eta jateko zerbait. Erreserba izen-emate ordenaren arabera gauzatuko dute bisiton antolatzaileak diren Begi Bistan enpresakoek; gehienezko kopurua gaindituz gero, beste data bat proposatuko dute.

## Aidau haur zerbitzua: Arimen Gaua eta beste urriko egitarauan

Umeendako Aidau zerbitzuak egitarau zabala prestatu du urrirako, Oxirondon. Gaur, hilak 7, kliparen jolasa izango dute Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetako ikasleekin. Urriaren 14an, LHko 1. eta 2. mailetakoekin, dinosauro galduaren bila arituko dira, 17:30etik 19:30era. Eta urriaren 19an eta 26an, LHko 3., 4., 5. eta 6. mailetako ikasleekin, Arimen Gaua misterio jolasa izango dute; misterio jolas bat izango da, euskal tradizioetan eta sinismenean oinarritua. Bi egunetan ekintza bera egingo dute, txandaka: 17:15etik 18:15era eta 18:30etik 19:30era. Izena emateko eguna eta ordutegia zehaztu behar da: 683 38 38 16.

# "Emakumeak publikoan urduri jartzea ohikoa da"

**IDOIA EIZMENDI** 'NOLA HITZ EGIN JENDAURREAN' IKASTAROKO DINAMIZATZAILEA

Modu eraginkorrean komunikatzen ikasi, zailtasunen inguruan hausnartu eta horiek gainditzeko estrategiak landuko dituzte emakumeek Eizmendiren ikastaroan

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Beste urte batez, emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa sustatzeko helburuarekin hainbat jarduera antolatu ditu Bergarako emakumeentzako Jabekuntza eskolak, urritik urtarrilera bitartean. Idoia Eizmendik eskainiko duen *Nola hitz egin jendaurrean* ikastaroarekin emango zaio hasiera ekimenari. Gaurkoaz gain, beste lau saio izango dira, arratsaldeko bostetan, UNEDen.

**Zein helburu ditu ikastaroak?**

Helburu orokorra da modu eraginkorrean komunikatzen ikastea; daukadan mezua, ziurtasunez, modu zuzen, zehatz eta argian ematen lortzea. Bestelako helburuak ere baditugu. Adibidez, ditugun zailtasunen inguruan hausnartu eta horiek gainditzeko estrategiak lantzea. Beste aldetik, generoak komunikazioan zer-nolako eragina nuen aztertuko dugu.

**Zailtasunak aipatu dituzu.**

Epaitua izateak eta komunikatzeko gai ez izateak ematen digu beldurra. Beti pentsatzen dugu, gure ideia ez dugula ongi adieraziko. Epaitzeak forma asko har ditzake: gorrituko naiz, barregarri geratuko naiz, gai ez naizela pentsatuko dute... Hori oso lotuta dago genero sozializazioarekin. Mendetan zehar, espazio publikoan egotea debekatu digute, eta oraindik, plazan dagoen emakumeak badaki epaitua izango dela, eta horrek beldurrak areagotzen ditu. Ez da kasualitatea emakumeoi, oro-korrean, urduritasun gehiago ematea jendaurrean hitz egiteak.



Idoia Eizmendi, *Nola hitz egin jendaurrean* ikastaroko dinamizatzailea. I.E.

**"EPAITUA IZATEAK ETA KOMUNIKATZEKO GAI EZ IZATEAK EMATEN DIGU PUBLIKOAN HITZ EGITEKO BELDURRA"**

**Nola eragiten du generoak komunikazioan?**

Feminitatearekin lotzen diren ezaugarriek ez digute asko laguntzen: pasibotasuna, ahultasuna, menpekotasuna, subjektibotasuna... Nahiz eta ezaugarri horiek zaharkituta egon, oraindik ere, gure irudi kolektiboan funtzionatzen dute modu inkontzientean bada ere. Horregatik, oztopo horiek zergatik dauzkagun aztertzen dugu hausnarketaren bidez. Mahai gainean jarri eta arazoa kolektiboa dela ikusteak laguntzen du.

**Lanketa prozesua nola egiten duzu?**

Gaitasunak identifikatu eta azaleratzen saiatzen naiz, horiek indartzeko. Gero, beldurrak zeintzuk diren ikusi behar da, nondik datozen... Beldur kolektiboa izan daiteke, baina badira esperientziatik sortutakoak direnak. Horien aurrean, teknikak ikasten ditugu. Askotan psikologiari lotutakoak dira, bestetan yogatik edo beste diziplinetatik hartutakoak.

**Jendaurrean hitz egiteko baliabideak bai, baina bestelako sareak osatzeko balioko du ikastaroak.**

Niretzat oso garrantzitsua da emakumeek elkar ezagutu, sareak osatu eta gai ezberdinen inguruan eztabaidatzea. Alde horretatik, tailerra dinamikoa izaten da eta harremanak sortzen dira. Polita eta beharrezkoa dela uste dut.

**Norbaitek parte hartzeko zalantza balu, zer esango zenioke?**

Jendaurrean hitz egiten ikasteko prozesua da, baina baita norbera ezagutzeko prozesua ere. Sorpresak hartzen ditugu gure gaitasunak eta beldurrak identifikatzen ditugunean. Ez da bakarrik diskurtsoak egiteko. Atariko bilerarako, laneko edo eskolako ahozko aurkezpen baterako eta egunerokotasuneko beste hainbat egoeretarako balio du. Praktika asko egingo dugu. Uste dut ondo pasako dutela, hori izan da orain arteko esperientzia eta parte hartzea animatzen ditut.

**Ez da ikastaro hau ematen duzun lehen aldia. Ze erantzun jaso duzu?**

Oso ona. Hobekuntzak begi-bistakoak dira emakumeek euren esperientziak kontatzen baitituzte. Espero gabeko gauzak ikasten ditugu; nik ere asko ikasten dut.

## Agroekologia eta elikadurari buruzko saioak urrian zehar

Elikagaien kontsumo kontzienteagorako foro eta baliabideak eskaini nahi zaizkie herritarrei

**I.A.A.** BERGARA

Eman zaie hasiera Bergarako Elikadura Mahaiak, Landalan elkarteak, Biolur elkarteak eta EHKOlektiboak urrirako antolatutako *Zure platerean hasten da mundua* jardunaldiei. Biolur elkarteko eta herriko ekoizleek Duina proiektuaren emaitzak aurkeztu zituzten atzo arratsaldean, Irizar jauregian.

Jardunaldien izen bereko pelikularen emanaldi eta solasaldiarekin emango zaio jarraipena ekimenari, hilaren 19an, Seminarixoan, 20:00etan. Bestalde, agroekologiaren inguruko informazio-puntua eta dastaketa-solasaldia izango dira, hurrenez hurren, Oxirondo azokan urriaren 22an eta 26an.

Azkenik, hilabete honetako ekintzak hilaren 29an amaituko dira, Antzuolako Pikunieta baserrira egingo duten bisitarekin. Irteeran parte hartzeko, izena eman behar da 635 20 21 46 telefonora deituta.

Halaber, azarotik otsailera bitartean adin askotariko herritarrei zuzendutako jarduerak antolatuko dituztela iragarri dute: *Ikasbidaiko saskiak bertatik bertara, Bertako eta sasoiko platerak* eta *Mila kolore, mila zapore* ekimena.

GOIENA TELEBISTAK
**8.000 IKUSLE EGUNERO.**
ESKERRIK ASKO!
Iturria: CIES, 2022 (Gipuzkoari dagozkion datuak)
goiena
Zu hemen zaude.




Zuzendaritzako Iñaki Aranburu, Lucia Cabrero, Rosa Urreta eta Imanol Aginagalde, Seminarixoan, eguazten goizean. LARRAITZ ZEBERIO

# Bazkide eta ekimen berri bila abiatu dute programa

Goienagusik eguaztenean abiatu zuen ikasturtea, eta erronka eta helburu berriak iragarri zituzten: ekintzak udan ere egitea, bazkide kopurua handitzea, bazkide horien parte hartzea areagotzea eta ekintzei ikusgarritasun handiagoa ematea, besteak beste

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Erronka eta helburu berriekin ekin dio 2022-2023ko ikasturteari Goienagusi elkarteak. Eguazten goizean Seminarixoan egin zuten ikasturteari hasiera emateko ekitaldia; beste urte batzuetan baino bazkide gutxiago agertu ziren lehen ekitaldi hartara. Hala ere, nobedade garrantzitsuekin dator ikasturte berria. Hasteko eta behin, zuzendaritza taldea berritu eta handitu egin dute; sei lagundik zortzira pasatu dira, eta Rosa Urretak hartu du presidente kargua. Gainera, lan-batzorde berriak sortu dituzte, lanak bazkide gehiagoren artean ere banatzeko; guztira, zazpi batzorde izango dira aurrerantzean, eta bakoitzak bere lantaldea eta egitaraua izango ditu.

### Oñatiarrak erakarri nahi

Pandemiako neurriak gaindituta, edukiera osora itzuliko dira ekintzak. Eta, Rosa Urreta presidentearen arabera, Oñatira ireki nahi dute egitasmoa: "Aurten, Oñatin ere egongo gara. Oñatiko Udalarekin hitzarmena sinatu genuen, eta hamabost egunean behin Oñatin egingo ditugu ekintzak. Hau da, astelehenetan beti Arrasaten elkartuko gara eta eguaztenetan Bergaran edo Oñatin". Hain zuzen ere, oñatiarrak erakartzeko, oñatiarrak urtarrilera bitartean ekintzetara joan ahalko dira kuota ordaindu barik; urtarriletik aurrera bazkide egin beharko dute.

### Bazkideentzako intraneta

Ikasturteko erronka berriak asko dira: elkarteari eta egiten dituen ekintzei ikusgarritasun handiagoa ematea, ekintzak uda sasoira ere zabaltzea, bazkide kopurua handitzea eta bazkide horien parte hartzea areagotzea. Hala, Youtube eta *streaming* plataformak mantendu egingo ditu Goienagusik eta webgune berrituari erabilera handiagoa emango diote. "Aurreko ikasturte amaieran abiatu genuen webgune berritu horretan egongo da informazio guztia. Hala ere, badago nobedade bat, intraneta izango dena. Bazkideei bakarrik zuzendutako gunea izango da hori", aurreratu zuen zuzendaritzako Lucia Cabrerok.

**'STREAMING'-A MANTENDUKO DUTE WEBGUNEAN, ETA INTRANETA JARRIKO DUTE BAZKIDEENTZAT**

### Ospakizunak urriaren 26an

Lehen hiruhilekorako 17 hitzaldi eta hainbat tailer, irteera eta ikastaro prestatu dituzte; guztiak daude ikusgai *www.goienagusi.eus* webgunean. Bestalde, elkartea 2011n sortu arren, hamargarren urteurreneko ekitaldia ere egiteko dute; urriaren 26an egingo dute "ospakizun xume" bat. Eguna gerturatu ahala emango dute egitarauaren berri.



Garazi Olabarria, Ilarduiaren sariarekin.

## Larramendiko Arnasa: argazki lehiaketako saria banatu dute

"Larramendiko erraustegiaren" aurkako taldeak 40 argazki jaso ditu udako lehiaketan. Astigarragako Iker Illarduiak irabazi du Ereindajanerako 100 euroko erosketa bonua; Garazi Olabarriak jaso du saria –argazkian–. Larramendiko Arnasakoek banderatxoak jarriko dituzte salgai eguenetan Iralan –Pol-Polen, Ereindajanen eta Lainon ere badaude–, eskuorriekin batera.

## Ikasturte berrirako ekintzen berri eman du San Joxepek

2022-2023ko ikasturtean ekintzarik ez da faltako San Joxepen: astelehenetan, dantza, yoga, memoria tailerra eta Kattalin elkartekoekin saioa; martitzenetan, tai txia, abesbatza eta informatika tailerra; eguaztenetan, yoga, dantza, bingoa eta Kafekonpon tailerra; eguenetan, tai txia eta informatika; eta egubakoitzetan, yoga eta Kattalinekoekin saioa.

## Eolikoak jartzearen aurkako protesta Elosuan, hilaren 12an

Urriaren 12an ez da mendi eta ganadu feriarik egingo Elosuan, "instituzioen sentiberatasun faltak" eraginda. Hala ere, agerraldia egingo dute mendietan parke eolikoak eraikitzearen kontra. Azkoitiko, Azpeitiako, Zestoako, Urretxu-Zumarragako, Elgoibarko, Soraluzeko, Zizurkilgo, Usurbilgo eta Bergarako herritarrek antolatu dute, 13:00etan.

## Bergara 'Minecraft' bidez eraikitzeko ekimena abian dago

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldien barruan, Bergara *Minecraft* jolasaren bitartez birtualki eraikitzeko proiektua abiatu dute Maijoku elkarteak eta Game Erauntsia elkarteak, Udalaren babesarekin. Bergarako kaleak, plazak eta eraikin nabarmenenak eraikitzea izango da helburua; betiere, jolas ezaguna oinarri. Partaideek Turismo Bulegoaren gida erabili beharko dute erreferentzia bezala, ondoren *Minecraft*-en sortzeko. Urriaren 30era arte egin ahalko dira ekarpenak, honako zerbitzari honetan: *bergaraminecraft.gamerauntsia.eus*. Azaroaren 5ean Zabalotegi aretoan erakutsiko dute egindakoa.

## Ipintzak 50 urte: ate irekiak ikasle eta langile ohiei begira

Joan den irailaren 30ean ireki zuten Ipintza institutuaren 50. urteurrenaren bueltako erakusketa Aroztegi aretoan; urriaren 23ra arte egongo da zabalik. Era berean, urteurreneko ekitaldien barruan, urriaren 15erako ate irekien eguna antolatu dute; bereziki, ikasle, irakasle eta langile ohiei begira. Aurretik deitzea eskatu dute: 943 89 94 44.

## OHARRAK

### Alkoholiko Anonimoak

Intxorta elkartekoek bilerei berrekin diete: astelehenero, kultura etxean (18:30).

### Gorlako kantina

Kantina ustiatu nahi duenak urriaren 13ra arte dauka eskaera egiteko: *kontratazioa@bergara.eus*.

### 1935ean jaiotakoak

Urriaren 23an, Sirimiri jatetxean bazkalduko dute. Izena emateko: 943 76 18 52 edo 943 76 21 13.

### 1949an jaiotakoak

Urriaren 29an, Tartufon afalduko dute. Izena emateko, 50 euro: ES20-3035 0009 1500 9116 1220 (Laboral Kutxa).

# Bizikleta Festarekin agurtuko dute sasoia

Zapatuan, 17:00etan, Lokatzak antolatuta, Bizikleta Festa egingo dute Seminarioko patioan. Hala, azken bi urteetan antolatu ezinean egon ondoren, txikienei zuzendutako hitzorduarekin agurtuko du Bergarako ziklismo eskolak denboraldia

**Xabier Urzelai** BERGARA

Bi urteko hutsunearen ondoren, Lokatzak antolatzen duen Bizikleta Festa Seminarioko patiora itzuliko da zapatuan, 17:00etan hasita. Eta oraingoan ere bizikletan ibiltzeko zirkuitua jarriko dute. "Guretako urteko hitzordu kuttunetako bat da, gazteenei zuzendutako hitzordua da, arratsaldea bizikleta gainean pasatzeko aitzakia", dio Ion Unamunok, Lokatzako presidenteak: "Gainera, zirkuitu txukuna izan dadin, dagoeneko baditugu beharrezkoak diren hesi eta bestelakoak".

Hitzordu honekin Lokatzakoen helburu nagusia da umeei eta haurrei ziklismoaz gozatzeko aukera ematea. Horregatik espero dute egin zen azken urtean –2019an– izandako partaidetza arrakastatsua errepikatzea; duela hiru urte, 120 ume batu ziren Seminarioko patioan: "Harrobia lantzen hasteko lehenengo pausoa da, bizikletarako zaletasuna lantzen hastekoa. Baina ez dugu bestelako helburu zorrotzik, ondo pasatzea da asmoa".


Gaztetxoak bizikleta gainean, 2019an egindako edizioan. GOIENA

### Adin guztietako gazteak

Zapatuko ekitaldian adin guztietako ume eta gazteek parte hartu ahal izango dute; bizikletan lehen pausoak ematen ari direnek ere bai: "Bizikleta Festara etorriko diren gazte batzuek ziklismo eskolan egoteko adina izango dute, eta beste batzuk jada ziklismo eskolan egongo dira. Baina guztiendako hitzordua da, baita txikiagoendako ere", dio Unamunok.

**BIZIKLETA FESTA HASI BAINO ORDU ERDI LEHENAGO EMAN AHAL IZANGO DA IZENA, BERTAN**

Hala, parte hartzeko, egunean bertan Seminarioan eman ahal izango da izena, doan, 16:30ean hasita. Eta bakoitzak bere bizikleta edo motor txikia eta kaskoa eraman beharko ditu etxetik: "Festa egiteko arratsaldea aukeratzen dugu, zapatu goizetan gazteek bestelako ekintzak egiten dituztelako, edo bestelako kirol jarduerak dituztelako. Zapatu arratsaldeak, berriz, lagunekin egoteko aprobetxatzen dute, eta momentu egokiagoa da halako festa bat antolatzeko. Ea gazteak animatzen diren".

## "Babesle, bazkide eta laguntzaileei esker, denboraldi ona izan da"

**ION UNAMUNO** LOKATZA ZIKLISMO ESKOLAKO PRESIDENTEA

Urte amaierako afariarekin agurtuko dute, zapatuan, Lokatza ziklismo eskolako lagunek denboraldia. Pandemia ostean lasterketak errekuperatuta, eta harrobiarekin lan eginda, bergararrek pozik amaitu dute urtea.

**Aurtengo helburuak beteta?**

Baietz esango nuke, pozik geratu gara. Kirol klub moduan, lehenengo helburua da gazteen hezkuntzan eta irakaspenean ekarpena egitea, gazteei hazten doazen neurrian kirol jardueraren bidez laguntzea. Horretarako, entrenatzaile onak behar dira, eta, zorionez, aurten ez dugu arazorik izan. Beste toki batzuetan, ordea, bai izan dituzte arazoak, eta horri konponbidea jarri beharko zaio, modu batera edo bestera. Alde horretatik, pozik gaude.


GOIENA

**Eta errepideko helburuei dagokienez?**

Batetik, talde izaera nabarmentzen dugu, gure ziklista gazteei esaten diegu lasterketetara joan daitezela taldean. Taldea egitea gustatzen zaigu eta kanpotik esaten digute horretan eredugarriak garela. Gero, errepidean garaipen batzuk izan ditugu, eta hori beti da gazteendako motibagarria.

**Emakumezkoen aldeko apustua ere hor dago.**

Bai, klub moduan indarrak jarri ditugu emakumezkoetan eta oso pozik gaude. Iker Sanchez dugu zuzendari lanetan hor, esperientzia handia duen pertsona da eta pozik gaude egiten dabiltzan lanarekin.

**Pandemian bertan behera geratu ziren lasterketak errekuperatu dituzue.**

Gorlako Igoera, San Antonio saria, emakumezkoen San Martzial saria... Horiek guztiak ostera ere antolatu ditugu, eta boluntarioen laguntza ezinbestekoa da horietan. Dena borobil irten da lasterketa horietan; pozik geratu gara, bai.

**Pozik amaitu duzue denboraldia, hortaz.**

Bai; zapatuko bizikleta festarekin eta ondorengo afariarekin amaituko dugu denboraldia, eta urrian atseden hartuko dugu. Dena dela, azpimarratuko nuke hau guztia posible dela bazkideei eta babesleei esker. Gaur egun guztiagatik ordaindu behar den honetan, oraindik ere, urtean zehar zozketa batzuk saldu eta konpromiso batzuk hartzearen truke eta kuotarik ordaindu barik, posible da neska-mutikoak Lokatzan izatea. Eta, guretako, hori harro egoteko modukoa da.

## Inter de Mitenteren kontra du hitzordua Soraluce BKEk, bihar

Gipuzkoako lehenengo mailan, jokatutako hiru partiduetatik bi irabazi dituzte bai Soraluce BKEk eta baita Inter de Mitente taldeak ere, eta zapatuan elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak, 16:00etan, Labegaraietan. Irabazten duenak aurrerapausoa emango du sailkapenean, eta goialdekoen multzoan sartuko da.


Barneraketa egiten. GOIENA

## Ordizian jokatuko dute eskubaloiko mutilek, zapatuan

Joan den asteburuan etxean hasi zuten liga Soraluce BKE eskubaloi taldekoek, eta mahoneroek gol bateko aldeagatik galdu zuten Munttarpekoen kontra (21-22). Porrotari buelta emateko asmoz joango dira zapatuan Ordiziara, 16:00etan dute partidua. Hain zuzen, talde horrek ere galdu egin zuen joan den astean (33-30).



# 'Gero arte festa' duela urtebete hil zen 'Popi'-ri

Aitor Arakistain zenaren lagunek eta gertukoek elkarlanean antolatu dute hura oroitzeko ekitaldia, eta bihar izango da, kartzela zaharrean; bazkariaren ostean, musika estilo aukera zabala izango da, herriko hainbat musikarik girotuko baitute gaztetxea

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Joan den urtean zendu zen Aitor Arakistain Arruti, *Popi* ezizenez ezaguna. Urte askoan, Popis tabernaren jabe, eta, gertukoen esanetan, "Bergarako kulturaren sustatzaile". Orain, *Gero arte Popi festa* antolatu dute haren lagunek, eta bihar izango da, kartzela zaharrean. Ordu bietan, bazkaria egingo dute, eta, ondoren, arratsaldean, hainbat kontzertu eskainiko dituzte Popirekin harremana zuten Bergarako zenbait musikari eta taldek. Daxka taldeko kideak 30 urteren ostean elkartuko dira, soilik omenaldi honetan emanaldia eskaintzeko. Horiez gain, Low Cost Deluxe, Fango eta disko berria atera duen DBQ arituko dira, besteak beste. Eguna borobiltzeko, musika elektroniko saioa egongo da, "haren tabernan hori ere sustatu zuelako".

Bazkarirako nahiz emanaldietarako tiketak urriaren 5era arte eros zitezkeen, baina, antolatzaileek adierazi dutenez, "tabernetan saldu gabe geratu diren kontzertuetako sarrerak kartzela zaharreko leihatilan jarriko dituzte salgai egunean bertan, 18:30etik aurrera". Aurreratu dutenez, estilo askotariko doinuak taularatuko dituzte musika-joleek, hala nola rantxerak, elektronika eta punka.

### Urtebetetze festa birsortzen

Uztailaren 17an betetzen zituen urteak, eta, urtero ez, baina data horren bueltan antolatzen zituen urtebetetze-festa "bereziak" Popik Pol-pol taberna zaharrean, lagunez eta haien musikaz inguratuta. Festa honetan, festa haien esentzia berreskuratu nahi izan dute: "Denok dauzkagu festa haien oso oroitzapen positiboak. Abestiak prestatzen zizkioten Popiri gertuko askok, opari modura. Aspaldiko kontuak dira, baina une hura irudikatu nahi genuen. Jendea horregatik inplikatu da".



*Gero arte Popi festa* kartelean erabili duten *Popi*-ren argazkia. E.L.

**'POPI'-K ANTOLATZEN ZITUEN URTEBETETZE-FESTAK IRUDIKATU NAHI DITUZTE LAGUNEK EKITALDIAN**

### Auzolanean antolatutako festa

2021eko azaroaren 6an Bergarako Seminarixoko karpan egin zuten agur ekitaldia Popiren lagunek musikari baten kontzertu batekin: "Argazki batzuk jarri genituen eta ordu batzuetako elkargunea izan zen. Adin askotariko lagunak eta ingurukoak elkartu ginen. Hiletarik egiten ez dugunez, *gero arte* esateko modua izan zen". Adierazi dutenez, egun hartan ikusi zuten Popi bezalako figura bati beste era bateko agurra egitea "polita" izango zela: "Maiatzean edo ekainean erabaki genuen zapatuko ekitaldia egitea, eta antolaketagatik aukeratu genuen urriaren 8a".

Auzolanean sortutako ekintza dela nabarmendu du bergararraren lagun taldeak: "Ez gara elkarte bat, lagun-talde bat gara. Batzuk ibili gara antolakuntzan, baina hemen auzolana dago. Kartzela zaharreko kideak, Popiren kuadrillakoak, haren inguruan hasitakoak, bezeroak... Jende asko dago inplikatuta".

Hala ere, kartzela zaharraren lana gaineratu dute, espazio alternatiboa izateaz gain, kultura bultzatzen duen espazio potentea baita.

### Esker hitzak

Antolatzaileek oraindik ez dute pentsatu ere egin datorren urtean halako beste festarik antolatuko duten. Badakite egunean bertan askok lagunduko dietela, baina, diotenez, aurtengoa nola ateratzen den ikusi behar dute: "Jarraipena izango duen esatea asko aurreratzea izango litzateke. Printzipioz, zapatukoa egingo dugu, eta gero ikusiko da besterik egiten den".

Halaber, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete ekimen horretara joan eta euren laguntza eman duten guztiei, kartzela zaharretik hasi eta parte hartuko duten musikari eta lagun guztiei.



Aktoreak oholtzan, obrako pasarte bat eszenaratzen. GLU-GLU

## 'Munduari bira 80 egunetan' antzezlana Seminarixoan bihar

Ordubeteko bidaia egingo dute pertsonaiek euren herrian, hainbat jatorritako jendea eta egoerak birsortuz

**I.A.A.** BERGARA

Glu-glu konpainiaren *Munduari bira 80 egunetan* antzerki-ikuskizuna izango da ikusgai bihar, arratsaldeko seietan, Seminarixoan. Sarrerak lau euroren truke eros daitezke *www.seminarixoa.eus* webgunean.

Andrea Covadongak, Jon Casamayorrek, Sara Barroetak eta Leire Ormazabalek taularatuko dute Jules Vernek idatzitako izen bereko liburuan ardatz hartu duen antzezlana. Abenturako istorio bat da, modu komiko eta musikalean kontatua.

### Ordubeteko bidaia

Liburua errealitatera egokitu dute. Izeba-osabak eta bi iloba dira protagonistak, eta ipuina ozen irakurtzen amaitzen dutenean hasiko da antzerkia; iloben iritzi,z ez dago munduan zehar bidaiatu beharrik jatorri eta arraza askotariko pertsonak ezagutzeko, egunerokotasunean mundu osoko pertsonekin egiten baitute topo.

Hortik aurrera, osaba-izeben etxeko ganbaratik atera gabe, herrian buelta bat ematen dutela irudikatuko dute, ordubetez, hainbat jatorritako pertsonak eta egoerak birsortuz. Hortaz, eleberriko eszena mitikoak emulatuko dituzte eta pertsonaia berriak sortu dituzte garapen dramatikoa eraikitzeko.

Abestiak eta dantzak obran murgiltzeko gakoak dira. Gainera, zirkuko elementuek leku exotikoak nahiz garraiobideak irudikatuko dituzte, hala nola itsasontziak, trenak eta globoa.

Lanaren helburua da ikuslea abenturan murgiltzea eta parte aktibo izatea. Antzerki taldetik aurreratu dutenez, leku askotako giroa biziko dute ikusleek, baita soinuek igorritako emozioak sentitu ere.

## Eguaztenetako zineklubeko filmak, Seminarixora bueltan

ZinemaOn taldeak Udalaren laguntzarekin antolatzen duen zineklubak herenegun eskaini zuen ikasturteko lehen filma. Urriko emanaldiak *Argentina 1985*, hilaren 12an, eta *918 gau*, hilaren 26an, izango dira. Azken film horren ostean, Arantza Santesteban zuzendariarekin berba egiteko aukera izango dute ikusleek. Sarrera 3 euro da.

## Liburu aurkezpena eta solasaldia kartzela zaharrean

Gaur, arratsaldeko zazpietan, Eduardo Galeanoren *Latinoamerikaren zain urratuak –Las venas abiertas de Latinoamérica–* liburuaren euskarazko itzulpenaren aurkezpena egingo dute kartzela zaharrean, Angiolillo liburutegiaren eskutik. Iñaki Alegria itzultzaileak eta Mikel Zinkunegi internazionalistak hartuko dute parte.

# 18. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

## egin klik!

Banatu ditugu **Udako Argazkien XVIII. Goiena Lehiaketako sariak.** Lau saridun izan ditugu. Olaia Otero oñatiarrak Kuban ateratako argazkiarekin lehen saria irabazi du **–Kantabrian bi pertsonarendako gaua eta gosaria, Arrasateko eta Bergarako Halcon Bidaiak-en eskutik–.** Mikel Lasa bergararrak Esne Bidea, Rinlo gainean izeneko irudiarekin bigarren saria irabazi du **–Samsung Galaxy A12 poltsikoko telefonoa, Eroski Arrasate Hipermerkatuaren eskutik–.** Jose Luis Zabala gatzagarrak Contisen (Landak) ateratako argazkiari esker lortu du hirugarren saria **–Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarendako bazkaria edo afaria–.** Azkenik, Unai Elorza arrasatearrak Kurtzetxikin ateratako argazkiak eskuratu ditu boto gehien, eta, beraz, Publikoaren Saria irabazi du **–Bergarako Ereindajan-en eskutik otarrea–.**

**Zorionak guztioi eta hurrengo urtera arte!**

### 1. SARIA




### 2. SARIA




### 3. SARIA




### PUBLIKOAREN SARIA




ANTOLATZAILEA:

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI ARRASATE

GURE AMETSA Restaurante · Jatetxea

BERGARA EREIN DA JAN

Halcon BIDAIAK ARRASATE BERGARA

OÑATIKO JAIAK 2022


Camila eta Charles III.a Oñatin izan ziren astelehenean Elizabeth II.a erreginarekin. I.B.


Kuadrillen Eguneko herri bazkarian. A.A.


Herriko produktuak ekarri zituzten abeltzainek eta nekazariek Herri Egunean. A.A.


Herriko pilota txapelketako finalak jokatu zituzten bikoteak Zubikoako frontoian. O.Y.


Sokamuturran, trebeziak erakusten. O.E.


Plazako oholtzan egin zuen musika bandak San Migel eguneko kontzertua, euriagatik. O.E.

# Jaien ostean, udazken betea

Balorazio "oso positiboa" egin du Kultura Sailak, "eraso sexista salbu", eta Beratu, Musikegunak eta Euskaraldiaren bueltako ekintzak iragarri udazkenerako

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI
Herriko jai nagusien balorazio "oso positiboa" egin du Kultura batzordeburuak. "Pare bat egunetan egin du euria eta orduko ekintzetan ikusi da, agian, jende gutxien. Baina ekitaldi guztiak egin dira eta jendea gustura eta gogotsu ibili da. Puntu beltza izan da sexu erasoaren jakinarazpena; onartezinak dira horrelako gertaerak".

**Eraso sexista salatzeko deia**
Udaleko Kultura Sailak ez ezik, Berdintasun batzordeak ere egin du balorazioa, jaietan aktibatu zen eraso sexisten prebentzio eta arretarako telefonoan jasotako deiak oinarri. Sei egunetan eskaini dute eraso sexisten prebentzio eta arretarako zerbitzu hori, eta eraso baten berri jaso zen, Herri Egunean, gauean. Erasoa txosnagunean gertatu zen eta bertako batzordeak bideratu zuen, eraso matxisten arretarako ezarritako protokoloa jarraituz. Udalak balioa eman nahi izan dio Txosna Batzordeak eta herriko mugimendu feministak eginiko lanari jaietan gertatzen diren eraso matxisten arreta hobetzeko: "Guztion artean Oñatiko jaiak eremu seguru izate bidean urrats sendoak egiten ari garela uste dugu, eta bide horretan aurrera egingo dugu datozen urteetan ere".

Udaltzaingoan galdetuta, jaiak "primeran" pasa direla izan da erantzuna. Eskuko telefonoen lapurretak izan dira, ordea; Herri Egunean kasu. Eta diru-zorroetan erabiltzen diren hainbat txartel –nortasun agiriak, Osakidetzakoak, garraio publikokoak– errekan agertu dira.

**Aita Madina eta Beratu**
Jaien ostean hasiko da ikasturte berria Oñatin, eta kultura hitzorduak ez dira faltako. Domekan, esaterako, Aita Madinaren heriotzaren 50. urteurrenaren egitarauari helduko diote berriz eta Oñati abesbatzak emanaldia egingo du Bidaurretan, 19:00etan. Hurrengoan, berriz, gizonen Suhar koruak egingo du, Agustindarren elizan.

Beratu jaialdia ere udazkenean egingo da aurten; azaroaren 11tik 13ra bitarteko asteburuan izango da. Musikegunak zikloko kontzertuak ere egingo dira datorren hileko domeketan, eta gaztelekuko Verdury Hall aretoan musika kontzertu bat baino gehiago egingo dira negua iritsi bitartean. Euskaraldiaren eta Euskara Egunaren harira ere antolatuko dira ekintzak.


Txantxikua txosnetara jaisten. O.E.


Lehiaketako berakatz-zopak epaitzen. I.B.


Umeen danborrada ere aurreikusita moduan egin zen, azkenean. A.A.


*Xeco* eta Miguel Adover mallorcarrak txapeldun artzain txakur txapelketan. I.S.



Herri Egunean kiroldegian egindako herri bazkarian. A.A.




Umeendako puzgarriak eta gaztetxoendako ginkanak, kantxa berdean. I.B.



Musikariekin eta danborrariekin batera 220 dantzari izan ziren danborradan. A.A.



San Martinen egindako bola-joko txapelketaren irudi bat. I.O.



Zea Mays taldeak jaien atarian egin zuen kontzertua, Foruen plazan. I.S.



San Miguel parrokia. O.E.

# Itxi egingo dute parrokia, sitsaren kalteak konpontzeko

Bi fasetan egingo dituzte lanak eta udazkenean hasiko dira, baina oraindik zehaztu barik dute eguna

**O.E.G.** OÑATI

Sitsa dago asko hedatuta San Miguel parrokian, eta arazo hori konpontzeko lanak egingo dituzte. Argitzeko dute oraindik noiz hasiko dituzten lanak, baina udazkenean egingo dituzte eta iraun bitartean itxita egongo da parrokia.

**Bi fasetan**

Herrietako parrokietako erretaulen egoera zein den jakin guran dabil Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Oñatikoa ikustera etorri zirenean konturatu ziren erretaulak badituela sitsaren arrastoak, baina are kaltetuagoak daudela elizako lurzorua, bankuak eta korua. Gauzak horrela, lanak txandaka, fasetan, egitea pentsatu dute: lehenengoan, zorua eta eserlekuak konponduko dituzte; eta bigarrenean, organoa, hori ere hondatzen hasita dago eta.

Martitzen goizean elkartu zen teknikari talde bat egoera aztertzeko, askotariko egur motak daude-eta eraikin barruan, eta lehen fasearekin hastea erabaki zuten. Oraindik, baina, ez dute zehaztu noiz hasiko dituzten lanak. Horiek egiteko aldamioak jarri behar dituzte eta Ulmarekin harremanetan daude data jartzeko; udazkenean hastea da, baina, asmoa. Sitsa tratatzeko lanak egiten dituzten bitartean itxita egongo da parrokia eta elizkizunak non egin ere erabakiko dute lanak hasi bitartean.

**Kaltetuena, zorua**

Parrokiako zorua da kaltetuena. Azpitik erreka pasatzen da eta elizan kalefakzioa jartzeak eragina izan du, okerrerako. Sitsa oso gustura dago umeletan eta epeletan. Zoruaz gain, eserlekuak eta unibertsitate aldeko atea dira hondatuenak.

## Elikadura eta natura batzen dituen lehen tailerra bihar da

Jakiek zer eskaintzen duten, hidratazioaren garrantzia eta eguneroko jatorduak garaiko produktuekin nola aberastu landuko dute bihar, zapatua, 11:30ean, Natur Eskolan, hango langileekin eta Amaia Diaz de Monasterioguren eta Amaia Ayerbe nutrizionistekin. Izenak: 651 70 17 41 edo 747 40 50 28.

## Oñatiko errekak hobetzeko planez, martitzenean

Natur Eskolak antolatutako Ibailagun astearen barruan, hitzaldia egongo da martitzenean, hilak 11: *Oñatiko errekak hobetzeko plana eta tailerrak*. Hizlaria: Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Saileko ordezkari bat eta EHUko irakasle Joxerra Diez. Kultur etxean da hitzaldia, 19:00etan.

NIRE USTEZ



XABIER GESALAGA

## Rock-and-rolla, faltan botatzen zaitut

Jada garai bateko sinua bihurtu dena, beharbada. 1930 eta 1950. urteen artean jaio zen genero musikalak, rock-and-rollak, gaur egunera arte eboluzio handia jasan du. Urte askoren buruan, askatasun, maitasun, esperantza, borroka edo haserre mezuen eroale izan da... Gehienetan, jendarte lokartuaren zirikatzaile, probokatzaile...

Herritik eta herriarentzat sortua, gazte eta ez hain gazteak, neurrigabeko poz zoramen kontrolaezinetik, nostalgia edo samintasun sakoneraino bidean jarri gaitzaken esperientzia multisentsoriala.

Garaiak aldatzen dira eta gu ere horren testigu gara. Aro argitsuak pasa ostean, orain itzalpea ote rock-and-rollarentzat?

Gaur egungo gizarte lokartu eta artifizialean, benetako mezuen, sentimenduen transmisoreak sentitu nahi ditut oholtza gainean. Itsutzen gaituen su artifizial gutxiago eta pentsatzera, hausnarketara, ekintzara bultzatuko gaituen zirikatzaileak, probokatzaileen beharra dut.

Bizitzak bereak ditu poza eta tristura, borroka eta maitasuna... Musikaz konta iezadazu; faltan botatzen zaitut, rock-and-rolla.

PATXI CASTRO

Era guztietako aulkien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
•
Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69




Aitor Ugarte entrenatzailea agindUak ematen. GOIENA

# Lehiakorra izan nahi du Mekalki Aloña Mendik

Gipuzkoako Lehen Mailan arituko da aurten saskibaloiko seniorretako lehen taldea, eta garbi dute helburua goiko lehian egotea dela. Ohi baino lehenago ekin diote ligari, eta, hiru jardunaldi jokatuta, bi galdu dituzte eta bat irabazi oñatiarrek

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI

Inoiz baino azkarrago ekin dio Aloña Mendiko Saskibaloi taldeak denboraldiari. Dagoeneko hiru partidu jokatu dituzte, eta, momentuz, garaipen bat eta bi porrot izan dituzte; azkena, azken jardunaldian. Ez dute bide onetik hasi denboraldia: "Entrenamendu gutxi egin ditugu eta horri liga hasiera zaila eta tartean jaiak batu zaizkio. Txapelketa hasiera zaila izan da", azpimarratu du Aitor Ugartek, taldeko entrenatzaileak. Hasiera hori hobetzeko aukera izango dute gaur (20:00), STL Azkuneren kantxan. Taldeari dagokionez, aldaketa bakarra du Aloña Mendik, Ander Kortabarriaren baja.

### Helburua, goialdean egotea

Aurreko denboraldia oso gorabeheratsua izan zen Aloñarentzat. Igoera faserako sailkatzeko gertu izan ziren, baina, azkenean, mailari eusteko faserako sailkatu eta hor maila galdu zuen Oñatiko taldeak. Aurten, galdutako tokia berreskuratzeko lehian izatea da helburua. "Uste dut lesioek errespetatuz gero goialdean borrokan aritzeko taldea eta maila dugula", dio Ugartek.

### Liga eta aurkari zailak

Kategoria galdu arren, txantxikuarren entrenatzaileak argi dauka lana "gogor" egin beharko dutela helburuak lortu ahal izateko. Aipatu du jokalari beteranoz osatutako taldeen aurka jokatuko dutela, baina "maila handiko jokalariak eta taldeak" direla aurrean izango dituztenak. Aipatzekoa da Aloña Mendirekin batera liga osatuko duten hamalau taldeetatik gehienak Donostia eta inguruetakoak direla.

**"LESIOEK ERRESPETATUZ GERO, GOIAN BORROKAN IZATEKO TALDEA DUGULA USTE DUT"**

### Beste taldeak ere martxan

Talde gorenaz gain, beste zazpi talde izango ditu aurten Aloña Mendi saskibaloi sailak, 90 neska-mutil inguru. Batzuek jada ekin diote liga txapelketari: junior mailako nesken eta mutilen taldeek eta infantil errendimendu mailakoek, hain zuzen. Aste honetan, berriz, falta diren laurak sartuko dira lehiaketan: seniorren bigarren taldea, kadete mailako nesken eta mutilen taldeak eta infantil nesken taldea.

### Saski eskolak 70 lagun

Lau taldetan banatuko dira eta LHko 3, 4, 5 eta 6. mailetako gaztetxoak arituko dira, eta ez dute lehiaketa ofizialik jokatuko. Saski eskolaren helburua, urtero bezala, gaztetxoenei saskibaloiaren mundua, arauak eta kirolaren balioak transmititzean datza, eta, horretarako lagunartekoak jokatuko dituzte; hala, lehiakortasuna alde batera utziko dute.




Aloña Mendiko emakumezkoen senior taldea. ALOÑA MENDI

## Eskubaloi saileko taldeak ere lehian murgiltzen hasiak daude

Emakumezkoen senior mailako taldeak zapatu honetan ekingo dio ligari, Askartza taldearen aurka (19:30)

**I.B.K.** OÑATI

Eskubaloiko denboraldiak ere ari dira gutxinaka hasten; esaterako, gazte eta kadete mailetan bi jardunaldi jokatu dituzte dagoeneko. Aste honetan, berriz, seniorren txanda izango da. Nesken talde gorenak, Xabi Guridiren eta Irati Elorza entrenatzaileen esanetara, joan den urteko helburu bera izango du, maila mantentzea, baina ez du ezer baztertzen. Denboraldi berriari begira, taldean urteak zeramatzaten jokalari batzuek utzi egin dute eta gazte ugari igo dira lehen taldera.

### Gazteak bai, territoriala ez

Aurtengo denboraldirako, hamalau izango dira lehiaketa ofizialetan jokatuko duten taldeak. Iazko urtearekin alderatuz, bi aldaketa nabarmendu behar dira: aurten ez da gizonezkoen senior mailako bigarren talderik izango, jokalari falta dagoelako; gazteen mailan, ordea, ez zen talderik izan azken denboraldian eta aurten berriz taldea osatzeko aukera izan dute. Eskubaloi eskolan ere gaztetxoekin osatutako bi talde izango dituzte; haiek, ordea, lehiaketetatik kanpo, topaketetan parte hartuko dute.



OIHANA ELORZA

## Erakusketa kultur etxean

Jaietan antolatutako ageriko pintura lehiaketan sarituak izan ziren margoak eta pintura ikastaroetan egin dituzten beste hainbat daude ikusgai kultura etxeko erakusketa gelan. Urriaren 16ra arte egongo da zabalik erakusketa –12an izan ezik–, eta arratsaldeetan ikusi ahal izango da, 18:00etatik 20:00etara.



DANBAKA

MUSIKA LEHIAKETA

# LEMAK • KIIMAK
# THE CLAYTON • JASAN

Bergarako Seminarixoa | **Urriaren 14a, egubakoitza** | 21:30

**Chill out gunea**, 20:00etatik aurrera, San Martin plazan (Errege Seminarioaren arkupeetan).
**Zuzeneko musika eta beste.**

**Sarrerak Goienakideentzako:** *Goiena* txartela erakutsita **0€**

*Goiena* aplikazioan alta ematen dutenek **2€**

Arrunta **4€**

BABESLEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia — Diputación Foral de Gipuzkoa

Bergarako Udala

LAGUNTZAILEA

SEIN

ANTOLATZAILEA

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

# "Lanak eginda daude, gozatzea geratzen da"

**MIKEL MUJIKA** TRIATLETA

IRONMANA Hiru urtez egon da Mikel Mujika Hawaiiko ironman proba prestatzen. Oztopoz eta atzerapenez betetako bidea izan da, baina iritsi da hitzordua

**Xabier Urzelai** BERGARA

Mikel Mujikak (Bergara, 1989) 2019ko abuztuan lortu zuen, Frantzian, Hawaiiko ironman proba entzutetsurako sailkatzea. Beste gauza askorekin moduan, pandemiak goitik behera irauli zituen asmo guztiak, eta, lasterketak hainbat atzerapen izan eta gero, ordu batzuk barru mundu osoko triatloilariendako erreferentziazko hitzordua dena egingo dute, Konako ironman proba. Zapatuan, Bergarakoa 06:15ean irtengo da –Euskal Herrian 18:15 izango dira–.



Mikel Mujika, Hawaiin. M.M.

**Zer moduz Hawaiin? Behin hara joanda, dena ez da izango lasterketa, ala?**

Kar-kar. Ez, ez, turismo apur bat ere bagabiltza egiten. Joan den eguenean iritsi ginen eta lasterketako ibilbideko tarte batzuk errepasatzen ibiltzearekin batera sumendietan ere ibili gara turismoa egiten.

**Igeriketako lasterketa bat egiteko aukera ere izan duzue...**

Bai. Ironmana baino astebete lehenago igeriketako tartearen berdin-berdina izango den itsas zeharkaldia egin genuen. Profesional batzuen aurretik amaitzea lortu nuen, 52.58ko denbora eginda –Leon Chevalierren eta Daniel Baekkegard-en aurretik, esaterako–, eta horrek sekulako konfiantza eman zidan lasterketara begira. Ikusi dugu zelakoa den igeriketako tartea, ikusi dugu sasoi onean gaudela... Ondo.

**Bizikletako tartean ere ibili zarete?**

Horko 180 kilometroak ere errepasatu ditugu, bai. Zirkuituan, 90 kilometro egiten dituzu joaten, eta gero, itzulerako bidea egin behar da. Astelehenean egin genuen ibilbidea eta gustura geratu ginen bizikleta gainean egindako lanarekin, eta hori semaforo, bidegurutze eta bestelakoak izan genituela. Baina konturatu ginen eguerdi partean sekulako beroa egiten zuela, lasterketa egunean momentu hori gogorra izango dela.

## "ASTELEHENEKO IGERIKETA PROBAK KONFIANTZA EMAN DIT, OSO ONDO IBILI NINTZEN"

**Non egongo da lasterketako gakoa?**

Nik uste dut orain aipatu dudan horretan egongo dela gakoa; alegia, tenperatura beroak, hezetasun handia, ez dago itzalik, inguru guztiak bolkanikoak dira... Oraingo egunetan konturatu gara edozertan hasi eta segituan izerditan blai zaudela. Dagoeneko etxeko lanak eginda daude, eta lasterketa egunean garrantzitsua izango da erritmo egokian joatea, jatekoak eta edatekoak ondo zaintzea, anoa-postu guztiak errespetatzea... Hanka-sartze txikiena garesti ordaindu daiteke.

**2019an lortu zenuen hor egoteko txartela, eta itxaronaldia luzea izan da, baina askoz ere atleta osoagoa zara...**

Bai, bai, ez daukat zalantzarik. Urte hauetan gogor entrenatu naiz eta aurrerapauso handiak eman ditut. Eta hori ez da sentsazio kontua, datuak ditugu hori erakusten dutenak. Igeri egiten azkarragoa naiz, bizikleta gainean sortzen dudan watt kopurua hazi egin da, korrika egiten orain dudan sendotasuna... Ez dira izan alferrikako urteak, lasterketetan esperientzia hartzen joan gara eta horrek lasaitasuna ematen du.

**Egun normala izatea, ez dugu gehiagorik eskatuko.**

Bai, lehen aipatu moduan lanak eginda daudelako eta apartekorik ez badago lasterketa ona egiteko moduan gaudelako. Berez esan ohi da bost lasterketatik bat txarra izan daitekeela, kontua da hemen ez dagoela horretarako aukerarik.

**Izango duzu markaren bat buruan...**

Ez da erraza esaten, baina bederatzi ordu baino gutxiago egiten baditut badakit nire kategorian –ez-profesionalak, 30-34 urte bitartekoen artean– aurrean ibil naitekeela. Hala ere, marka konkretu bat egiteaz baino gehiago, esperientzia hau bizitzeko aukera izate hutsarekin nabil gozatzen. Orain artekoa ederra izan da, lasterketa geratzen da.

# Easoren kontrako derbiarekin hasiko du MUk liga, domekan

SASKIBALOIA Julen Berrocalen taldeak donostiarren aurrean Euskal Kopako errebantxa hartu nahi du

**X.U.** ARRASATE

Domekan (18:30, Iturripe) hasiko du gizonezkoen Mondragon Unibertsitateak EBA mailako liga, eta lehenengo jardunaldiak gipuzkoarren arteko derbia utziko du, Gipuzkoa Basket Easo taldea izango da-eta bisitaria. Gainera, arrasatearrak errebantxa gogoz daude; izan ere, nahiz eta denboraldiaurreko torneoa izan, Berrocalen mutilek Euskal Kopak utzitako zapore gazia –ez ziren lauko finalerako sailkatu– alde batera utzi nahi dute. Eta, hain zuzen, arantza ateratzeko hautagai aproposa da Easo, euren kontra galdu egin zuten-eta Euskal Kopako lehenengo jardunaldian.


Tabirakoren kontra. GOIENA

**MUko neskak, Galdakaora**

Emakumezkoen MUk, bestalde, Galdakaon jokatuko du, zapatuan (18:00), Ibaizabalen kontra. Moreek ligako oilarretako baten kontra hasi zuten joan den astean liga, eta 55-94 galdu zuten Araskiren kontra. Kategoria estreinatzeko modu gordina izan zen, baina talde hori koska bat gorago dago. Ibaizabalek La Salleri irabazita (47-57) hasi du liga.

## ARETO FUTBOLA Etxean jokatuko dute ibarreko bi taldeek

Maila nazionalean diharduten Eskoriatzak eta Mondratek etxean jokatuko dute. Mondratek Laskorain indartsua hartuko dute domekan (18:00, Musakola) eta Eskoriatzak ere etxean jokatuko du, domekan (18:15), Goierriren kontra. Hala, Mondratek ligan jokatutako bi partiduak irabazi ditu, eta Eskoriatzak bat.


Laskorainen kontrakoa, Iturripen. GOIENA

## ESKUBALOIA Lau Bideren kontra hasiko du liga Fagor Industrialek

Euskadiko txapelketan Debagoienak ordezkari bakarra izango du oraingo denboraldian, Fagor Industrial. Eta Gipuzkoako txapelketan lehiatuko dira maila galdu berri duten Mugarri Eingouk eta Soraluce BKEk. Hala, Oñatiko taldeak asteburuan hasiko du denboraldia (18:00, Zubikoa), Legazpiko Lau Bide jatetxearen kontra.


Elgoibarren kontra, iaz. GOIENA

# Munduko txapelketarako sailkatu da 'diamantea'

BORROKA ARTEAK Arrasateko MMA borrokalari Yaman Mjahed-ek brontzezko domina ekarri du Italian jokatu duten Europako txapelketatik: "Pena hartu nuen, eskura nuelako urrea, baina, hotzean pentsatuta, izugarria da urtebetean lortu dudana"

**Xabier Urzelai Atxa** ARRASATE
Garaipenekin dominak lortzen dira, eta porrotetatik ikasi egiten da. Eta ikasgaia ondo barneratuta itzuli da Yaman *Diamante* Mjahed Italian –Lignano Sabbiadoro– jokatu duten Europako txapelketatik. Lortu duena ez da nolanahikoa, brontzezko dominarekin batera neguan jokatuko duten Munduko Txapelketarako sailkatu da eta; baina egia da bi borrokaldi irabazi eta gero, finalerdiko porrotak zapore gazia utzi ziola: "Kontziente nintzen munduko txapeldunordea neukala aurrean [Ukrainako Ivan Pasych], eta egurra jasotzen ari zen. Borrokaldi oso gogorra izan zen, eman eta jaso ibili ginen biok, baina bigarren roundean lurrean neukan, hesien kontra, eta ukabilkadak ematen ari nintzaion, sufritzen ari zen, amore eman behar zuen edozein momentutan...".

Orduan, baina, lurretik besoko giltza bat egiteko kapaz izan zen Pasych, besoa kateatu zion arrasatearrari, eta hark amore eman behar izan zuen: "Une bakar bat nahikoa da borrokaldia galtzeko. Ikasgai ona izan da eta kontrario gogorraren aurrean galdu dut. Pena hartu nuen, garaipena eskura izan nuelako eta finalean erraz gailendu zelako. Brontzearekin etorri naiz, baina urrea oso-oso gertu izan dut. Hala ere, urrea lortzen dudanean zapore hobea izango du", adierazi dio Mjahed-ek GOIENAri, Italiatik iritsi berritan.

### Aurreko borrokaldietan, bikain

Finalerdietarako sailkatzeko egin behar izan zituen aurreko bi borrokaldietan sekulako maila erakutsi zuen *Diamante*-k. Lehenengoan, Errumaniako Cristian Valentin ondo hartu zuen mendean, bi minutu eta erdi baino ez zituen behar izan kontrarioa lurrean uzteko. Bigarren borrokaldia, baina, beste kontu bat izan zen, Irlandako Jake Ngai-ren kontra: "Inoiz ez dut ikusi halako mailako txapelketarik. Irlandarraren kontra borroka gogorra izan nuen. Tipo gogorra zen, hauspo luzekoa. Hiru roundak erabili genituen eta puntu aldeagatik irabazi nuen".

### Gastu guztiak, poltsikotik

Yaman Mjahedek Europako txapelketako gastu guztiak poltsikotik ordaindu behar izan ditu: "Garesti irten zait txapelketa, egia esan. Baina, niretako, ez da gastua, inbertsioa da. Munduko borrokalari onena bilakatzea dut amets, horretarako entrenatzen naiz egunero, eta hauek eman beharreko pausoak dira. Sekulakoa izan da nazioartean lehiatu ahal izatea, eta orain bai, brontzea irabazita abenduan edo urtarrilean jokatuko dugun Munduko Txapelketan Espainiako Federazioak ordainduko du bidaia".
Txapelketatik errekuperatzeko baliatuko ditu egunok Arrasateko borrokalariak, baina loak hartu gabe, segituan dauka-eta WOW7 borroka jaialdia. Urriaren 29an izango da, Madrid Center-en, eta bertan batuko dira WOW etxeko borrokalari nabarmenenak: "Eta ondoren, Munduko Txapelketan jarriko dut fokua, hitzordu horretara %100ean iritsi nahi dut eta".

### Ez sinisteko moduko urtea

Europako hitzorduak aukera eman dio Arrasatekoari atzera begiratua egiteko: "Lehen aipatu dut hasieran zapore gazia utzi zidala finalerako sailkatu ez izanak. Baina gero, lasaiago, konturatzen zara urtebetean zer lortu duzun. Iaz, ametsak baino ez nituen, eta orain, amets horiek gauzatzen nabil. WOW etxeko borrokalari bilakatu naiz, Espainiako selekzioarekin nazioartean lehiatu naiz jada, eta munduko txapeldunordeari hortzak erakutsi dizkiot. Baina lanean jarraitu behar dut".

**EUROPAKO TXAPELKETAN BRONTZEA ESKURATU DU MJAHED-EK; GERTU IZAN DU URREA**


Yaman Mjahed eta Jake Ngai irlandarra, lurreko borrokan. Y.M

# Mondrak lider dagoen Añorga hartuko du domekan Mojategin

FUTBOLA UDAk ere etxean jokatuko du domekan, eta baita nesken Bergara eta Leintz Arizmendi taldeek ere

**X.U.A.** ARRASATE
Ezohiko ordutegian jokatuko du Mondrak oraingo aste bukaeran, Cristian Matiasen mutilek domeka arratsaldean (18:00) hartuko dute-eta ligan partidu guztiak (4) irabazi dituen Añorga.

Aretxabaletak ere talde indartsua hartuko du Ibarran (domeka, 16:30), hiru partidu irabazi dituen Eibar, hain zuzen ere. Eta Aloña Mendi eta Bergarak, berriz, kanpoan jokatuko dute. Txantxikuak ere oso ondo hasi dira, eta Oiartzunen jokatuko dute zapatuan (15:45). Eta bergararrak Lesakaraino joango dira zapatuan 17:00etan Beti gazteren kontra jokatzeko. Hala, orain artean oñatiarrak dira egindako liga hasierarekin pozik egon daitezkeen bakarrak, Añorgaren atzetik eurak daude-eta bigarren postuan.


Bergararen kontrako derbian. GOIENA

### Emakumezkoek ere etxean

Bergarak eta Leintz Arizmendik ere etxean jokatuko dute. Hain jutu ere, Tolosaren kontra bergararrek, zapatuan, 12:00etan, Agorrosinen. Eta Leintz Arizmendikoek Ostadarren kontra (domeka, 11:30).

# Azaroaren 5ean egingo dute Antxintxika kroseko 16. edizioa

ATLETISMOA Mikel Crespo eta Oliver Hernandez gogoan izango dituzten lasterketan zabalik dago izen-ematea

**Uxue Igarza Loiola** BERGARA
Bi urteko etenaldiaren ostean, Antxintxika triatloi taldeak jakinarazi du azaroaren 5ean, zapatu arratsaldean, egingo dela Soraluze eta Bergara arteko Antxintxika lasterketa. XVI. edizioa da, eta Mikel Crespo eta Oliver Hernandez taldekide izandakoak omentzeko baliatuko dute. Hamar kilometro ditu ibilbideak, eta irteera-gunera autobusean joateko aukera egongo da. Helmuga, berriz, Irala kalean izango da. Ordutegiari dagokionez, 16:30ean irtengo dira *handbike*-ak eta aulki gurpildunak. 16:45ean patinak eta 17:00etan korrikalariak. *Kirolprobak.com*-en eman daiteke dagoeneko izena.


Mimenza, 2019an. GOIENA

### Laguntzaile bila

Bestetik, azkenengo urtean, desgaitasun fisiko eta psikikoak zituzten umeek parte hartzeko aukera izan zuten. Aurten ere egongo da aukera, baina ibilbidean zehar aulkiak bultzatzeko boluntarioak behar dituztela azaldu dute: 688 63 51 53 telefonora deitu behar dute interesa dutenek.



Publikoaren boto gehien jasota, Arrasateko 112 taldea da Danbakako hogeigarren talde aukeratua. 112 TALDEA

# Taularen gainera igotzeko irrikaz

Urriaren 14an hasi eta urtarrilaren 13ra bitartean Seminarixoko aretoan jokatuko den bosgarren Danbaka lehiaketan parte hartuko duten askotariko musika estiloetako hogei taldeen zerrenda osatuta dago; emanaldi guztiak 21:30ean izango dira

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA

Debagoieneko musika harrobiaren erakusleiho izango den Danbaka musika lehiaketaren bosgarren aldia abiatzeko astebete besterik ez da falta. Goiena Komunikazio Taldeak antolatu du, Bergarako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuaren babesletzarekin eta Sein enpresaren laguntzarekin.

Emanaldi guztiak 21:30ean hasiko dira, eta sarrerak kontzertuaren egunean Seminarixoko leihatilan eskuratu ahalko dira, lau eurotan –Goienakideek doan izango dute, baina *Goiena app*-etik txartela erakutsi beharko dute sarreran; eta *Goiena app*-a jaitsi eta alta emanda dutenak, berriz, bi eurotan–. Sarreren aurretiko salmentarik ez da izango.

### Epaimahaiak aukeratutakoak

Bost kontzertutan banatuta, guztira, hogei proiektu izango dira agertokian lehian –lau talde emanaldi bakoitzeko–. Julen Narbaizak, Kristina Markinak, Aitor Aldanondok, Iñigo Ugartek eta Nerea Loron *La Furia*-k osatzen duten epaimahaiak hemeretzi aukeratu zituen: Oñatiko Broken Legacy, Letagin, Sukena, Inguma eta Aiert; Arrasateko Sindy Berbenas, Etxepe eta Bergarako eta Arrasateko kideak dituen Erromintxelak; Bergarako Arragoa, Islabat, Eyharts, Orhi, Ktarsia eta Antzuolako kideak ere badituen Lemak; Antzuolako Kiimak; Eskoriatzako eta Aretxabaletako kideak batzen dituen Jasan; Aramaioko The Clayton; Aramaioko, Eskoriatzako eta Atxondoko musikariekin osatutako Balarrasa eta Aretxabaletako eta Otxandioko kideak dituen Iluminaztizz.

> **"OROKORREAN, ABERASTASUN ETA KALITATEA HANDIA DAGOELA IKUSI DUGU"**
>
> IÑIGO UGARTE, EPAIMAHAIKIDEA

> **"ASKOTARIKO KONTZERTUAK IZANGO DIRA; ZATOZTE GUREKIN GOZATZERA"**
>
> JOKIN BEREZIARTUA, KOORDINATZAILEA

Aurkeztutako 31 musika-proiektuetatik aukeraketa egitea ez dela lan erraza izan dio epaimahaikide taldeko kide Iñigo Ugarte musikariak: "Orokorrean, eskualdeko musikagintzan aberastasun eta kalitate handia dagoela ikusi dugu. Batzuk aurretik ezagutzen nituen eta ibilbide luzea duten proiektu sendo asko daudela berretsi dut, baina kuriositate handia nuen proiektu txikiago edo berriagoekin; hau da, gaur egun nahiko ohikoak diren etxeko estudio txikietan zer sortzen ari den ikusteko, eta horien artean ere oso gauza interesgarriak aurkitu ditugu, zabaltzen genuen karpeta bakoitzeko sorpresa politekin egin dugu-eta topo. Zaila izan da aukeraketa eta pena handiz utzi behar izan ditugu hainbat proiektu kanpoan, eta, kide bakoitzak bere aukeraketa egin badu ere, aukeratutako hemeretzi horietan epaimahaikide guztiok nahiko irizpide antzerakoa edo bateragarria izan dugu. Aukeratu barik geratu direnei esan nahiko genieke aurkezteagatik bakarrik denek merezi dutela zuzenean jotzera iristea; hala ere, espero dugu baliagarria izatea aurrerantzean zuzenekoak lotzeko eta hurrengo edizioan parte hartzeko gogoa pizteko. Eskerrak eman gura dizkiegu, bada, parte hartu duten guztiei".

### Hogeigarrena, 112 taldea

Publikoaren botoekin borobildu dute lehiakideen zerrenda. Lehia estua izan da eta punk-rock estiloa ikur duen Arrasateko 112 taldea izan da boto gehien eskuratu duena: 205. Segidan izan dira Bergara eta Antzuolako kideak dituen Golden Blend punk-rock taldea, 200 botorekin, eta hirugarren bozkatuena, Aretxabaletako Eten talde rockzalea, 168 botorekin.

### Lehenengoa, urriaren 14an

Datorren egubakoitzean 21:30ean hasiko da Seminarixoko agertokian lehiaketa. Lau talde izango dira taularen gainean: Bergarako eta Antzuolako Lemak taldeak pop-rock doinuak eskainiko ditu; Antzuolako Kiimak taldeak ere bide antzerakotik eskainiko du bere kantu zerrenda; punk eta rock-and-roll doinuekin bustitako kantuak erakutsiko ditu Aramaioko The Clayton taldeak; eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako musikariek osatutako Jasan taldeak borobilduko du lehen emanaldiko laukotea, metal eta rock gogor estilo doinuak eroanda.

Hurrengo lau saioetan ere agerian geratuko den moduan, ezaugarri eta estilo askotariko taldeak izango dira agertoki gainean emanaldi bakoitzean; lehenengo emanaldiko eskaintza da horren erakusle. "Gustura entzun ditut aurkeztutako taldeen kantu guztiak, eta gogotsu nago orain musikariek taularen gainean eskaintzeko dutena ikusteko", dio Iñigo Ugartek.

"Sinistuta gaude Danbaka plaza ederra izango dela eskualdeko musikarien uzta berria behar den moduan loratzeko. Ordu erdiko hogei emanaldi ditugu aurretik, gozatu eta gozarazteko, eta, horregatik, musikazaleei edo musikarekiko jakin-mina duzuen guztioi Seminarixora etortzeko gonbidapena egin gura dizuegu, seguru gaude-eta hogei horien artean izango dela gustuko izango duzuen proposamen bat baino gehiago", dio Danbakako koordinatzaile den Jokin Bereziartuak.

### Telebistan ere ikusgai

Goienako hedabidetan jarraipen zabala egingo zaio Danbakari. Kontzertuak osorik eskainiko dira (Ikus 25. orria).

## Chill out gunea kanpoan

Seminarixoa aretoan, barruan, izango dira Danbaka lehiaketako kontzertuak, baina kanpoaldean ere, arkupeetan, izango da non gozatu; izan ere, chill out gunea izango da han, 20:00etan hasita, kontzertuak izango diren egun guztietan.

Zuzeneko musikarekin gozatzeko aukera gehiago emango du gune horrek; lehiaketako lehen taldearen emanaldiaren aurretik giroa berotzeko asmoz, beste musika proposamen batzuk izango dira gozagarri. Emanaldi horiek doan izango dira.

Zuzeneko musikaz gainera, jatekoak eta edatekoak ere izango dira, Elorregin izaten den Sanprubusa San Martin plazaraino joango da eta. Areto kanpoaz gainera, barruan ere beste barra txiki bat jarriko dute.

# Organo erromantikoaren doinuak protagonista

Gaur, egubakoitza, hasi eta urriaren 29ra bitartean, hamar kontzertu izango dira Bergarako Santa Marina parrokian, Azpeitiko Loiolako basilikan eta Azkoitiko Ama Birjinaren Jasokundearen parrokian; emanaldi guztiak doan eta 20:00etan

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA

Azpeitian, Azkoitian eta Bergaran dauden organo erromantikoen balioa herritarren artean zabaltzeko helburuarekin elkartu ziren, orain dela 23 urte, hiru herrietako udal ordezkariak, eta hala abiatu zuten Fray Joseph de Echevarria Organoaren Adiskideen Elkartearekin elkarlanean nazioarteko jaialdia.

Hogeita hirugarren aldia abiatuko dute gaur, egubakoitza, Azpeitiko Loiolako basilikan, eta hurrengo egunean estreinatuko dute ziklo berria Bergarako Santa Marina parrokian eta Azkoitiko Ama Birjinaren Jasokundearen parrokian.



Itziar Urbieta, Pili Arrieta, Sonia Vazquez, Ainhoa Lete eta Maider Osa. MIREIA BIKUÑA

## Bergaran lau emanaldi

Zapatuetan izango dira Bergarako emanaldiak, hain justu, urriaren 8an, 15ean, 22an eta 29an; guztiak 20:00etan hasita. Punta-puntako nazioarteko organistak gonbidatu dituzte: Bergarako Aitor Oleaz gainera, Alize Mendizabal, Monica Melcova eta Ignacio Arakistain.

Eguaztenean egin zuten aurkezpenean, transmisioaren garrantzia azpimarratu zuen Bergarako Udaleko Sustapen Ekonomikorako zinegotzi Ainhoa Letek; izan ere, organoa bera musikari gazteengana helarazteko baliatu gura dute nazioarteko zikloa; are gehiago, lehen kontzertuan herriko musikari gazteak protagonista bihurtuta. "Biharko emanaldian, Aitor Olea organo-jolea izango da eta alboan izango ditu Bergarako Orfeoi Gazteko kideak eta herriko musika eskolako gazteak eta haurrak. Era berean, organoa ikasten ari diren musikariei ere tokia egin diegu Santa Marinako azken hitzorduan".

Emanaldietara joateko gonbidapena egin die Letek herritarrei. "Herrian badago organo musikaren jarraitzailerik eta baita jotzaileak ere. Egia da ez dela erraza den musika mota; horregatik, zabalkundean lan egitea ezinbestekoa da, transmisioa eta jarraipena izatea nahi badugu. Herrian organo ederrak ditugu, gainera".

## Azpeitian eta Azkoitian hiruna

David Cassan organista gazte frantziarrak zabalduko du gaur, egubakoitza, Loiolako basilikako egitaraua, eta Lidia Ksiazkiewicz poloniarrak, berriz, bihar, Azkoitiko eskaintza.

# Antzerki proiektuei laguntzeko deialdia zabalik, DAPen eskutik

Azaroan egingo duten Debagoieneko Antzerki Jaialdian Sormen Egonaldia egiteko aukera izango du irabazleak

**Aitziber Aranburuzabala** ANTZUOLA

Debagoieneko Antzerki Plataformak *DAP Sormena* lan-lerroarekin bat datorren ekimena sortu du Antzuolan azaroan egingo duten jaialdiaren baitan. "Debagoieneko antzerkilariei zuzenduta dago eta helburua da aurkezten diren proiektuen artean bat aukeratu ondoren Antzuolan Sormen Egonaldia egiteko aukera ematea. Urriaren 9a da proiektuak aurkezteko azken eguna", diote DAPekoek.

## 'Dap.eus' atarian

Atari horretan daude parte hartzeko oinarriak eta baita izena emateko aukera ere. "Jatorrizko sormen lana izan behar du, euskaraz sortutakoa. Bakarkako lana edo talde lana aurkez daiteke. DAPeko zuzendaritzak aukeratutako proiektuak Sormen Egonaldirako espazioaren lagapena eta 700 euroko dirulaguntza jasoko du. Proiektuaren kalitatea eta gaitasun berritzailea eta originaltasuna hartuko dugu, besteak beste, kontuan".

Goienakideen txokoa
URRIKO SARIAK
Tableta
'InnJoo Superb' tableta
Parte hartzeko sariaren izena: tableta
EROSKI ARRASATE
Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ
Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea
www.harremandenda.org
PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Realaren eta Mallorcaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean
GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA
Reala-Mallorca partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek:
Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik.
Urriaren 19an, eguaztena, 20:00etan.
Irabazi bi lagunendako sarrerak
Arrasateko Udalari esker
'Munduari itzulia 80 egunetan' haur antzerkirako sarrerak ditugu
Arrasate | Amaia Antzokia | Urriak 15 | 17:00
PARTE HARTZEKO:
E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "Antzerkia" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Irabazi bi lagunendako otordua
MAIALDE JATETXEARI ESKER
Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: urriak 11.
943 25 05 05 goienakide@goiena.eus 'Goiena app'-a / zozketa atalean.
GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...
BAZKIDETZA KUOTA: 15 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus
DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!
goiena kide
Okm: batzen gaituen distantzia.

ESKER ONA

## Jon Odriozola Gomez



2022ko irailaren 22an hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

*Luma borrokalaria*
*beti gogoan langileria*
*aske maitatzeko Herria*
*betoz zure jakintza eta umoria.*

Bergaran, 2022ko urriaren 7an.

ESKER ONA

## Txaro Arregi Aranburu



2022ko irailaren 27an hil zen, 63 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—

Ondra meza zapatuan izango da, urriaren 8an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2022ko urriaren 7an.

ESKER ONA

## Jesus Velar Gorosabel



2022ko irailaren 29an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko urriaren 7an.

URTEURRENA



## Jose Mari Etxeberria Sagasta

2021eko urriaren 5ean hil zen.



## Puri Etxeberria Sagasta

2021eko urriaren 13an hil zen.

Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 9an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2022ko urriaren 7an.

URTEURRENA

## Nicolas Ugarte Umerez



2021eko urriaren 2an hil zen, 79 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, urriaren 8an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2022ko urriaren 7an.

URTEURRENA

## Luis Garmendia Zubia



2021eko urriaren 9an hil zen, 93 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, urriaren 9an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Aurrez esker on bertaratuko zareten guztioi.
Arrasaten, 2022ko urriaren 7an.

# GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE *EGUNEZ***

Egubakoitza, 7 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
Zapatua, 8 AZKOAGA: Ferrerias 1 / 943 79 15 15
Domeka, 9 JUNCAY: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Astelehena, 10 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Martitzena, 11IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Eguaztena, 12 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Eguena, 13 ESPAÑOL: Araba etorbidea: 943 79 18 65

**BERGARA *EGUNEZ***

Egubakoitza, 7 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Zapatua, 8 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Domeka, 9 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Astelehena, 10 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Martitzena, 11 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguaztena, 12 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguena, 13 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

**OÑATI *EGUNEZ BAKARRIK***

Egubakoitza, 7 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 8 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 9 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 10 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 11 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 12 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 13 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

**ARRASATE *GAUEZ EGUNERO***
*(22:00etatik 09:00etara)*

2022a bukatu arte: JUNCAY: Iturriotz 17 / 943 79 79 99

**BERGARA *GAUEZ EGUNERO***
*(22:00etatik 09:00etara)*

2022 osoan: URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
*COF Gipuzkoa* aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

OROIGARRIA

## Illart Losada Izquierdo



2022ko urriaren 2an hil zen, 19 urte zituela.

*Irrifar hura beti maiteko dugulako*

Beti maiteko zaituzten zure lagunak.
Arrasaten, 2022ko urriaren 7an.

OROIGARRIA

## Illart Losada Izquierdo



2022ko urriaren 2an hil zen, 19 urte zituela.

*Ikasle eta langileok bat egiten dugu familiaren saminarekin.*
*Beti gure bihotzetan.*

Mondragon Unibertsitatea — Goi Eskola Politeknikoa

Arrasaten, 2022ko urriaren 7an.

BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.*
*Gure eskerrik beroenak gugan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.*

Ion, Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

OROIGARRIA

## Juan Mari Erostarbe Aranburu

2022ko urriaren 4an hil zen, 70 urte zituela.

*Eskerrik asko, Juan Mari, Aloña Mendin*
*urte hauetan guztietan eman diguzun laguntzagatik.*

Oñatin, 2022ko urriaren 7an.

## BERRI-ZAKUA





**Bilbora egun-pasa**
Arrasateko Bidean Heziketa Zentroko lagunak Bilbora joan ziren aurreko egubakoitzean, irailaren 30ean, eguna pasatzera. Eta haien aburuz, egun ederra izan zuten, eguraldia lagun ez izan arren. Besteak beste, Guggenheim museora bisita egin zuten.

**Ezkur bilketa**
Bergarako Kukubaso elkartearen ekimenaren barruan, hainbat herritar batu ziren aurreko zapatuan Agirretxeberri eremuan, ezkurrak batzeko. Mintegia bultzatzeko ekimena izan zen. Hainbat ekintza egin zituzten zapatu goizean; eta ostean, jasotako ezkurrak etxera eraman zituzten umeek, han ernaltzen ipintzeko.




**Herbehereetako ikasleak**
Urriaren 2tik urriaren 6ra bitartean, Herbehereetako Warnsveld herritik etorritako 45 ikasle eta lau irakasle egon dira Bergarako Mariaren Lagundiko DBHko 4. mailako Mariaren Lagundiko ikasleen familiekin bizi izaten eta askotariko ekintzak partekatzen. Itzulerakoa 2023ko martxoaren 25etik apirilaren 1era egingo dute.



**Gernikako Euskal Jaian**
Urriko lehenengo zapatuan egiten den Euskal Jaian egon ziren Arrasateko Portaloi Elkartekoak, Aretxabaletakoekin, Elgetakoekin eta Eibarkoekin batera. Goiza kalez kale pasatu zuten, kantu-jiran; eta ostean, Euskal Herri osotik joandako 600 kantuzalerekin bazkaldu zuten. "Oso ondo pasatu genuen eta nahi baino lehen heldu zitzaigun bueltatzeko ordua", diote.



**1961eko kintada**
1961ean jaiotako arrasatearrek kintada eguna ospatu zuten irailaren 22an. Leintz Gatzagan bisita gidatua egin zuten, eta Larrabea jatetxean hartu zuten hamaiketakoa, eta bertan bazkaldu. Dantzaldiaren ostean, Arrasatera itzuli ziren, eta erdiguneko tabernetan jarraitu zuten ospakizunarekin. Kintadan parte hartu zuten gehienak mozorrotu egin ziren, hainbat osagarri erabiliz; betaurreko koloredunak eta lepokoak ipini zituzten, besteak beste.

### Kontatu, kontatu!

Mezua bidali *berriak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu uzuen.
**Edo**: Otalora 31, Arrasate; 943 25 05 05.

**Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik argitaratuko ditugu; hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean.**



**1988ko Gipuzkoako txapeldunak**
Goiko horiek 13 urte zituzten –entrenatzaileak, gutxi batzuk gehiago– saskibaloiko Gipuzkoako Txapelketa irabazi zutenean. Urtero elkartzen dira, 90eko hamarkada ezkero, sanmigeletan afaria egiteko. Plater nagusia: buzkantzak.



**52. ezkontza-urteurrena**
Jose Luis Azkarate Zabarte eta Milagros Beitia Leon arrasatearrak orain dela 52 urte ezkondu ziren, urriaren 10ean. "Zorionak eta urte askotarako, aitaita eta amama! Oihan, Lide, Hegoi eta Garazi biloben partetik".



**Leloaren irabazlea**
Ibai Rodriguez Perianes gazte oñatiarrak egindako logoak lortu zituen herritarren boto gehien. Hortaz, hark egindakoa izango da Zai Zoi Bele elkarteak erabiliko duen irudia. Bigarren saria Ana Bodesendako (100 euro) izan zen eta hirugarrena, Iñigo Biainendako (50 euro).

# ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
**Intza Kortazar Errasti**
Urriaren 13an, 9 urte. Zorionak, sorgintxu. Ondo ospatu zure egun berezia. Muxu potolo bat familiaren eta lagunen partetik.



BERGARA
**Udane Unamuno Unamuno**
Urriaren 11n, 11 urte. Aupa Udane! Urte askotarako, txapeldun! Ondo pasau zure egunean eta muxu pilo-pilo bat familixa danaren partetik.



ARRASATE
**Iker Gordo Dominguez**
Urriaren 11n, 6 urte. Zorionak, txapeldun. Ondo ospatu zure eguna. Muxu erraldoi asko etxekoen partetik. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu.



ARRASATE
**Aimar Egizabal Gandarias**
Urriaren 11n, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure eguna eta mila muxu, hainbeste maite zaitugun familia guztiaren partetik!



OÑATI
**Beñat Arregui Unamuno**
Urriaren 11n, 11 urte. Zorionak, Beñat! Oso ondo pasatu zure eguna. Jarraitu orain bezala alaia, apala eta mutiko ona izaten. Muxu handi bat!



BERGARA
**Izaro Esnaola**
Urriaren 10ean, 9 urte. Zorionak, prexioxi! 9 urte honezkero eta 9 urte egunetik egunera maitagarriagoa izaten. Egun polita pasa dezazula!



ARRASATE
**Miguel Romero**
Urriaren 10ean, 81 urte. Zorionak, Miguel! Emazte Katalinaren, seme-alaben eta biloba Uxueren partetik, muxu handi bat!



BERGARA
**Mariapilar eta Ur**
Urriaren 10ean, birramonak 96 urte eta 17an, Urrek 7! Etxekuon partetik, zorionak! Alkarrekin ederki ospatuko dou. Patxo bat.



BERGARA
**Haizea Ayastuy Markina**
Urriaren 9an, 13 urte. Zorionak, polit hori! Topera disfrutatu zure eguna! Zakukada patxo etxeko guztien partetik!



ESKORIATZA
**Oihana Aramendi Kortazar**
Urriaren 9an, 47 urte. Zorionak. Ondo ospatu zure eguna. Besarkada eta muxu handi bat familia osoaren partetik.



OÑATI
**Gari Mendia Txintxurreta**
Urriaren 8an, 3 urte. Zorionak, maittia! Primeran pasauku zeure urtebetetze eguna! Patxo handi bat familixako danon partetik!



OÑATI
**Danel Amenabarro Arregi**
Urriaren 8an, 9 urte. Zorionak, maittia! Muxu potolo bat danon partetik!



ESKORIATZA
**Ander Beitia Oianguren**
Urriaren 8an, 5 urte. Zorionak, Andertxo! Egun politxa pasau! Muxu handi bat, maite zaitxugun danon partetik!



OÑATI
**Arhane Katarain**
Urriaren 7an, 8 urte. Zorionak, Arhane! Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Julen Del Palacio Orellana**
Urriaren 7an, 7 urte. Zorionak, Julen! Oso ondo pasa eguna eta behar dan moduan ospatu! Muxu haundi bat etxekoen partetik!



BERGARA
**Hodei Aretxaga Arabaolaza**
Urriaren 6an, 5 urte. Zorionak, Hodeitxo, 5 urte jadanik. Ondo-ondo ospatu eguna! Patxo handi bat danon partetik.



BERGARA
**Martina Azkarate Lopez de Lacalle**
Urriaren 8an, 5 urte. Zorionak etxeko guztien partetik; bereziki, Martxel anaiaren partetik.



OÑATI
**Mikel Elgero Gantxegi**
Urriaren 5ean, 11 urte. Zorionak, Mikel! Patxo handi bat familixa guztiaren partetik. Jator eta alai jarraittu ezazu. Ez aldatu!



ESKORIATZA
**Eñaut Etxebarrieta Altuna**
Urriaren 5ean, 19 urte. Zorionak, txapelduna. Ondo pasatu zure egun berezia. Muxu pila bat familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
**Haizea Pagalday Garro**
Urriaren 4an, 9 urte. Zorionak, artista! Patxo ta besarkada pila bat etxeko danon partetik.



BERGARA
**Jenny Caballero Garcia**
Urriaren 4an, 21 urte. Ezin naiz zutaz harroago sentitu. Eskerrik asko hain jatorra izateagatik. Asko maite zaitut. Zorionak!



ARRASATE
**Maria Eugenia Urroz**
Urriaren 3an, 72 urte. Zorionak, amama! Oso ondo pasa zure urtebetetze egunean eta urte askotarako! Asko maite zaitugu!



OÑATI
**Sara Arenaza Barriola**
Urriaren 3an, 10 urte. Ondo-ondo ospatu zure eguna. Asko maite zaitugu. Zure familia eta lagunak!



ARETXABALETA
**Bittor Ríos Izurrategi**
Urriaren 3an, 6 urte. Zorionak, maitxia! Jarraitxu halako mutiko maitagarria izaten. Asko maitxe zaitxugu.



ESKORIATZA
**Txaro Kortazar Uribesalgo**
Urriaren 1ean, 77 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasau zure egunean. Patxo potolo bat familiako guztien partetik.



OÑATI
**Anartz Arregi Camino**
Urriaren 1ean, 11 urte. Zorionak, 'guapo'! Ondo pasa zure eguna eta muxu potolo bat denon partetik.



BERGARA
**Naroa Markina Urizarbarrena**
Irailaren 30ean, 7 urte. Zorionak, politx hori! Ondo-ondo pasatu egun berezi hau! Besarkada handi-handi bat familia guztiaren partetik!



OÑATI
**Arane Agirre Iparragirre**
Irailaren 29an, 2 urte. Zorionak, maitia! Segi hain alaia izaten beti.



ESKORIATZA
**Joxe Mari Romaratezabala**
Irailaren 28an, 90 urte. Zorionak! Jarraittu oin arte moduen bizitzaz gozatzen. Maite zaittugu! Etxeko danon partetik.

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



ZURRUNKA

**ARETXABALETA 'Gure kanoa' antzezlana, umeendako**
Senegalgo arrantzale familia bateko kide Abba mutikoaren bizipenak kontatzen ditu Zurrunka antzerki taldeak, txotxongiloekin eta itzalekin. Sarrera hiru euro da.
*Etzi, domeka, Arkupen, 17:00etan.*



GLU GLU

**BERGARA 'Munduari itzulia 80 egunetan' antzezlana**
Jules Verneren izen bereko liburuan oinarritutako lana, umeendako eta euskaraz. Sarrera hiru euro da.
*Bihar, zapatua, Seminarixoan, 18:00etan.*

## EGUBAKOITZA 7

**ARRASATE Maritxu Kajoi**
Egun osoko festa. Arratsalde-ilunkaran, miraria.
*Arrasaten, 08:00etan.*

**OÑATI Odol ateratzea**
Aurrez hartu beharko da ordua odola emateko: 943-00 78 84.
*Enpresagintzan, 16:30ean.*

**BERGARA 'Kliparen jolasa' ekintza**
Lehen Hezkuntzako 3., 4., eta 5. mailetako neska-mutikoendako, Aidau haurren zerbitzuaren eskutik.
*Oxirondo azokan, 17:30ean.*

**ARETXABALETA Basotxokoen bilera lokalei buruz**
Zuzendaritza batzordeak bilera deitu du lokalen gaineko argibideak emateko bazkideei.
*Arkupen, 18:00etan.*

**OÑATI Aire zabaleko pintura lehiaketako lanak**
Margolan onenak ikusteko aukera hilaren 16ra arte.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

## ZAPATUA 8

**ANTZUOLA Arrola Eguna**
08:30ean, mendi ibilaldia Arrolara; ostean, salda eta txorizoa banatuko dute Lizargaraten; 13:00etan, bertso-poteoa herrian; 14:30ean, herri bazkaria patioan, jolasekin eta bertsolariekin; eta, 21:30ean, Musu-truk taldearekin erromeria Kalebarrenen.
*Antzuolan.*

**OÑATI 'Naturaren erritmoetara elikadura, natura eta ongizatea uztartuz' tailerra**
Herritar guztiendako. Izenak: 651 70 17 41 edo *info@amaianutrizioa.com*.
*Natur Eskolan, 11:00etan.*

**BERGARA Gero arte, Popi' festa**
14:00etan, bazkaria; eta,18:30ean, kontzerturako ateen irekiera.
*Kartzela zaharrean, 17:30ean.*

**BERGARA Bizikleta Festa**
Lokatza Ziklismo Eskolaren eskutik, umeak eta gaztetxoak ziklismora erakartzeko asmoarekin. Izena, egunean bertan. Nork bere bizikleta edo motortxoa eta kaskoa eraman beharko ditu.
*Seminarioko patioan, 17:30ean.*

**BERGARA 'Munduari itzulia 80 egunetan' antzezlana**
Jules Verneren izen bereko liburuan oinarritutako lana, umeendako, euskaraz. Sarrerak, lau euro.
*Seminarixoan, 18:00etan.*

**ARRASATE Bulego eta Lemak taldeak**
Gipuzkoan GazteTour egitasmoa.
*Monterron parkean, 18:30ean.*

**BERGARA Organo kontzertua**
Aitor Oleak, Bergarako Orfeoi Gazteak eta Musika Eskolako ahots zuriek egingo dute emanaldia, Organo Erromantikoaren 23. zikloaren barruan.
*Santa Marinan, 20:00etan.*

## DOMEKA 9

**BERGARA 'Dolmenen ibilbidea' bisita gidatua**
Gaur, euskaraz, Karakateko aparkalekutik irtenda. Izenak aurrez eman behar dira, 657 79 46 77 telefonoan edo *Debabarrena.turismo.com* atarian.
*Karakaten, 10:00etan.*

**ELGETA Bisita gidatu antzeztua**
Memoria Jardunaldien baitan. Aurrez eman behar da izena: 943-76 80 22, 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
*Mendizaleen plazan, 10:00etan.*

**BERGARA Ipintza Institutuaren erakusketa**
Ikastetxearen 50. urteak laburbiltzen dituen bilduma ikusgai, hilaren 23ra arte, martitzenetik domekara. Gaur, 12:00etatik 14:00etara.
*Aroztegin.*

**ARETXABALETA 'Gure kanoa' antzezlana, umeendako**
Senegalgo arrantzale familia bateko kide Abba mutikoaren bizipenak kontatzen ditu Zurrunka taldeak. Txotxongiloak eta itzalak erabiliko dituzte, umeen gozamenerako. Sarrerak, hiru euro.
*Arkupen, 17:00etan.*

**OÑATI Oñati Abesbatzaren emanaldia**
*Madina, 50. urteurrena* zikloaren baitan. Mirengu Plazaolaren zuzendaritzapean eta Gregorio Rifon organistaren laguntzarekin. Sarrerak, bost euro.
*Bidaurretako monasterioan, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 10

**ARRASATE Bigarren elkartasun azoka**
Arrasateko San Juan de Dios ospitaleko terapia okupazionelo zerbitzuak antolatuta. Jasotako dirua Senegalgo proiektura bideratuko dute.
*Seber Altuben, 10:00etatik 13:00etara.*

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*San Martin plazan, 12:00etan.*

**ARETXABALETA Odol ateratzea**
Herritarrak gonbidatu dituzte. Emaile berriak gura dituzte.
*Durana kalean, 16:45ean.*

**ARAMAIO Bilera irekia Euskaraldia antolatzeko**
Irekia, herritar guztiendako.
*Udaletxean, 18:30ean.*

## MARTITZENA 11

**ESKORIATZA Trebetasun jolasak**
Ehunduk antolatuta. Bi txanda: 16:45ean, Haur Hezkuntzakoak; eta 18:00etan, Lehen Hezkuntzakoak. Txanda bakoitzean adin bakoitzari egokitutako trebetasun jolasak landuko dituzte.
*Ludotekan, 16:45ean.*

**BERGARA 'Hizkuntzaren digitalizazio demokratikoa?' hitzaldia**
Digital Democratic-eko eta Txikilinux Xilabako kideek, Cecilia Bayok eta Eder Etxeberriak, egingo dute berba, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien baitan.
*Seminarixoan, 18:00etan.*

**BERGARA 'Hezkuntza: 1+2+3=6' hitzaldia**
Ehunduk antolatuta.
*UNEDen, 18:30ean.*

**OÑATI 'Oñatiko errekak hobetzeko plana eta tailerrak' hitzaldia**
Aldundiko Ingurumena eta Obra Hidraulikoetako saileko kideek eta



GOIENA

**OÑATI Oñati Abesbatzaren emanaldia**
*Madina, 50. urteurrena* zikloaren baitan. Mirengu Plazaolaren zuzendaritzapean eta Gregorio Rifon organistaren laguntzarekin egingo dute emanaldia. Sarrerak, bost euro.
***Etzi, domeka, Bidaurretako monasterioan, 19:00etan.***

EHUko Joxerra Diezek egingo dute berba, Ibailagun Astearen baitan.
***Kultura etxean, 19:00etan.***

**ARRASATE 'Ali & Ava' pelikula**
Clio Barnarden pelikula, martitzenetako emanaldian. Adeel Akhtar eta Claire Rushbrook protagonisten artean.
***Amaia antzokian, 19:30ean.***

## EGUAZTENA 12

**ELGETA Egoarbitzan auzolana**
Ahal dela, erreminta eramateko eskaera egin dute; besteak beste, sasiak garbitzeko makinak. Hamarretakoa, Udalaren kontura.
***Mendizaleen plazan, 08:00etan.***

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
***Oxirondon, 18:00etan.***

**BERGARA 'Latinoamerikaren zain urratuak' liburuaren euskarazko bertsioaren aurkezpena**
Itzulpenaren egile Iñaki Alegriak egingo du, Mikel Zinkunegi internazionalista lagun duela, Angiolillo liburutegiak gonbidatuta.
***Kartzela zaharrean, 19:00etan.***

**BERGARA 'Argentina 1985' pelikula**
Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
***Seminarixoan, 20:00etan.***

## EGUENA 13

**ARRASATE 'Dantzaren onurak zahartzaroan' hitzaldia**
Maialen Araolazak egingo du berba, Portaloi elkarteak gonbidatuta.
***Kulturaten, 18:30ean.***

**ELGETA 'Emakume Abertzale Batza' hitzaldia**
EHUko irakasle Gurutze Ezkurdiak, Begoña Bilbaok eta Karmele Perezek egingo dute berba, Memoria Jardunaldien barruan. Irekia.
***Udaletxean, 19:00etan.***

**BERGARA Errekaren inguruko dokumentala**
Irekia.
***Irizar jauregian, 19:00etan.***

**OÑATI 'Todo el mundo odia a Johan' filma**
Zinekluba.
***Zinema aretoan, 20:00etan.***

**ARRASATE Kooltur Ostegunak: Againsters taldea**
Bartzelonako taldearen kontzertua. Sarrerak, zazpi euro.
***Gaztetxean, 22:00etan.***

## EGUBAKOITZA 14

**BERGARA 'Dinosauro galduaren bila' jolasa**
LHko 1. eta 2. mailetako umeendako, Aidauren eskutik.
***Oxirondon, 18:30ean.***

**ARRASATE Mugi Panderoa, Skakeitan eta Zetak taldeak**
Mondragon Unibertsitatearen 25. urteurreneko ekitaldia. 18:30ean, Mugi Panderoa; 21:00etan, Skakeitan; eta 23:00etan, Zetak.
***Iturripen.***

**ESKORIATZA Euskaraldiaren aurkezpena**
Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo den ariketa sozialaren aurkezpena.
***Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.***

**ARETXABALETA Hipnosia taldea**
Ukitu progresiboak eta elektronikoak dituen talde bizkaitarra. Sarrerak, bost euro.
***Arkupen, 20:00etan.***

## ZAPATUA 15

**ARETXABALETA Ibilgailu klasikoen topaketa**
09:00etan, harrera; 11:00etan, ibilaldia, 12:00etan, luncha; 13:00etan, oparien zozketa; eta 14:00etan, amaiera.
***Herriko Plazan.***

**OÑATI Debagoieneko Ikasleen Eguna**
11:00etan, hitzaldia; 12:30ean, triki-poteoa; 14:30ean, bazkaria; 18:30ean, elektro-txaranga; eta 21:00etan, Burugabe, Larru Beltzak eta Virgin Mari DJ taldeen kontzertuak.
***Gaztetxean.***

## ZINEMA

**ARRASATE**

AMAIA ANTZOKIA

**La vida padre**
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Nire zirkua**
Domeka: 17:00.

**BERGARA**

SEMINARIXOA

**La vida padre**
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 19:30.

**Dc super maskoten liga**
Domeka: 17:00.

**OÑATI**

KULTURA ETXEA

**Modelo 77**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

**EIBAR**

COLISEO

**El vasco**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Black is beltza II: Ainhoa**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**En los márgenes**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

**Los buscamundos**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**El vasco**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**GASTEIZ**

GORBEIA

**Dc liga de supermascotas**
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 17:15.
Domeka eta eguaztena: 12:00.

**Tadeo Jones 3**
Egunero, domeka eta eguaztena izan ezik: 17:30.
Domeka eta eguaztena: 12:00, 17:30.

**La vida padre**
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 19:30.
Domeka eta eguaztena: 12:00, 19:30.
Astelehena eta eguena: 20:00.

**No te preocupes, querida**
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 22:15.

**Modelo 77**
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 19:30, 22:00.
Domeka eta eguaztena: 19:30.
Astelehena eta eguena: 19:45.

**Avatar 3D**
Egubakoitzetik domekara, martitzena eta eguaztena: 20:10.
Astelehena eta eguena: 17:00, 20.15.

**Avatar 2D**
Egubakoitzetik domekara, martitzena eta eguaztena: 16:50.

**Smile**
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 19:15, 22:00.

**Domeka eta eguaztena: 12:00, 19:15.**

**Astelehena eta eguena: 20:10.**

**La chica salvaje**
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 19.45.
Domeka eta eguaztena: 11:30, 19.45.
Astelehena eta eguena: 20:00.

**Argentina 1985**
Egubakoitzetik domekara, martitzena eta eguaztena: 17:00.
Astelehena eta eguena: 17:15.

**Izurde mutikoa**
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 17:20.
Domeka eta eguaztena: 12:00, 17:20.

**Los renglones torcidos de Dios**
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 18:45, 21:40.
Domeka eta eguaztena: 17:00, 19:15.
Astelehena eta eguena: 17:10, 19.15.
Martitzena: 17:00, 18.45, 21:50.

**El vasco**
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 16:40, 20:05, 21:40.
Domeka eta eguaztena: 12:00, 17:00, 20:05.
Astelehena eta eguena: 17:00, 20:10.

**Black is beltza II: Ainhoa**
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 22:10.
Domeka eta eguaztena: 12:00, 17:15.
Astelehena eta eguena: 17:30.

**En los márgenes**
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 17:30, 19:45, 22:00.
Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30.

**Fall**
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 17.45, 20:00, 22:15.
Domeka eta eguaztena: 12:00, 17.45, 20:00.
Astelehena eta eguena: 17:30.

**FLORIDA**

**Tadeo Jones 3**
Zapatua, domeka eta eguaztena: 12:00, 16.30.
Astelehena eta martitzena: 16.30.

**Argentina 1985**
Egubakoitza: 21:55.
Zapatua eta martitzena: 19:00, 22:00.
Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 19:00.

**La vida padre**
Egubakoitza: 17:00.
Zapatutik eguenea: 19:30.

**Black is beltza II: Ainhoa**
Egubakoitza, astelehena, martitzena eta eguena: 17:00.

Zapatua, domeka eta eguaztena: 11:30, 17:00.

**Los buscamundos**
Zapatua, domeka eta eguaztena: 12:00.

**Modelo 77**
Egubakoitza: 19:30, 22:00.
Zapatua eta martitzena: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17.30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00.

**Fuego**
Egubakoitza: 19:00, 21:30.
Zapatua eta martitzena: 17:15, 22:00.
Domeka, astelehan, eguaztena eta eguena: 17:15.

**La chica salvaje**
Egubakoitza: 19:30, 22:00.
Zapatua eta martitzena: 17:00, 21:00.
Domeka, astelehena eta eguatzena: 17:00.
Eguena: 19:30.

**Izurde mutikoa**
EZapatua, domeka eta eguaztena: 11:30.

**Los renglones torcidos de Dios**
Egubakoitza: 18:30, 21:30.
Zapatua eta martitzena: 18.30, 19.30, 21:30.
Domeka, astelehena eta eguaztena: 18.30, 20:00.
Eguena: 17.30, 19:00.

**Una historia de amor y deseo**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta martitzena: 19:15, 22:30.
Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 19:15.



*Los renglones de Dios* filma.

Zu hemen zaude. goiena

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

AZKEN BERBA



MARIA AGIRRE

## Gortinaren bi aldeak

Klima aldaketak lehorte handia eragin du Kenyan, eta uzta eskasa ari da izaten azken bi urteetan. Egoera horrek Kenyako familia batean dakartzan ondorioez mintzo zen, irratiz, Oscar Epelde, Afrikako berriemailea. Kenyan, lehorteak, gosea esan nahi duenez, amaren etxeratzea kezkaz bizi duten zazpi anai-arreben egunerokoa zen kronikaren ardatz. Azokan zerbait saltzea lortu badu, amak janaria erosi eta, hala, umeek zerbait jan ahal izango dute. Bestela, tripa hutsik pasa behar gaua, eta hurrengo egunean galdera bera.

Epelderen kronikari, beste albiste bat kateatzeko balio duen doinuak jarraitu dio; bide batez, gortina efektua egiteko balia dezakegun musikatxoa. Gortinaz bestalde, albisteek beste kolore bat dute. Jaurlaritzak babestuta egin den azterlan batek dioenez, Euskadin, urtean, 311.558 tona elikagai alferrik galtzen dira; gehien etxeetan, urtean 142 kilo pertsonako. Pentsa, hori aldatzeko, sentsibilizazio kanpaina beharko da. Agian, sukaldariak kontratatuko dituzte, eta bezperako ogiarekin esne-zopak edo sobera geratutako barazkiekin purea kozinatu daitezkeela azalduko digute. Hobe da Kenyako familia horrek gortinaren bestalde gertatzen ari denaz albisterik ez badu.

GOIENA OKM GIDA

# "Maizago hartu beharko genituzke masajeak"

**JOSE LUIS ABUIN** ABUIN MASAJEAK

Osteopata da Abuin eta uste du herritar askok eusten diola minari espezialista batengana joan ordez; horren aurrean, dio "beti" saiatu behar dela mina arintzen

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARRASATE

Arrasateko kiroldegian eta Mendia jauregian lanean aritu ostean, duela bost urte erabaki zuen osteopatia zentroa Arrasate erdigunean, Maalako Errebalean, zabaltzea, emazte Maria del Puy Bidebururekin batera.

**Nola murgildu zinen osteopatian?**
Nerabezaroan kirola eta yoga egitea gustuko nuen, eta orduan deskubritu nituen masajeak. Gustuko jarduera profesional bihurtu zen. Ikastaroak egin, eta lanean hasi nintzen.

**Zein da osteopata baten eta fisioterapeuta baten arteko ezberdintasuna?**
Osteopatia masajea baino zertxobait eboluzionatuagoa da. Ez du alderdi fisikoa bakarrik tratatzen, alderdi estrukturala ere lantzen du. Fisioterapeuta batzuk badira osteopatak, baina beste batzuek makinekin egiten dute lan. Guk ez dugu gailurik erabiltzen; artisauak garela esango nuke. Eskuak erabiltzen ditugu.

**Ohiko lesioak zeintzuk dira?**
Urte asko daramatzagu lanean; denetarik dago. Askok mantentze-lana egiten dute. Beste batzuk estresa dela-eta giharretako molestiak dituztelako etortzen dira; antsietatea dutenak, lasaitzera.



Jose Luis Abuin, Maalako Errebalean duen kontsultan. I.A.A.

### Maitasunez beteriko masajeak

"Profesionala ez den pertsona batek –bikoteak, gurasoak edo lagunak, besteak beste– masajea ematea arriskutsua izan daitekeen ideia existitzen da, baina uste dut ez dela hala. Maite duzun norbaiti masajea eman behar badiozu, goxo eta maitasunarekin ematen diozu. Hartzen duenak molestia nabaritu dezake, baina mina ematea zaila da. Min hartzeko, oso modu zakarrean eman behar da masajea".

Arazo fisikoengatik ere etortzen dira: kirolariak eta gain-kargak edo artikulazio blokeoak...

**Zertan laguntzen digu masajeak?**
Mantentze-lanak erlaxatu egiten gaitu eta kezketatik deskonektatzen laguntzen dizu. Askotan, errutinatik ateratzea zaila da, baina, masajearekin hainbeste sentsazio bizitzen dituzunez, zeure burua deskonektatu egiten da. Gorputzak nahiz buruak zerbait positibo bezala ikusten dute hori. Maiztasun batekin hartu beharko genuke masajea. Estresatuta bizi gaitezke; hobe da tentsio horiek deskargatzea.

**Lanaren alderik onena?**
Asko gustatzen zait nire lana. Paziente bakoitzarekin egiten dut lan. Harreman ona sortzen da, laguntzeko baitzaude.

**Masajeak eman ala jaso, zer duzu nahiago?**
Hartzea nahiago dut, baina ematea ere asko gustatzen zait. Pertsona bati laguntzen diodala ikusteak asko pozten nau.

**Mina dugunean asko kostatzen zaigu, kasu honetan, osteopatarengana joatea?**
Askok eusten diote minari. Gainera, askotan pentsatzen da, adibidez, etxeko batek bizkarreko mina izan duelako norberak izatea normala dela. Batzuetan, ez dago konponbiderik, baina beste batzuetan, bai. Beti saiatu behar da mina arintzen.

**Beste ogibide bat aukeratzekotan?**
Ez dakit. Ziurrenik, naturarekin zerikusia duen zerbait aukeratuko nuke. Dena den, ez daukat nire lanbidea aldatzeko asmorik.

Goiena OKm Gidaren eskaintza osoa

goiena Okm gida

